

Goienkaria

2010eko urriaren 8a > Egubakoitza > X. urtea > 437. zenbakia > Doan banatzekoa

Goiena 10 URTE
www.goiena.net TOKIKOM

"Hamaikabati eskaini diogu txertatzea gure zerrendetan bere hautagaiak"

Joseba Egibar
GBBko presidentea eta EAJko bozeramailea > 08



G2a

Aretxabaletan gerrak eragin zuena DVDan > 31

ARRASATE
Hiru milioi euroko mailegua eskatu beharra du Udalak > 12

BERGARA
09:00etan irekiko dute Elosuko ganadu feria martitzenean > 17

KULTURA
Dark Code taldea aukeratu dute ikus-entzuleek Danbakarako > 33

MUGIKORTASUNA > BTR

Autobus azkarra 2012rako

Bus Rapid Transit delakoa bi urte barru gertu egon daitekeela esan du Arantza Tapia diputatuak asteon Arrasaten. Aurreproiektua eginda dago eta orain ibilbideak zehaztu beharko dituzte udalekin. >34

OSASUNA > FARMAZIAK

Gaueko guardiak Arrasaten zentralizatzea proposatu dute

FARMAZIALARIAK Gipuzkoako farmazialarien elkarteak Osasun Sailari proposatu dio guardia sistema aldatzeko

"EZIN DA" Farmazialarien elkarteak dio ezin dela orain bezala segitu, lana alferrik egitea eta dirua xahutzea delako

ERABAKIA Osasun Sailak dauka azken erabakia; proposamena udaletara bidali dute, haien iritzia ere jakiteko > 02-03

JENDARTEA > GERTAKARIA

Lapurreta Kurtzebarri eskolan

20 ordenagailutik gora ostu zituzten eguzten iluntzean Aretxabaletako ikastetxean > 04



Banatu ditugu sariak

Astelehenean eman genituen aditzera Udako Argazkien VI. Goiena Lehiaketako irabazleak, eta asteon banatu dizkiegu sariak. > 09

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Iritzia > 06
Gutunak > 07
Elkarrizketa > 08
Herriak > 11-27
Kirola > 28
Kultura > 32-33
Gazteak > 34
Saillkatuak > 35
Telebista-Irratia > 36
Zerbitzuak > 36
Berri-zakua > 37
Eskelak > 37
Non-zer > 38-39



'PROTOTYPE' TALDEA Taldeko lau ume eta bi entrenatzaileak Gatzagako kultura etxean joan den zapatuan.

JULEN IRIONDO

Robota egiten dabilta Gatzagako bost ume

Robotika, ingeniari-tza, irudimena, euskara, talde lana... Elementu horiek guztiak batuta, astero batzen dira Gatzagako 12 urteko bost mutiko eta euren bi entrenatzaile. Nazioarteko

First Lego League torneoan parte hartuko dute. Robot bat egin eta probatu eta biomedikuntza proiektu bat egin behar dute. Arrasaten ere beste talde bat sortu berri da. > 11

OSASUNA > FARMAZIAK

Guardiak Arrasaten egitea proposatzen dute farmazialariek

PROPOSAMENA Gipuzkoako farmazialarien elkarteak Osasun Sailari bidali dio gaueko guardiak beste modu batera antolatzeko proposamena

HERRI BATEN Larrialdiak Arrasaten atenditzen direnez, gaueko guardiak beti Arrasaten ematea zentzuzkoena dela uste dute

ZERBITZU HOBEA Bailarako botikariek diote ia inor ez dutela atenditzen gauetan eta gauero lau farmazia zabalik egotea dirua "xahutzea" dela

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Debagoieneko gaueko guardiako farmazia zerbitzua beste modu batera antolatu behar da: diru asko galtzen dute farmazialariok eta lan karga handia jasaten dute, eta gainera, zerbitzua ia ez da erabiltzen. Hori da Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarteak (GSE aurrerantzean) duen iritzia. Hori ikusita, honako proposamena ipini dute Osasun Sailaren mahai gainean: Debagoieneko gaueko guardia guztiak urte osoan Arrasaten egitea, larrialdietako osasun zerbitzuak dauden herrian, alegia. Proposamenaren gaineko azken erabakia Osasun Sailarena da eta, onartzen bada, datorren urtean hasiko lirateke modu horretan lanean. Proposamena Debagoieneko udaletara helarazi du Osasun Sailak; udalen iritzia, baina, bakarrik iritzi gisa baloratuko da.

Gipuzkoako botikariak batzen dituen elkarteak, GSEk, honela azaltzen ditu proposamenaren nondik norakoak, Angel Garai bere presidentearen ahotan: "Debagoienean, egunero daude lau guardiako farmazia zabalik 22:00etatik 09:00etara: bat Eskoriatza eta Aretxabaletarako, eta bana Arrasaten, Bergaran eta Oñatin, eta ezinezkoa da horrela jarraitzea; pentsa, Goierrri osorako bat izaten dute".

Angel Garairen esanetan -eta edozein farmazialarik berresten

duen esana da-, guardia zerbitzua diru-galera hutsa da: gaueko guardia bakoitzak 120 eta 150 euro arteko kostua dauka farmazialariarendako, eta Arrasate ez beste herrietan "ia ez da erabiltzen", Angel Garairen esanetan.

%20 GUTXIAGO IRABAZTEN

Premiazko zerbitzua denez, botikarien helburua ez da errentagarritasuna: "Zerbitzua eman egin behar da, baina kalitatezko zerbitzua eman nahi dugu, berme

guztiarekin. Orain antolatuta dagoen moduan, ez da eragingarria. Gainera, farmaziok izugarriko diru-murrizketa jasaten gabilta: lehen baino %20 gutxiago irabazten gabilta", esaten du. Espainiako Gobernuak krisiari aurre egiteko onartu zituen neurriak aipatzen ditu GSEk; batik bat, 4/2010 eta 8/2010 Errege Dekretuak. Horrek eragin handia izan du sektorean.

Guardiak emateko lekua ez litzateke aldaketa bakarra izango, farmazialarien presidentearen arabera: "Guardiak ematen dituzten farmaziak espezializatu egingo lirateke, eta horrek abantaila asko ekarriko litzuke. Donostian horrela egiten da. Guardiako farmazialariak medikuarekin harremanetan egongo lirateke, eta sor daitezkeen arazoak unean konpondu".

Proposamena da, botikari guztiok diru kopuru bat ipinita, hiru farmazialari kontratatzea soilik gaueko guardiak emateko. Farmazialari horiek gaur egungo botiketan egingo lukete lan. Dena dela, erabakitzeke dago Arrasateko farmazia guztiak sartuko liratekeen edo ez.

Antolaketa hori Gipuzkoa osoan egin nahi dute, eta eskualde batzuetan dagoeneko hala egiten da. Zonalde bakoitza bere kabuz antolatzen da guardiak emateko. Finantzaketa modu hori ere Gipuzkoa osorako izango litzateke.

UMEARENDAKO ESNE BILA

Sarrien Aretxabaletako eta Eskoriatzako farmazialariek dituzte gaueko txandak, bi herri horien artean hiru botika daudelako. Horregatik, bakoitzak hiru astean behin, astelehenetik domekara, 24 orduan egin behar du lan, urtean 121 egunean. Angel Garairen hitzetan, "beste inongo lanbidetan ez da horrelakorik gertatzen". Horiek dute lan zama handiena; Arrasaten zortzi astean behin du bakoitzak; Bergaran, bost astean behin; eta Oñatin, lau astean behin. Antzuolako, Elgetako eta Aramaioko farmaziek ez dute gaueko guardiarik egiten.

Botikarioi galdetuta, gehienek ondo ikusten dute proposamena. Aretxabaletako eta Eskoriatzako farmazialariok izango dute mesede handiena. Aretxabaletako Maribi Anitua farmazialariak hauxe dio: "Nire ustez, hemen egiten dugun moduan, zerbitzu anakronikoa da. Hiru astean behin tokatzen zait neuri behar izatea, eta urte osoan hogeit bat bezero izango ditut. Eta guardia guztiak neuk egiten ditut, gau bakoitzeko 150 bat euro kostatzen zaidalako".

Gehiago esaten du: "Larrialdi bat duena ospitalera joaten da, eta han, errezeta jaso eta guardiako farmaziara joaten da; gehienak, Arrasaten bertan. Nik atenditu ditudan gehienek parazeta-



Botikariak lanean Oñatiko farmazia baten.

mola edo ibuprofenoa nahi zuten, etxean denok dauzkagun botikak. Azkeneko guardian pomada bat eskatu zidaten, goizeko bostetan. Beste baten, umearendako esne bila etorri zitzaizkidan".

Botikario batzuek ez dute farmazian gaua ematen, baina Maribi Anituak bai, izan ere, Elgetan bizi da eta guardia 20 minutuko epean atenditu behar da.

DENOK DIRU KOPURU BERA

Arrasateko Alberto Azkoaga botikariak ere "arrazoizkoa" ikusten du antolaketa proposamen hori: "Ez da zerbitzu handirik ematen, eta ematen dena, Arrasaten. Dirua xahutzea da". Bere esanetan, zerbitzu hori beti da defizitarioa, baina "zonalde txikietan, garestiagoa da". Horrela, "Gipuzkoako farmazia guztiok

DATUA

150

EURO GAUEKO

Gaueko txanda bakoitza 150 euro inguru kostatzen zaio Debagoieneko farmazialari bati; Gipuzkoako batez bestekoa da 122 euro.

121

GAU URTEAN

Aretxabaleta eta Eskoriatzako hiru farmazietako bakoitzak urteko 121 egunean egin behar du lan 24 orduan; Oñatin, 91 egunean.

R.P.S. Nº 149/10 LLG.

2 betaurreko kristalekin
Graduazio berdinarekin edo desberdinarekin
97€
2 konbinatu má

Konpartitu itzazu nahi baduzu...

Eskaintza hau baliagarria izango da 2010/08/23tik 2010/10/31ra arte. Kontsulta itzazu optikan, kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da pilatu beste promozio batzuekin.

J. Carlos Guerra, 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

AZKEN EGUNAK

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan



LEIRE KORTABARRIA

ESANAK

"Debagoiengan, gauero lau farmazia daude zabalik urteko egun guztietan, eta ezin daiteke horrela jarraitu"

"Kalitatezko zerbitzua eman nahi dugu, eta horretarako, gaueko guardiak beste modu batera antolatu nahi ditugu"

Angel Garai > GSEko presidentea

ESANAK

"Hiru astean behin, aste osoa egin behar dut lan 24 orduan, eta urte osoan 20 dei inguru bakarrik izaten ditut"

"Jendeak uste du guardiako farmazia premia bat dela, baina gehienak errezeta bako botika bila etortzen dira"

Maribi Anitua > Farmazialaria

ESANAK

"Arrasatekook berdin geratuko gara: gau eta egun ireki beharko dugu, orain arte bezala; neuri ez dit eragiten"

"Neure lantaldeak jarraituko du guardiak egiten, ez delako ailegatzeko kutxa komun bat osatzeko"

Erkuden Etxeberria > Farmazialaria

LABUR

Bakarrik errezetarekin joan behar da

> LARRIALDIAK

Larrialdietako guardiak gaueko txandakoak dira: 22:00etan hasi eta 09:00ak arte.

> DEBAGOIENEAN

Gaur egungo antolaketarekin, lau farmazia egoten dira zabalik gauero Debagoiengoko bederatz herrietarako: bat Aretxabaletan edo Eskoriatzan, bat Arrasaten, bat Bergaran eta bat Oñatin. Antzuolan, Elgetan eta Aramaion ez dago gaueko guardiarik.

> ERREZETA

Jarraibideak dira guardiako farmaziara bakarrik errezetarekin joan behar dutela; hau da, larrialdi kasuetarako dira. Lehenengo medikuarengana joan behar da, eta hark emandako errezetarekin joan farmaziara.

> TELEFONOA

Farmazialari batzuk botikan bertan egoten dira eta beste batzuek telefono zenbakia ipintzen dute bistan. Kasu horretan, guardiak irauten duen bitartean telefonoz topatzeko moduan egon behar dute. Edozein modutan, guardia 20 minuturen barruan atenditu behar dute.



diru kopuru bera ipintzea lortuko genuke", esaten du.

Krisi ekonomiko orokorren barruan kokatzen du arazo hori Azkoagak: "Gure sektoreari sekulako diru-murrizketa egin diote, eta sektoreak ere ahal duen lekutik txikitut behar ditu gastuak. Hemen, guardia baten, beharbada 10 euro fakturatzen ditugu eta 2 euroko irabaziak ditugu gau osoa egotearen".

Iritzi berekoa da Oñatiko Rosarito Anduaga: "Goardiek lehen bazuten zentzua, larrialdiak ere herrian atenditzen zirelako. Baina orain, larrialdi guztiak Arrasaten atenditzen direnean, ez". Jabier Barrenetxea farmazialariak bat egiten du: "Nik 36 urte daramat farmazian, eta gaueko guardiak gure lanaren zati gisa onartzen ditugu. Baina orain, Oñatin, ambulatorioa egubakoitzean 17:00etan ixten dute eta gauak ematen ditugu inor atenditu gabe".

"BERDIN JARRAITUKO DUT"

Arrasateko Erkuden Etxeberria farmazialariak beste iritzi bat dauka, ordea: "Nik orain arte bezala jarraituko dut. Egia esan, egiten dabiltzana berdin-berdin zait". Eta honela jarraitzen du: "Guk gau eta egun zabaltzen jarraitu beharko dugu; abantaila bakarra da inguruko herrikoendako, guardiak egitetik libre geratuko direlako. Arrasateko-

ok, populazioagatik-eta, orain arte bezala lan egin beharko dugu".

Etxeberriaren iritziz, egin nahi den kutxa komun horrek ez du aurrera egingo: "Ez dago nahikoa diru kutxa hori egiteko. Nire farmazian, nire lantaldeak jarraituko du gaueko guardiak egiten, hori segurua da. Zortzi egunetik baten daukagu guardia, eta horrela jarraituko dugu".

FARMAZIA TXIKIAK, KEZKATUTA

Guardiak beste modu batera antolatzeak aldeko iritziak ditu, hortaz, baina baita kontrakoak ere. Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarteak presidentek onartzen du zalantzak daudela: "Debagoiengoko botikariekin egon gara eta ados daude. Egia da, baina, botika txikiek kezka dutela, izan ere, denok diru kopuru bera ipini beharko lukete hiru kontratu berri horiek egiteko, eta gutxiago irabazten duten farmazialariak zalantzan jarri dute diru kopuru hori". Bestalde, hauxe esaten du: "Neuk ere nahi dut farmazia zabalik etxe ondoan, baina ezinezkoa da gaur egun moduan jarraitzea".

GSEren datuen arabera, Gipuzkoako farmazialariok gaueko 76.285 ordu egiten dute lan, eta 850.300 euroko gastua dute; baina gaua garestiagoa da Debagoiengan (150 euro inguru) Gipuzkoako batez bestea baino (122 euro).



Finantzaketa kuota pertsonalizatuak



SIMS
SERVIMASA

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxe: 943 51 57 57
20100 LEZO

> JENDARTEA

Adingabeei laguntzeko telefonoa jarri dute martxan

Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak 116 111 telefono berria (isilpekoa eta doakoa) jarri du martxan, eta, horren bidez, aditu talde batek arrisku-egoeran, tratu txarreko egoeran edo eskubideen urraketen egoeran dauden adingabeei aholkuak, informazioa eta orientazioa eman go dizkie. Horren harira, webgune bat ere prestatu du: www.euskadi.net/zeukesan.

> GERTAKARIA

Oñatiko bortxaketa batengatik 12 urteko zigor eskaera

Gipuzkoako Auzitegiko fiskaltzak 12 urteko kartzelazigorra eta 10.000 euroko kalte-ordaina eskatu ditu, besteak beste, gizonetzko batendako. Hari egotzen diote Oñatiko emakume bat bortxatu izana eta lesioak egin izana lepoan, sorbaldetan eta baita eskumuturretan ere, 2008ko maiatzean. Gizonetzkoaren defentsak, berriz, absoluzioa eskatu du.

> EUSKARA

Nafarroa Oinezera joateko autobusa antolatu dute

Urriaren 17an Nafarroa Oinez egingo dute Atarrabian, *Munduz mundu* lelopean. Ohikoa den moduan, Debagunek Nafarroako ikastolen aldeko jaialdira joateko autobusa antolatu du.

Txartelak euskara elkarreetan daude salgai, 12 euroren truke. Euskara elkarreetako bazkideak direnek, aldiz, 11 euro ordaindu beharko dituzte.

> JENDARTEA > GERTAKARIA

Kurtzebarri herri eskolan 20 ordenagailutik gora ostu dituzte

Eguazten gauean sartu ziren lapurrak Aretxabaletako ikastetxera; ordenagailu eramangarriez gain, saguak, konexio kablea eta proiektagailua ere eraman zituzten

MIRIAN BITERI > ARETXABALETA

Lapurrak eremu berrietan lan egiten hasi dira. Orain arte gara-jeetan, autoetan, dendetan, tabernetan, enprezetan eta etxebizitzetan sartu izan dira; baina azkenaldian, ikastetxeetan ere jarri dituzte begiak. Joan den eguazten gauean, Aretxabaletako Kurtzebarri eskolan sartu ziren eta 20-30 bat ordenagailu eramangarri, saguak, konexio kablea eta proiektagailu bat ostu zituzten. Eskola 2.0 programako materiala da lapurtu dutena.

Ertzaintzak 03:20an jaso zuen abisua. Kurtzebarritik jakinarazi digutenez, eraikinaren atzeko partetik sartu ziren. Esan dute: Aatzeko partean ez dago bizilagunik ezta mugimendurik, eta hori aprobetxatu dute. Hesitik salto egin, aldamiola jarri dute eta lehenengo solairuan dagoen Eskola 2.0 programaren



Eraikinaren atzeko partetik sartu ziren lapurrak.

MIRARI ALTUBE

gelako leihotik sartu dira. Ordenagailuak kargatzeko duten altzarian sartuta zeuden; hori apurtu eta barruan zeudenak

lapurtu dituzte". Horrekin batera, azaldu digute lehenengo aldia dela "dimentsio horretako" lapurreta dutela.

ESANAK

"Hesitik salto egin, aldamiola jarri eta lehenengo solairuan dagoen Eskola 2.0 programaren gelako leihotik sartu dira"

Kurtzebarri eskolako ordezkaria

Kurtzebarrikoek gaineratu dute Jaurlaritzako Hezkuntza-ordezkaritzarekin harremanetan jarri direla, ordezkioak ekar ditzaten eskatzeko, eta jakinarazi dietela ez direla bakarrik. Azkenaldian, Bizkaia eta Gipuzkoako bost bat ikastetxetan ostu dutela esan diete.

ESKOLA 2.0 PROGRAMA

Esan bezala, lapurtutakoa Eskola 2.0 programari lotutako materiala da; besteak beste, 5. mailako ikasle bakoitzak duen Intel Atom N270 (1,6 Ghz) ordenagailuak dira eraman dituztenak. Programa horrek hezkuntzan informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak sartzen ditu, eta ohiko ikasgelak ikasgela digitalak bilakatu. Ikastetxe publikoez gain, ikastolek Ikaszy izeneko antzeko proiektua dute martxan aspalditik.

> EKONOMIA > LANGABEZIA

Irailean 3.000 langaberen muga gainditu da ostera ere Debagoiengan

Irailean 61 gehiago zeuden; Antzuolan, Arrasaten, Aretxabaletan eta Bergaran egin zuen gora

M.B. > BERGARA

Bigarren hilabetez jarraian, langabeziak gora egin du irailean Debagoiengan. Hala, hilabete bukaeran 61 langabe gehiago zeuden gurean eta maiatza ezker, lehen aldiz, ostera ere 3.000 pertsonatik gora zeuden lan barik: 3.031, hain justu ere.

Datuak herrika aztertuta, bilakaera ezberdina izan du langabeziak: hiru herritan behera egin du: Oñatin, Elgetan eta Leintz Gatzagan. Eskoriatzan mantendu egin da kopurua eta gainerako herri guztietan gora egin du. Langabezia tasa, bestalde, %9,78an geratu da.

2006AN, 1.597 LANGABE


Dena den, nabarmendu behar da joan den urteko iraileko datuekin alderatuz, langabeziak behe-

ra egin duela urtebetean, iaz irailean 302 langabe gehiago zeuden eta gurean. Dena den, urrun dago oraindik 2006ko iraileko kopurua, urte hartan 1.597 langabe zeuden-eta bailaran.

Iraileko datuak, herriz herri

| LANGABETUAK | |
|-------------------|--------------|
| Antzuola | 102 |
| Aretxabaleta | 313 |
| Arrasate | 1.239 |
| Bergara | 738 |
| Elgeta | 41 |
| Eskoriatza | 203 |
| Leintz Gatzaga | 8 |
| Oñati | 387 |
| DEBAGOIENA | 3.031 |

ITURRIA: INEM

Langabeak Debagoiengan

ITURRIA: INEM

Frutak & BarazkiakM^gustaKalitatezko fruten bila? M^gusta aukera biribila!

Kanarietako platano estra 0,99€/kg

Nafarroako konferentzia madaria 0,99€/kg

Azenarioa 0,39€/kg

Txanpiñoi bandeja 0,69€

M^gustan baserriko produktuak erosi ditzakezu!

Eskaintzaren epea urriaren 9tik 16ra (biak barne)

M^gustaBarrenkale 9
Tel.: 943 76 10 43
BERGARADurana 16
Tel.: 943 03 66 63
ARETXABALETAUribarri etorbidea 3
Tel.: 943 08 14 07
ARRASATEORDUTEGI
JARRAITUA
08:30etik 21:00etara



Arizmendiarrrietaren ondoan lan egin ostean, 1980ra arte *TU Lankide*-ko zuzendari izan zen Juan Leibar omendu zuten. J.B.

OSPAKIZUNA > URTEURRENA

'TU Lankide'-k 50 urte: iragana gogoan, aurrera egiteko ilusioz

Mondragon taldearen aldizkariak mende erdia bete du, eta iraganeko eta egungo kideek diote oraindik kooperatibismoaren tresna baliagarria dela

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
Cooperacion izenarekin sortu zuen Jose Maria Arizmendiarrrietak 1960ko urrian eta *TU Lankide* izenarekin aurrera segitzen du 50 urte geroago. Mondragon taldearen aldizkariak bizirik dirau, eta ez da kasualitatea, eguaztenez egindako urteurren ekitaldian argi geratu zenez. Izan ere, aldizkariak iraganeko eta

egungo protagonistak bat etorri ziren oraindik ere *TU Lankide* tresna baliagarria dela kultura kooperatiboa hedatu eta Mondragon taldearen barruan gertatzen denaren berri emateko.

EKITALDI DINAMIKOA

Goi Eskola Politeknikoko areto nagusia izan zen ekitaldia. Espero baino jende gutxiago egon arren, ekitaldi polita eta dinamikoa izan zen. Bertan izan ziren, besteak beste, Jose Antonio Ajuuria eta Javier Marcos –egungo zuzendaria, 1990a ezkeror–, aldizkariak lantaldea ordezkatzeko. Marcosek, *TU Lankide* posible egin duten guztiei eskerrak emateaz gain, etorkizunari "gogo eta ilusioz" begiratzen diotela azaldu zuen: "Ea 25 urte barru hemen gauden, 75. urteurrena ospatze-

ko". Gainera, aldizkaria itxuraz aldatu bada ere, hasierako eta egungo helburuek berberak izaten jarraitzen dute, haren ustez.

Bestalde, ikusleen artean kooperatibismoaren lehen urratsak bertatik bertara ezagutu zuten pertsonaia historikoak ere izan

ESANAK

"Ilusio eta gogoz begiratzen dugu aurrera, ea 25 urte barru hemen gauden aldizkariaren 75. urteurrena ospatzeko"

Javier Marcos > Egungo zuzendaria

ESANAK

"Gakoa ez da bizirik irautea, baizik eta berritu eta egokitzea; hor egin den lanagatik zuzendaritza taldea zoriondu gura dut"

Javier Leibar > Zuzendari omendua

ziren; Jose Maria Ormaetxea, esaterako. Ormaetxeak aldizkarian kolaboratzen jarraitzen du.

OMENALDIA JUAN LEIBARRI

Ekitaldia amaitzeko Juan Leibarriri omenaldia egin zioten, aldizkariaren alde egindako lanagatik. Arizmendiarrrietaren ostean lehen zuzendaria izandakoak –84 urte ditu– esker onez jaso zuen omenaldia: "50 urte egin ditu *TU Lankide*-k, baina gakoa ez da bizirautea; baizik eta berritzea, garai berrietara egokitzea, eta hor egin dako lanagatik aldizkari zuzendaritza taldea zoriondu gura dut".

ETORKIZUNEN ERROKAK

'TU Lankide.com', sarerako jauziaren beharra

50 urte luze pasa dira eta aldizkariaren esentziak berdin segitzen du. Orain, etorkizuneko erronkei egin behar zaie aurre. Eta erronka horietan Internetek berebiziko garrantzia dauka. Hala, 50. urteurrenako ekitaldian *TU Lankide.com* webgunea sortzeaz delako jakinarazi zuen Marcosek. "Domeinua erreserbatu dugu, eta ez da gutxi", esan zuen. Espero dute datorren urtearen hasieran atari berria estreinatzea. Interneteko atari berriak berehalako informazioa, bideoak eta fototeka izango ditu. Baina webgunea estreinatu aurretik, hura elikatzeko gaitasuna izango dutela ziurtatu gura dute.

EKONOMIA > EROSKETAK

Dirua ateratzeko aukera erosketak ordaintzeko kutxetan

Eroskiko edozein kutxatan dirua atera ahal izango da: 300 euro gehienez eta 5 euro gutxienez

J.B. > ARRASATE

Eroski taldeko edozein supermerkatutan erosketak egin ostean kutxara ordaintzera joaterakoan posible da dagoeneko kutxako langileari berari dirua eskatzea. Horretan datza Eroski txartelak eskaintzen duen zerbitzu berria: "%2ko komisioa izango du zerbitzuak, baina hilabete

honetan doan izango da, promozio moduan", azaldu du Ainhoa Merinerok, Arrasateko Hiper Eroskiko arduradunak.

Komisio hori, beraz, datorren hiletik aurrera jarriko da indarrean eta, Merinerok azaldu duenez, gutxienez 1,20 euro izango da.

300 EURO GEHIENEZ

Egunean 300 euro atera daitezke gehienez, eta atera daitezkeen gutxienezko kopurua 5 euro da.

Bestalde, Eroskiko txartela Visa modura ere erabili ahal da, Eroskitik kanpo ordaintzeko egiteko. Kasu horretan, zerbitzu horregatik ez dute kobratuko.




Eroski Red Visa txartela. J.B.

ERRESUMA BATUAN SORTUA

Joan den irailaren 23an jarri zen indarrean zerbitzua, "poliki-poliki", Merinerok adierazi duenez. Esandako moduan, erabilgarri dago dagoeneko eta, Eroskiko arduradunak esan duenez, batzuk hasi dira zerbitzua erabiltzen.

Estatuan zerbitzu hori ematen aitzindaria bada ere, Eroski taldeak Erresuma Batutik hartu du ideia. Izan ere, bertan sortu zen, eta bereziki arrakastatsua da banketxe gutxi dauden zonetan; hau da, dirua ateratzea nahiko zaila den guneetan. Erresuma Batutik AEBetara *bidaiatu* zuen ekimenak eta orain gurera heldu da.



Rafa Uribarren. ARTXIBOA

Rafa Uribarren

> Landa Ingurunearen Garapenerako diputatua

"Oñatiko elkarte publikoa bat dator gure asmoekin"

J.B. > ARRASATE

Aldundiak Gipuzkoako haragiaren alde egingo duela dio Rafa Uribarrenek. Eta asmo horrekin Oñatiko hiltegiaren elkarte publikoa sortzea bategarria dela uste du.

Oñatiko hiltegiaren elkarte publikoaren alde zaudete?

Ez dugu oztoporik ikusten Oñatiko hiltegiaren elkarte publiko bidez kudeatzeko. Kontua da Gipuzkoako haragiaren egitura oso desegituratuta dagoela eta Gipuzkoako hiltegiak modu bateratuan lan egiteko bideari eutsi nahi diogula. Egundak, Mankomunitateak kudeatzen du Oñatiko hiltegia, baina udalek osatutako elkarte publiko batek kudeatzea begi onez ikusten dugu, baliagarria da gure helburuak betetzeko; hots, denok batera joateko.

Beraz, bateragarriak dira Oñatiko elkarte publikoa eta Gipuzkoako hiltegiaren kudeaketa bateratua.

Lau hiltegiaren funtzionatzeko era ezberdina da oso eta ez da batere erraza izango guztiek kudeaketa bateratua egitea. Hala ere, lortuko bagenu, aurrerapauso handia izango litzateke gure haragiaren dako. Aldi berean, badakigu kudeaketa bateratuaren helburuak ezin duela Oñatiko kudeaketa asmoa oztopatu.

Bertako haragiaren alde egin gura duzue, hortaz.

Gipuzkoan kontsumitzen dugun %25 ekoizten dugu eta gure baserriarren haragia oso zatituta eta behar den moduan katalogatu gabe azaltzen da merkatuan. Hori horrela, eskaintza argi eta bateratua egin gura dugu, ondo bereizteko zein den bertako eta kanpoko haragia.



zabalik

Maite Aristegi

Independentzia eguna

Irargarkia ETBn. Hotzikara ere ematen du. Estatu espainiarrak, munduan zehar hainbeste on egiten diharduten koittaduak, indar armatuak, mirestea, "arrazaren eguna" harrotasun hispanikoz ospatzea agintzen digu. Espainiar imperialismoaren, herrien menperatze eta uniformizazio kulturalaren eguna ospatzera behartuta! Lurren lapurretari, esplotazioari, Ameriketako jatorrizko herri eta kulturen aurkako ia desagertzearainoko sarraskiari hasiera eman zion data, gure egutegietan gorritz!

Baina herri guztiek, askatasunean oinarrituta, politiko zein ekonomikoki burujabeak izateko duten nahia konpartitu eta hizkuntza, nortasun eta kultura aniztasuna aldarrikatzen dugunok badugu beste ospakizun bat. 200 urte dira amerikar herri eta nazioen independentzia prozesuei hasiera eman zitzaizela; haien borrokari esker etorri zen emantzipazioa, deskolonizazioa, hiru mendetako espainiar domeinuaren amaiera.

Eta gurea ere badator. Alferrik Estatuak, jatekoa galtzeko beldur den basapiztia amorratu bat biltzan, bakerako ematen den urrats bakoitzari, eszenatoki demokratikorako eskua luzatzen den aldiro, atzaparkada mendekuzale beldurgarri erantzun!

Herri hau martxan da, askatasun doinu alaietan dantzan egiteko prestatzen dihardu, eta geure borondatea erabakitze bidean goaz!

Bada nahiko lan denontzat; tartean, Euskal Herriarentzat beste eredu ekonomiko-sozial bat marraztea. Aktualitatezko bi adibide-txo: bata, diru-zaleek hondakinen gaian eten dutena; baina hiru urte nahikoa izan dira, atez ate, bestelako eredu honen balio izugarria erakusteko. Eta egindakoa hor dago, geroko biderako. Bestea egitekoa, eta lehenbailehen: Oñatiko Hiltzeta biziberritzea. Nekazari eta erosleontzat, baserri eta inguruak bizirik eusteko janari subirautea lortze bidean, tresna ezinbestekoa.

usteak uste

Mireia Bikuña

Port Aventurako 'Furius Baco'

Oñatiko jaiak aprobetxatuz Salou aldean ibili gara bost egunetan. "Oñati erdixa zuen hotelian egongo da" eta "egun osua jendia agurtzen eongo zai" entzun behar izan genuen oporretara joan aurretik. Bai, oñatiarrak ikusi ditugu, baina ez da horrenbesterako izan. Bestalde, umeen aitzakian, Port Aventuran egon ginen. Ezagutzen nuen parkea, baina ez sarreran dagoen *Furius Baco* atrakzioa. Irteera izugarria da: hiru segundoan 135 kilometro orduko abiadura hartzen du. Adi ibili eta burua tente mantendu, bestela zerbikalak...

marrazkiz

Alex Ugalde



blog-top

Herri filosofia

Anjel Lertxundi Esnal

<http://berria.info/blogak/lertxundi/>

Arrain txikiak handia jan; tiroa kulatatik irten; zirkua jarri eta ipotxak hazi; putak putari, zapata-puntarekin; mendekua hotzean...

Herri filosofiaren ikasgai azeleratu bat jaso du Zapaterok astebete doian, gordintasun osoz esan dizkiote Fernandoren egiak. Praktikan jarriko dituen, nekez ikusiko dugu, baina denbora batez ez dituela burutik kenduko, segurtzat jo liteke. Ikasgai azeleratu izan du, baina ez zaio debalde aterako.

Madriren gertatutakoak popa bistan utzi du laborategien, bulegoen, inkesta-etxeen -eta, finean, buruiritzi mesianiko baten- eskuetan utzitako politika. Politika profesionala burutzen den saloietako perfumek ez du gogoko bizitza egunerokoaren izerdi usaina. Herritik urruti, baztertu egiten dute herri filosofia, eta ez dute jakin nahi izaten galtzeko gutxi duenari zenbat gustatzen zaion Goliaten kontra lehiatu zen Dabid ustez ahul haren ausardia.

Istorio guztiek izaten dute beren ifrentzua, eta Dabidenak ere bai berea, gogoan hartu behar baita Dabid nola iritsi zen Goliat izatera...

Zapatero ere izan zen bere taldekoen Dabid -ez dira hainbeste urte!-, harik eta ispiluan Goliaten irudia ikusten hasi zen arte...

Bolonia

Joxe Aranzabal

<http://goiena.net/blogak/farao/>

Oraingo pare bat urte hezkuntza plan famatuaz hitz egiten hasi ginenetik, beti idatzi izan dut Bologna, Italiako hiria izendatzeko. Banekien gaztelaniaz Boloña idazten dela, baina niretzat nazioarteko erreferentzia Bologna zen, jatorrizkoan bezala.

Euskaltzaindiak txosten bat atera du, *Europako hiriak*, erabakitze zelan izendatu Europako hiriak euskaraz, eta Euskal Akademiak Bolonia hobetsi du Italiako hiria izendatzeko. Hemendik aurrera, "Bolonia plana" idatzi beharko dut, gai horren inguruan idazten dudanean.

koplak

Enaitz Alustiza

Kotxe elektrikoa errealitate

Aurreko astean erosi berri dut kotxe elektrikoa, gasolarik gabe dabilen garraio ekologikoa.

Ta energia nola lortzen du? Ba, bateria batekin, hagineta zepilo bat lez, baina lau erruberakin.

Ta bateria gastatzen bada? Ba kargatu ta aurrera! Entxuferen bat topatu arte gogor bultza egitera...

Ez du martxarik, ez enbragerik doa ixil ta xuabe, autotxokeen antza du honek, baina banderita gabe.

Nahiz zer hobetu asko baduen, ai irakurle maitea, ze polita den gasolindegidenei agur esatea!

Nahi baduzue noizbait buelta bat eman genezake hara! Baina hori bai, pila pare bat ekarri badaezpada.

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETAKO Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Salletako arduradunak Leire Kortabarria (Herriak, Goienkaria eta Gehigarriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea), Oinarritzko diseinua Goio Arana Maketazioa Oxel Arrieta eta Imanol Soriano Publizitatea Mireia Larrañaga, Igonen Osinaga, Ziortza Martin, Ederne Gorosabel, Aintzane Muruamendiaraz Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETAKO 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 20.000 ale • Difusioa: 19.724 ale.



OID erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko Jaurlaritza



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Maritxu Kajoi jaiaren ostekoak

German Argarate
Arrasate

Baina ez bakarrik Maritxu Kajoi jaiaren ostekoak, ez.

Izan ere, halako jaiaren bat egoten den bakoitzean, herria zikin-zikin eta txizaz, kakaz, botakaz eta era guztietako zikinkeriaz betetzen da.

Aurreko astean, bergarar batek idatzi zuen honen gainean, han ere denetik egiten dutela eta bere atartean.

Gurean ere ez dira gutxiago izan, eta txiza-putzu handi-handi batez gain, oraingoan kaka ere utzi digute opari, ondoan papertxo batzuk zeudela, ondo erabilia.

Guztion ardura da herria garbi edukitzea, eta komunak ere ipintzen dira halako jaiak izaten direnean. Baina jende uholdea datorrenean eta koadrilak tabernaz taberna dabiltzanean, pentsatu ere ez dute egiten eta okurritzen zaien lehenengo lekuan egiten dituzte euren egitekoak.

Pentsa ze nazkagarria den atartetik irten eta saltoa eman

behar izatea txiza, kaka edo dena delakoa ez zapaltzeko. Batzuek umeak ditugu, baita ama edadetua ere, eta horiekin irakaspen ona ematen diegu umeei, haiek ere ondo ikasiko dute.

Baina lasai egon, hurrengo jaiak etorriko dira eta berdin-berdin egingo du jendeak txiza eta botaka kalean; pena da, baina *ohituta* gaudela esan beharrean gaude, lehenik eta behin norberaren ardura da eta horiek ez egitea, nahiz eta gero ondo garbitzen dituzten.

Horixe, ba, norbaiti hausnartzeko besteko eraginik badu gutun honek, ondo etorri.

Jaiak bai, ardura ere bai!

Irungo harategi bateko okelak klenbuterola?

Rafa Rodriguez
Bergara

Horixe bakarrik falta zitzaigun! Izan ere, azkeneko astean hautsak harrotu ditu Alberto Contador ziklistaren defentsan erabili duten arrazoiak;

hau da, klenbuterol zantzuak zituen Frantziako Tourreko atsedean egunean egin zioten dopin kontrolean, eta Contadorrek esan zuen Irundik eramandako solomilloak zeukala.

Eta nola jakin dezake Contadorrek klenbuterola okelak zuela, ba? Hau da, oraindik ez dute ezer frogatu, ez dute esan ze harategitan erosi zuten okela... baina hark bota bota zuen. Frogatu egin beharko du gorputzean zeukan klenbuterola okelak eragindako zela, ala? Eta nola egingo du hori?

Abuztuaren 24an jakinarazi ei zion UCIk kontua, eta ordutik hona denbora soberan izan dute dena delako harategira joan eta okelaren jatorria aztertzeko, baina... zera, okela erosi zuenak ez dakiela, ez dela akordatzen Irungo ze harategitan erosi zuen!

Ez dakit zelan amaituko den kontu hau, baina ez dauka itxura onik Contadorrentzat; Espainiako kazetariak eurak ere hasi dira zalantzan jartzen okelaren kontu hori.

Honekin guztionekin, zer pentsatuko ote dute Irungo harakinek?

Gazteekin akordatzearren, eskerrik asko

Mari Tere Arruabarrena
Arrasate

Pozik entzun nuen Arrasaten skatean ibiltzeko parke bat eraiki behar duela Udalak. Pozik entzun dut hori, ze 14 urteko mutikoa daukat eta oso skatezalea da, eta beti ibiltzen da egokiak ez diren lekuetan patinetean gora eta behera.

Badakit Zigorrolako kiroldegian ere badagoela skatean ibiltzeko beste leku eder bat, baina badakizue honek kontuok zela izaten diren: lagunak beti elkarrekin ibili behar. Antza, Zigorrolako parkea ordaindu behar den horietakoa da.

Orain, berriz, Zaldibarren eraiki behar dutena doakoa da eta edozein joan ahal izango da. Beti kexatu izan gara Arrasaten eta inguruan jende gaztearendako zerbitzu gutxi daudela, eta horretxegatik gura nuen nire eskerrona azaldu Udalari; batez ere, jakinda krisi egoera bete-betean gaudela, eta beste obra asko egin ezinda dabiltzala.

Asier Agirreren alde, Arrasatetik

Jon Uribarren
Arrasate

Nire jaioterriko alkateari zigorra ezarri diote, hain justu ere, herritarrei Aramaiotik pasatu behar den tren erraldoi horren gaineko iritzia galdetzearren. Zela ententitzen da hori? Nik neuk, behintzat, ez dut ententitzen. Eta begira, orain arte ez neukan oso argi trenaren kontra egon edo ez, baina, batzuen jarrerak ikusita, susmoak pizten zaizkit batzuk ez ote dabiltzan lanean, euren esanetan, herritarren alde, baina benetan, euren interesen alde. Zigor-tzekoa da herritarrei galdetzea zein den euren iritzia? Ez al gara ba Europa? Bada, agintari jaunok, European halako galdaketak mila eta bi egiten dira eta ez dute inor zigortzen. Galdetuta egin zutenean ez nuen parte partu, aspaldi dela Gasteizen bizi naizelako, eta damu naiz. Jakin izan banu zer gertatu behar zen, Gasteiztik Aramaiorako bidea egingo nuke bakarrik galdeketa horretan parte hartzeko.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Ibarra kalea 6
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 01




Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

ARKAUZ
MUEBLES
ARETXABALETA



ETXE MOBEL
ALTZARIAK
ARRASATE



ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABALETA
FAGOR
banatzaile ofiziala



ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABALETA
expert
banatzaile ofiziala



Arkauz zure etxea da.



GRUPO
ARKAUZ

ARETXABALETA • ARRASATE
1950•2010

60 urte

Batu Gaitezen ekimenaz, Bilbo-ko manifestazioaz, Zapaterorekin darabilten negoziazioaz, nor- malizazio politikoaz eta hautes- kundeez dihardu Gipuzko Buru Batzarreko presidentek. Dio Zapaterori jarri diotela mahaia- ren gainean "egonkortasun fak- torea" Euskal Herriarendako eta Zapatero ahul dagoela aprobe- txatu nahi dutela, baina ez mer- katu-trukean ibiltzeko.

Joseba Egibar > GBBko presidentea eta EAJko bozeramailea

"Hamaikabati eskaini diogu txertatzea gure zerrendetan bere hautagaiak"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Batu Gaitezen ekimena aurkeztu zuen EAJk Donostian, Bilbon giza eskubideen eta eskubide zibil eta politikoen alde egin zen manifestazioaren aurretik. Hautsak harrotu ditu manifestazioak. Joseba Egibarrek argi egin du berba hari buruz.

Hautsak harrotu ditu joan zen zapatuko Bilboko manifestazioak. Gustura sentitu zinen manifestazioan?

Manifestazio inportantea izan zen, jendetsua. Debeku bati erantzun nahian, hainbat pertsonak deialdia egin zuen eta deialdi horrekin bat egin genuen askok. Nire ustez, Adierazi Euskal Herriak eskerrak eman behar zizkien antolatzaileei, debeku bati buelta eman ziotelako, eta horretan utzi. Bilboko manifestazioa ez zen izan Adierazi Euskal Herriari babesa emateko, baizik eta debeku bati aurre egiteko eta eskubide guztien defentsan, hasi giza eskubidetik eta eskubide zibil eta politikoetara arte.

Ez zenekiten manifestua irakurri behar zenik ezta zeinek irakurriko zuen eta zer esango zen?

Ez. Harritu egin nintzen estilo faltagatik. Euskaldunok badugu gauzak egiteko estilo bat. Elkarren artean errespetu handiagorekin ibili beharko dugu etorkizunean.

Batu Gaitezen ekimena aurkeztu zenuten zapatuan Gipuzkoako EAJko kideok Donostian. Zer da?

Gipuzkoak baditu berezitasunak. Indar politiko guztien presentzia nabarmena da eta, bereziki, indar politiko konstituzionalistek apustu egin dute Gipuzkoa hartzeko. Hori zilegi da, betiere espresio politiko guztiak hauteskundeetan egon badaitezke. Bestalde, ezker abertzaleak esana du EAJ ordezkatzea dela helburua. Eta hori ere zilegi da. Bi mutur horiek garbi ikusten ditugunez, geure proposamena egin diogu jendarteari.

Zeintzuk dira ekimen honen ardatz nagusiak?

Giza eskubide guztien defentsa eta herri honek bere etorkizuna erabakitzeko duen eskubidearen aldarrikapena. Ez dugu mitinik egin nahi, baizik eta konpromisoak hartu. Oztopoak gainditzeko, politikan eta herri honen mesedetan bidean ez galtzeko.

EAJ Gernikako akordioan faltan sumatu dute batzuek. Zergatik ez zenuten bat egin adierazpen harekin?

Ez ginen izan ez gonbidatuak eta ezta desiratuak ere. Printzipioetan ados egonda ere, uste dugu hobe dela ezker abertzaleak, geuk eta denok, nor bere bidea egitea.

Batu Gaitezen ekimenarekin bat egiten du alderdi osoak ala Gipuzkoako jeltzaleon ekimena bakarrik da?

Alderdi barruan hausnarke- ta eginda dago eta hori jaso dugu Ados proposamenean. Batu Gaitezen ekimenak baditu bere ñabardurak, Gipuzkoak badituelako bere berezitasunak soziologikoki eta elektoralki. Horri erantzuna eman zaio. Aterki nagusi horren azpian estrategia hauek erabat uztargarriak dira eta zabaldu nahi ditugu Gipuzkoan barrena.

Baztertuta daukatzue Hamai- kabatekin koalizioan hautes- kundeetara aurkeztea?

Bai. Alderdia osatu aurretik, azaldu genien ikusirik zatiketaren zatiketa zirela alderdi politiko- koa ez sortzeko, organikoki harremanak zaildu egiten direlako. Haien asmoa baldin bada gurekin elkarlanerako uneak bultzatzea, koalizioa osatu beharrean beste aukera batzuk badaude.

Zer eskaini diozue?

Gure zerrendetan txertatzea euren hautagaiak. Uste dugu hori dela abertzaletasun demokratiko eta historikoaren esparruan behar den notizia.

Ze onura ekarriko digu politika aktiboen transferentziak?

Balorazio ona da, nahiz eta bakarren batzuk horren aurka agertu eta esan 472 milioi euro ez dela ezer...

ELA sindikatuaren ustez, Zapaterok irabazi du politika aktiboen inguruko jeltzaleen eta PSOEn arteko negoziazioan.

ELAk tranpa egiten du, beti bezala. Batzuek diote 472 milioi- rekin aukera datorrela. Eta 300 milioirekin, iaz Lopez lehendakariak nahi zuen moduan?

Lehendakaria toki txarrean utzi duzue.

Lopez operazio politiko baten ondorioa da. PPK eta PSE-EEk bat egiten dute Ajuria Enea heltze-



Joseba Egibar, Arrasaten, martitzenean.

XABIER URTZELAIA

ODON ELORTZARI AURRE
"Donostiak behar du alkate abertzale bat, ondo kudeatzen dakiena"

HAUTESKUNDEAK
"Oso zaila da zeurea den jendea ere erakartzea plaza publikoan jartzeko"

ko. Daukat inpresioa lehendakaria iritsi dela eta esan duela: "Hau al zen dena?". Ze, autogobernuaz EAJkoak arduratzen dira eta Zapaterok ez du deitzen... Eta horrela dago, tokiz kanpo. Etorkizun hurbilean, berriro ikusiko dugu lehendakaria hankamotz dagoela politikoki, eta ekonomikoki ere txarto ibiliko da.

Zapateroren aurrekontua babesteko negoziazioak hasi besterik ez da egin. Ze beste jarriko du mahaia- ren gainean EAJk?

Zapatero ahul dago eta hori aprobe- txatu nahi dugu. Ez mer- katu-truke moduan ibiltzeko...

Hainbatek horixe leporatu dizue.

Erraza da hori. Zapaterok egonkortasuna nahi eta behar du: harendako eta haren gobernuarendako, eta Europatik begira dauden erakundeek ikus dezaten egonkortasuna duela. Eta guk esaten diogu geuk ere egonkortasuna behar dugula herri honetan. Izan ere, Zapatero izan da, besteak beste, Alderdien Legea tarteko eta PPrekin egin duten ituna babestuz, herri honen etorkizuna baldintzatu duena.

Eskatuko diozue Zapaterori bertan behera lagatzeko Alderdien Legea?

Ez da erraza, baina baldintza berriak sortzen badira euskal politikan? Esaterako, egiaztagarria den su-eten iraunkorra ETAK iragartzen badu eta begiraleek hori bermatzen baldin badute? Edo ezker abertzaleak fitxa politikoa mugitzen badu indarkeria baztertuz? Ze egin behar du Zapaterok? Guk Zapaterori jarri nahi diogu mahaia- ren gainean egonkortasun faktorea gure herriarendako.

Ze espero du EAJk Gipuzkoan? Irabaztea.

Sozialistak izan ziren irabaz- le duela lau urte lurraldean.

EAJk badu sinesgarritasun eta fidagarritasuna.

Urteak daramatza EAJk Odon Elortzari irabazi ezinik.

Helburua da Eneko Goiarekin irabaztea. Elortzaren kudeaketa kaskarra da eta ondorio txarrak ekarri dizkie donostiarrei. Donostiak behar du alkate abertzale bat, ondo kudeatzen dakiena.

Lourdes Idoiaga izango da Oñatiko EAJren alkategaia. Beste herrietan?

Bagabiltza. Politikaren des- prestigioagatik edo herrigintza urruti ikusten delako, aitortu behar dut oso zaila dela zeurea den jendea ere erakartzea plaza publikoan jartzeko. Dedikazioa eskatzen du eta lan merkatuan dauden batez besteko lan sarien eta udal batekoen artean desoreka handia dago.

goiena.net/bideoak
Elkarriketa osoa, webgunean.



UDAKO ARGAZKIEN VI. GOIENA LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak

Banatu ditugu sariak

Banatu ditugu udako argazkien VI. Goiena lehiaketako sariak. Lara Gonzalez arrasatearrak irabazi du lehen saria, *Ispiluaren aurrean* argazkiarekin. Argazkia ikasgelako Arantza

lagunari atera zion ispilu aurrean urarekin aurpegia busti da eta freskatzen. Bigarren saria Idoia Iturralde aretxabaletarrak eskuratu du, *Duomo plaza* argazkiari esker; Milango Duomo

plaza ezagunean atera zuen argazki artistikoa. Eta hirugarrena Miguel de Ganesha arrasatearrak. Argazkigintza eta artea ditu gustuko eta hori irudikatu du *Artea* argazkiarekin.




2. SARIA

Aretxabaletako Idoia Iturraldek irabazi du bigarren saria, Kantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevaran aste bukaera bateko egonaldia bi lagunendako, gosaria eta zapatuko afari berezia barne. Milango Duomo plaza ezagunean atera zuen argazki artistikoa ekainean. Lehen aldia da Idoiak parte hartzen duela lehiaketan baina oso gustuko du argazkiak etaratzea, bereziki paisaiak. Sari hau pozik hartu duela esan digu Idoiak. Arrasate Bidaiak-eko Amanda Sanchezek eman zion saria.



SARI NAGUSIA

Lara Gonzalez arrasatearrak irabazi du sari nagusia: argazki-kamera digital bikaina, **KB Photoestudio** argazki-dendak eta Canon etxeak eskainitakoa, eta KB Photoestudiok emango dituen ikastaroetako batean %50eko deskontu bonua. Dendako **Bibi Anduezak** eman zion saria. Iaz ere lehiaketan parte hartu zuen, baina ez zuen irabazi, eta aurten animatu egin da berriro; ezustea hartu du lehiaketa irabazita. Oso pozik dago sariarekin, asko gustatzen zaio-eta argazkilaritza.



3. SARIA

Miguel de Ganesha arrasatearra izan da hirugarren sariduna. Argazki lehiaketa baten parte hartzen duen lehen aldia da. Gatzagako **Gure Ametsa** jatetxean afari eder bat irabazi du Miguelek, ilunabarra modu artistikoan islatzen duen lanari esker. Argazkian, Migueli saria ematen agertzen da Gure Ametsako jatetxeko **Marisa Bolinaga**.




Babeslea:



Laguntzaileak:



Debagoieneko GREMIOAK



AROTZEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
- K-21

Telleria 19 B02-B03

T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

www.goiena.net/blogak/azkarate

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta

- Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak

Otalora 14

T: 943 79 16 10

F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate

- Instalazio elektrikoak
- Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15

T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

F: 943 79 68 21

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza

- Hormigoizko estruktura eta urbanizazioak
- Kontratak

- Enpresen mantentze-lanak

Intxartxueta 5

T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22

F: 943 71 55 15

DEKORAZIOA

J. ORTIZ

Bergara

- Mota guztietako pladur lanak
- Igeltsu-lanen dekorazioa
- Sabai eta apaletan espezialistak
- Isolamendu akustikoa
- Gremioen koordinazioa

Alkabieta kalea z/g.

T: 943 76 03 51 / 663 90 93 18

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

T: 943 77 01 85

IMANOL ITURGINTZA

Arrasate

- Iturgintza
- Berogailua eta gasa
- Bainugelak

Kale Txiki 9 behea

Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

T: 943 77 19 88

F: 943 79 59 97

VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta

- Hargintza lanak
- Bainugelako altzariak
- Berogailuak
- Erretenak ipini eta garbitzea

Santa Kurtz 7, 3. ezk.

Tel.: 620 17 80 46

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

- PVC leihoak
- Aluminio termikoko leihoak
- Poliuretanozko leihoak

Zigarrola 1- 8 pab.

Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

ION LEIHOAK

Arrasate

- Metal aroztegia, PVC eta aroztegia

Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia

T: 943 79 11 35

F: 943 77 31 20

YOSU THERMIK

Arrasate

- Lehieta eta ate isolatzaileak
- PVC leihoak
- Aluminio termikoko leihoak
- Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)

Kataide poligonoa 4 Pab.

Tel: 943 77 01 57

F: 943 77 03 21

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Herriak

Arrasate > 12-15 Bergara > 16-19 Oñati > 20-21 Aretxabaleta > 22-23 Eskoriatza > 24 Antzuola > 25 Aramaio > 26 Elgeta > 27 Gatzaga > 27



> **ARRASATE**
Arantza Tapia: "Bi urtean gertu egon daiteke autobus azkarra" > 13



> **OÑATI**
Lorea Igartua oñatiarraren eta Verdini taldearen dantza saioak > 21

Behin batean...



> **ARETXABALETA**
Antzinako kantu eta kontakizunen lehiaketa egingo dute Basotxon > 22

> **ELGETA**
Hilaren 15ean hasiko da pilota txapelketa, aurten 20 bikoterekin > 27

LEINTZ GATZAGA > HEZKUNTZA

Euskararen eta teknologiaren bidez, Lego koparen bila doaz gatzagarrik

FIRST LEGO LEAGUE

Nazioarteko torneo baten esku hartzen dabilta bailarako bi talde

ROBOTA Orain robot bat egiten dabilta eta gero zientzia proiektu bat asmatuko dute

LEIRE KORTABARRIA > LEINTZ GATZAGA
Zapaturu, Leintz Gatzagako kultura etxea ikasgela, laborategi eta aisialdirako gune bihurtzen da bost mutiko gatzagarrendako -12 urteko Asier Urizar, Jon Egidazu, Aratz Oñederra, Xabier Fernandez eta Ander Arana- eta bi heldurendako -Edorta Arana eta Idoia Armendaritz.

Bost mutiko horiek *Prototype* delako taldea osatu dute -ize-na euren asmatu dute-. Robot bat egiten dabilta, eta hori bukatu eta probatutakoan, biomedikuntza proiektu bat egingo dute. Nazioarteko First Lego League delako torneoan parte hartzen dabilta. Helburu nagusia ez da talde txapelkun bat ateratzea; hala, saria Lego piezekin egindako kopa bat da.

Euskadin, Innobasquek deitu du, eta Gatzagako Gurel guraso elkarteak eutsi dio deialdiari. Arizmendi Ikastolan beste talde bat osatu da: DBHko 4. mailako 10 ikaslek osatzen dute. Beñat Irزابال da euren entrenatzailea. Horiek joan den astelehenean osatu zuten taldea.

EGIN ETA PROBATU

First Lego League 10 eta 16 urte arteko neska-mutikoendako egiten den robotika lehiaketa bat da. Helburuetako bat da haiek zientziara eta teknologiara inguratzea eta horien gainean ikuspuntu positibo bat sortzen laguntzea. Aurtengo gaia biomedikuntza da. Hiru eginkizun ditu talde bakoitzak: batetik, robota egin eta proba batzuk pasarazi; bes-



First Lego League torneoan parte hartzen dabilta mutikoak (argazkian, bat falta da), bi entrenatzaileekin.

JULEN IRIONDO

ESANAK

"Astean behin batzen gara; robotarekin oraindik ez gara hasi, baina nahiko proba dauzkagu eginda dagoeneko"

Xabier Fernandez > Taldekidea

"Gura izan dugu Gatzagako umeak talde gisa sendotzea, eta euskara izan dadila euren arteko harreman tresna"

Edorta Arana > Entrenatzailea

etik, zientzia-proiektu bat egin; eta azkenik, proiektu teknikoa, robota zelan egin den baloratze. Xabier Fernandez taldekidea honela dio: "Hasi ginen orain lau edo bost aste, eta astean behin batzen gara, robota muntatzeko eta gure lanaz hitz egiteko. Robotarekin oraindik ez gara hasi, baina nahiko proba dauzkagu eginda". Esaten duenez, "pieza asko daude, eta munt-

atzea zaila da", baina jo eta ke dabilta.

Zientzia-proiektua ere taldekideek azaltzen dute: "Ideia batzuk eman behar ditugu, eskua, hanka... falta dutenen bizitza bionikaren bidez hobetzeko. Adibidez, igogailuetan, elbarriendako botoiak baxuago jartzea eta mikrofonoa ipintzea, euren esateko ze solairutara joan nahi duten".

EUSKARA BULTZATU

Gatzagako taldekoek beste helburu batzuk ere badituzte, Edorta Aranaren hitzetan: "Gura izan dugu Gatzagako umeak talde gisa sendotzea, eta euskara izan dadila euren arteko harremanerako tresna". Azpimarratzen duenez, "protagonistak eurak, umeak dira; gu laguntzaileak bakarrik gara. Dena euren asmatu eta erabakitzen dute".

LABUR

Mundu osoko 130.000 neska-mutiko asmatzaile bihurtzen dira

Lego League delakoa First erakundeak (For Inspiration and Recognition of Science and Technology) antolatzen du. Dean Kamen asmatzaileak eta Woodie Flowers irakasleak sortu zuten First 1989. urtean, AEBetan, ingeniarietara eta teknologiara ikasleak hurbiltzeko.

First Lego League erakunde horrek antolatzen dituen lau txapelketetako bat da. Mundu osoko 10-16 urte arteko ikasleendako da. Urtero, irailean, erronka edo gaia ezartzen du First-ek. Zortzi astean barrena, ingeniarietara kontzeptuak erabilia, robot bat egin eta

programatu behar dute, eta epaimahai baten aurrean aurkeztu beharreko zientzia-proiektu bat ere prestatu. Teknologia arloan sortzen diren benetako arazoendako irtenbide berritzaileak asmatzen dituzte neska-mutikoek. Berez txapelketa izan arren, hortaz, helburu nagusia ez da txapelkun bat nabarmentzea.

Txapelketa 1998an egin zuten lehenengo aldiz. 53 herrialdeetako 130.000 ume bakoitzak parte hartu zuten. Euskal Herriko finala abenduan izango da, Zamudion. Debagoieneko taldeek hori pasatzen badute, Espainiako finalera pasatuko dira.

bere ustez



Eneko Barberena

Galdetzea debekatuta, demokrazia?

Railaren 29an berripaperek zioten Eliseoak ez duela AHT beharrezko ikusten 2060 arte. To! Horren beharrezkoa ei den proiektu faraonikoak desmarkatu egiten dira frantximentak. Gu eta Europa arteko kordio unibilikala, gu eta hipermodernotasunaren arteko lotura Espainia barruko trentxo bat izango da, Euskal Herria Madrilekin eta gure hiriak euren artean lotuko dituen besterik ez.

Krisi garaian, gure aurrekontuaren gehiengoa jaten duen azpiegitura erraldoia

"Krisi garaian gure aurrekontuaren gehiengoa jaten duen azpiegitura erraldoia da"

da. Hori denoi dagokigu, niri, zuri irakurle eta gainontzeko arrasatearroi. Gure dirua xahutu, gure mendiak puntutzeko. Eta zertarako? Pertsonak garraiatzeko? Merkantziatarako? Oraindik ez dute garbi esan! Obrak hasiak daudela ez dakite zertarako den?

Zer egin daiteke ados ez gaudela esateko? Borroka armatuaren garaia amaiturik, beste ezein disidentzia trenarekin terrorismotzat jotzen du audientziak. Herritarrei galdetzea bera kriminalizatu dute Aramaion. Demokrazia batean galdetzea debekatzen bada, esan zuek erantzuna: demokrazia batean bizi gara? Doakiola elkartasuna eta babesa Asier Agirre alkateari, eskerrik asko zure adorea-gatik.

ARRASATEKO UDALA > OSOKO BILKURA

Hiru milioi euroko mailegua eskatzeko beharra du Udalak

Udalaren asmoa da hiru milioi euroko mailegua datozen 11 urteotan amortizatu ahal izatea

Mailegu eskaeraz gainera, hiru urteotarako plan finantzario beharra ere aztertu zuten

UBANE MADERA > ARRASATE

Krisiaren ondorioz eratorritako ekonomia kontuek hartu zuten atzo, eguena, udalbatzaren osoko bilkuraren gai zerrendako zatirik handiena.

Horien artean, deigarriena izan zen Arrasateko Udalak eskatzeko beharra ikusi duen maileguaren zenbatekoa: 3.104.928,42 euro. Ogasun batzordearen arabera, "hartutako konpromisoengatik edo hasitako obra edo inbertsioengatik, beharrezkoa ikusi da mailegua sinatzea".

Udalaren proposamena da Kutxari eskatzea mailegu hori, datozen hamaika urteetan amortizatzen.

INBERTSIOAK GUTXITU ERABAT

Mailegu eskaeraz gainera, Udalak beharrezkoa ikusten du, baita ere, 2010-2013 urterako finantza plana edo ekonomia plana egitea. Arrazoia da 2010eko aurrekontua onartu zuela "defizit egoeran". Hori horrela, plan finantzarioak jasoko luke "krisialdi ekonomikoaren jarraipen

testuinguru batean zorrotasun eszenatoki bat, non eta Udalaren eskumeneko zerga kontzeptuei buruz zerga ahalegin moderatu batekin batera" planteatzen duten "mailegu bidezko zorra gutxitze-ari aurre egitea, batez ere, nagusiki gastu korronteari eustea eta, bereziki, exekutatu beharreko inbertsioen zenbatekoa gutxitzea erabat".

ZERGAK KOPURUTAN

> **IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA** 9 zaldi fiskal baino gutxiagoko turismoek 41,27 ordaindu beharko dute; 9-11,99 artekoek, berriz, 82,52 euro.

> **URA** Etxeko urarengatik, tarifa finkoaren arabera, 15 milimetroko kalibredunen artekoek (horixe da etxe gehienek duten kontagailu mota) ordaindu beharko dute 20,35 euro hiru hilean behin. Eta horri gehitu behar zaio kontsumoaren araberako tarifa. Hori horrela, adibidez, 50 m³-ra arte, 0,51 euro ordaindu beharko da metro kubiko bakoitzeko.

> **ZABORRA** Etxeko zabor bilketa kobratuko dute 48,60 euro sei hilean behin.

> **HILERRIKO ZERBITZUAK** Errausketa kostako da 302 euro, nitxoan hilobiratzea 686,50 euro; hezurtegia, 160 euro (ontzi barik) eta auzoetan hilobiratze eskubideak, 165,30 euro. Beilatokia erabiltzea, berriz, 61,20 euro.

oharrak

KINTOAK

> **1967an jaiotakoak**

1967an jaiotakoek kinto afa-ria egingo dute azaroaren 6an Arrasaten. Izena emateko, deitu honako zenbakietara: 943 79 65 56 (Mirari) edo 943 77 07 66 (Maria). "300 lagun baino gehiago gaude jaiotze data horretan; beraz, animatu eta parte hartu; izan ere, iaz 40 besterik ez ginen elkartu eta gure helburua da

ahalik eta talderik handiena batzea", diote antolatzaileek.

KINTOAK

> **1958an jaiotakoak**

1958an jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 20an batzokian. Izena emateko 60 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako honako kontu korrante honetan: 3035 0001 59 0011144438.

KINTOAK

> **1956an jaiotakoak**

Lizarrara joango dira 1956an jaiotakoak azaroaren 13an. 09:30ean aterata, Santikurutze Kanpezun gosalduta eta Lizarran bazkalduta egingo dute. Izena emateko 60 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako honako kontuan: 3035 0001 50 001 1149525.

KINTOAK

> **1942ko emakumeak**

1942an jaiotako emakumeek bazkaria egingo dute urriaren 23an. Interesa dutenek Mari Karmenenean izena eman behar dute.

Ogasun batzordeak uste du aurreikuspenak betez gero Udala itzuliko litzatekeela "aurrekontu orekako egoera batera 2010-2013 aldi horretan".

KRISIA=ZERGAK GORA

Udalaren oreka ekonomikoa lortu arte, baina, herriko organo gorenak beharrezkoak ditu diru-iturriak aurrera egiteko. Eta diru-iturri garrantzitsua zergak dira.

Bada, ildo horretan, eta GOIENKARIAN aurreratutako moduan, azken urteko joera aldatu eta datorren urtean arrasatearrek ordaindu beharreko zergak ez izoztea da Udala Gobernuak proposatu duena. Gobernuaren proposamena da 2011n %2ko igo-

DATUA

3

MILIOI EURO

3.104.928,42 euroko mailegua. Hori da Arrasateko Udalak atzoko (eguna) osokoan proposatutako maileguaren kopurua 2010eko ekitaldiko inbertsioak finantzatu ahal izateko.

era orokorra ezartzea zergei, hainbat salbuespenekin.


Horien artean esanguratsuenak bi ziren: uraren prezioaren igoera eta kiroldegikoen igoera.

Uraren kasuan, asmoa zen %3,5 igoetzea, Uren Kontsorzioak igoera hori aplikatuko delako; azkenean, baina, osokoan proposatu dute hor ere %2ko igoera aplikatzea.

Eta kiroldegia kasuan, berriz, %3,8ko igoera izango dute kiroldegiko prezio orokorrek, argindarraren eta BEZaren igoerak behartuta.

EMAITZARIK EZ

Horiek guztiak, esandako moduan, atzoko osokoan proposatu zituen Udala Gobernuak. Baina hau idaztean osokoa egin barik zegoenez, ezin dugu aurreratu bilkuren emaitzarik.



GOIENKARIA

Urte amaieran hasiko dira lanak

Gabonen ostean, datorren urte hasieratik gertuago, hasiko dira eraikitzen Zerrajeran babes ofizialeko etxebizitza berriak, ospitalearen atzeko aldekoak; goiko irudien modukoak izango direla iragarri du Visesak, promotoreak. Bestalde, gainerako bi bloketako etxebizitzak aurreikusitakoak baino handiagoak izatea proposatu du Visesak.

Tasatze maximoa

Urrea

erosten dugu!

Dirua momentuan

Maalako Errebala 8
ARRASATE

Zabalik asteazken, ostegun eta ostiraletan

MUGIKORTASUNA > 'BUS RAPID TRANSIT'

Aldundiaren iritziz, autobus azkarra 2012an egon daiteke

Baina alkateak dio autobus azkarra gertu egoteko Aldundiaren lanak "martxa hobean" joan beharko duela

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Bus Rapid Transit delakoa –hiri handietan ohikoak diren autobusendako errepideak– Debagoienan bi urte barru gertu egon daitekeela azaldu zuen astelehenean Arantza Tapia Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako diputatuak, Gipuzkoa Eraikitzen ekimenaren barruan Kulturaten egindako hitzaldian. Gaineratu zuen azpiegitura hori egitea ez dela oso garestia izango, baina zailtasunak egon daitezkeela herri barruan egokitzeko orduan.

Aldundiak joan den astean jaso zuen *Bus Rapid Transit*-en aurreproiektua eta orain ibilbi-deak aztertu eta zehaztu beharko dira bailarako udalekin. Lehen fase horretan sartuko

lirateke Arrasate, Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Oñati eta Bergara; eta geroago etorriko lirateke Antzuola eta Elgeta.

AUTOBUS AZKARRA, NAHIKOA EZ Tapiak azaldu zuen oraindik ere zenbait udalek mesfidantzaz begiratzen diotela ekimenari, uste dutelako martxan ipiniz gero tranbiaren proiektua arriskuan egon daitekeela.

Ino Galparsoro alkateak esan du bi urte barru autobus azkarra errealitate izan dadin Aldundiak "martxa hobean" lan egin beharko duela. Horrez gain, Debagoienan garraio publiko osoaren aldeko apustua egiteko eskatu dio Aldundiari: "Urte askotan zehar ezer gutxi egin da gurean, eta bada garaia garraio publiko osoari bultzada emateko, ez autobus azkarrari bakarrik". Azkenik, adierazi du ibarreko alkate gehienek eskatu ziotela Aldundiari autobus azkarrak tranbia ez baldintzatzea. Bada, Aldundiak ezezkoa eman zien, batak bestea ez duela baldintzatuko, hain zuzen.



Gurasoak hurrekin jolastea gura du Gurasolandiak. Irudian, lehen edizioa. ARTXIBOA

AISIALDIA > GURASOLANDIA

Berrikuntzaz josita dator ekimenaren bigarren edizioa

Txatxilipurdik berriro egingo du gurasoei zuzendutako jolasparkea, azaroaren 2tik 7ra

J.B. > ARRASATE

Lehen edizioaren arrakasta borbiltzeko asmoz, Gurasolandiaren bigarren edizioa antolatu du Txatxilipurdik. Lehen edizioa baino luzeagoa izango da, aste bukaera bakarrik beharrean azaroko lehen astea hartuko du-eta haur zein gurasoei –azken hauei bereziki– zuzendutako jolasparkeak, hilaren 2tik 7ra, hain zuzen. Antolatzaileek ez dute ekimena bi egunera mugatu gura izan.

LEKUZ ETA EKINTZAZ ALDATZEN

Aste osoa iraungo duenez, astean zehar gurasoendako zenbait mintegi izango dira eta aste bukaeran haur eta gurasoek elkarrekin hartuko dute parte askotariko ekintzetan. Esaterako, mihi-luze txapelketa –zapatu arratsaldean– eta jolas tradizionalak –domeka goizean– egingo dituzte. Bestalde, aurten ez da Uarkapen egingo: Txatxilipurdik herriko erdigunea hartu gura du.

> AUZOAK

Ardo eta txakolin dastatzea Bedoña Baturen eskutik

Bedoña Batu elkarteak ardo eta txakolin dastatzea antolatu du datorren urriaren 23rako. Bedoña auzoko Lora-mendi elkartearen egiteko hitzordua, 18:30ean. Mikel Garaizabal adituak emango ditu azalpenak eta dastatzearen ondoren mokadutxo bat eskainiko dute.

Izena emateko honako telefonoetako batera deitu behar da, urriaren 15a baino lehen: 620 13 87 39 (Goiatz) edo 943 79 95 38 (Dorleta).

> EUSKALGINTZA

Nafarroa Oinezera joateko autobuseko txartelak, AEDn salgai

Datorren urriaren 17an izango da Nafarroa Oinez, Atarrabian. Nafarroako ikastolen aldeko festarako *Munduz mundu* leloa aukeratu dute antolatzaileek eta Paz de Ziganda ikastolari laguntzeko balioko du jaiak. Festan parte hartu gura duenaren dako autobusa antolatu du Debagune elkarteak. Txartelak euskara elkarteetan izango dira salgai, 12 eurotan (11 euro bazkideendako).



IKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

Jose Angel Tena > Zaldibarko antolatzailea

"Txapelketak Zaldibarren jokatzeko delako du arrakasta"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Jose Angel Tena (Arrasate, 1974) eta beste hamaika laguneko taldea gertu daude Zaldibarko txapelketaren 49. ekitaldia antolatzeko. Tenak hamargarren urtea egingo du antolatzaile lanetan, eta onartu digu jokatzeko atsegin duelako jarraitzen duela txapelketa aurrera ateratzeko lanean, gainontzekoek moduan.

Dagoeneko gertu duzue 49. ekitaldia.

Bai; taldeek izena ematea falta da. Ez dira garai onak horrelako txapelketendako, jendeak geroago eta konpromiso gutxiago nahi dituelako, bai txapelketa antolatzeko orduan, eta baita talde batean sartzeko orduan ere. Batzuk deseatzeko egoten gara asteburua iritsi eta Zaldibarren jokatzeko, baina beste batzuek ez dute astebururo lotura hori izan.

Azken urteotan urtero entzuten dugun kontua da hori, baina txapelketa polita iriteta da gero.

Iaz hamasei talderekin antolatu genuen txapelketa, bai ligan eta baita kopan ere. Eta gustura geratu ginen txapelketarekin. Aurtengo helburua da talde kopuru horri eustea.

Noiz hasiko zarete?

Antolatzaileok urriaren 13an, eguaztena, Kulturaten izango gara, 18:00etatik 20:00etara taldeen izenak hartzen. Denok ezagutzen dugu elkar, eta jendeak kale-

an eskatzen digu euren taldea kontuan hartzeko. Eskatuko nieke, mesedez, taldeko ordezkari bat etor dadila izena ematera.

Izema emateko prozedura betiko da, talde bakoitzak 200 euro ordaindu beharko ditu eta horietatik 75 euro fidantzarako dira; txapelketa urriaren 16ko eta 17ko asteburuan hasiko dugu. Zalan-tzak argitzeko telefono zenbaki bat izango dugu: 634 44 75 92.

Talde bakoitzeko ordezkari banarekin harreman estua izan nahi duzue.

Bai; azken urteotan ere horretan ahalegindu gara. Baina aurtengo gehiago azpimarratu nahi dugu hori. Antolatzaileok laguntzaren bat behar badugu, edozer gauzatarako, gertu izan nahi dugu talde bakoitzeko ordezkari bana.

Arrasaten Zaldibarko txapelketa da, duda barik, harmailetan gehien jarraitzen den kirol ekitaldia. Eta 49 urte beteko ditu aurtengo zer du txapelketak?

Kokalekua, duda barik. Txapelketa hau Musakolako kantxan jokatu balitz ez litzateke gauza bera izango, seguru egon horretaz. Beste txapelketa batzuetara ere joan izan gara jokatzera, eta ez dago horrelako girorik. Kanpoko jendea hona etortzen denean harriritu geratzen da.

Erdigunean dagoelako...

Herriaren erdian egonda jende asko etortzen delako. Umeek



Jose Angel Tena, eguazten goizean, Zaldibarren.

XABIER URTZELAI

"Batzuk deseatzeko egoten gara asteburua iritsi eta Zaldibarrera jokatzera joateko; beste batzuek ez dute halako konpromisorik nahi"

"Txapelketa hau Musakolako kantxan jokatu balitz, ez litzateke gauza bera izango, seguru"

ere hona etorri nahi izaten dute jokatzera, futboleko elastiko eta guzti, nagusiek jokatzeko duten moduan.

Bertan jokatzeko den futbola ere berezia da; hemen ez da benetako areto-futbola jokatzeko, beste modu batean jokatzeko da, pare-tarekin...

Txapelketa antolatzeko nahiko lagun zaudete?

Justu-justu gabilta. Hamabi lagun izango gara, eta hiru talde-tan banatuko gara. Iaztik hona talde bat galdu dugu, eta pena da. Talde hori arduratzen da tokatzen zaion asteburuan kartelak jartzeko, Zaldibarren egoteaz...

Aurtengo Zaldibarren izango da ika-mikaren bat edo beste, hor dago grazia.

Urtero egoten da zerbait, jendeak intentsitatez jarraitzen duela txapelketa. Ahalegindu gara areto-futboleko partidua epaitzen dituzten epaileak ekartzeko, baina ez dute horretarako baime-nik izaten. Neurri handian, errespetu kontua da: epaitzen dabiltzen hori txapelketako beteranoa bada, errespetu handiagoa izaten dio jokalariek, baina gaztetxo bat epaile lanetan hasten denean...

Bestalde, uste dut azken urteotan sartutako arau berriek -gehienezko falta kopurua ezartzea- lasaitu egin dutela joko.

XAKEA > ARRASATE HIRIA

Gaur hasiko dute X. edizioa, punta-puntako xakelariekin

Txapelketa birritan irabazi duen Alejandro Franco madrildarra da faboritua

X.U. > ARRASATE

Arrasate Hiria nazioarteko xake txapelketak hamar urte beteko ditu aurtengo. Eta, urtero moduan, nazioarteko rankingean aurreal-dean dabilen hainbat xakelari izango dira lehian, ibarrekoekin batera.

Holden Hernandez kubatarrak ezingo du iaz irabazitako txapela defendatu, beste txapelketa batzuetan dabilelako buru-belarri. Hutsune hori kontuan izan-

da, Arrasate Hiria birritan irabazi duen Alejandro Franco madrildarra izango da faboritua. Ibarrekoen artean, Fran Miguel aretxabaletarra da aukera gehien dituen, urtero aurrealdean aintzatzen du-eta txapelketa. Eta klube-koen artean, Josu Tornayk du Elo sailkapenean puntu gehien. Adi, baina, gazteekin.

Gaur 19:00etan Altamiran jokatu dute lehenengo jardunaldia -ikusleendako ateak zabalik.



Arrasate Hiriko jardunaldi bat, iazko edizioan.

J.A.

> ATLETISMOA

Malen Ruiz de Azua lehenengo sailkatu da Espainiakoan

Joan den asteburuan egin zuten Burgosen Espainiako kadete mailako klub txapelketa, eta Bidasoa taldea ordezkatzeko lortu zuen Ruiz de Azua lehen postua, pertika saltoan (3,40 metro). Izar Gorroño goitiaz hirugarrena izan zen salto hirukoitzean (9,82).

Bestalde, oraingo asteburuan 19 urtez azpiko Espainiako txapelketan izango dira Maialen Axpe (pertika saltoan) eta Eukene Dorronsoro (400 metroko lasterketan). Arrasateko bi atleta horiek ere Bidasoa ordezkatzeko lehian izango dira.

ERAKUSKETA

Juanjo Altunaren ikasleen lanak

Gaurtik hasita Harresi aretoan egongo dira artelanok ikusgai

X.U. > HERRIA
Juanjo Altuna Akizu (Arrasate, 1943) margolariaren ikasleek egin dituzten lanak egongo dira ikusgai Harresi aretoan, gaurtik hasita: "Guztira 30 artelan inguru egongo dira, margolan figuratibok dira, eta oso lan txukunak, gainera".

IBARREKO ARTISTEN LANAK

Margolanok Altunak Bergaran duen estudiora joaten diren ikasleek egindakoak dira: "Bailarako jendearen lanak egongo dira ikusgai, Bergarakoak, Arrasatekoak, Aretxabaletakoak... Besteak beste, Elorrion ere ematen ditut eskolak, baina eurekin beste erakusketa bat antolatuko dugu". Aste barruan 18:00etatik 20:00etara egongo da aretoa zabalik; zapatu eta jaiegunetan, baita 12:00etatik 14:00etara ere.

> MUSIKA

The Kill Devil Hills Amaia antzokian gaur, 20:00etan

The Kill Devil Hills australiarak izango dira gaur, egubakoitza, Amaia antzokiko hall-ean, 20:00etan.

Lehenbiziko bi diskoekin (*Heathen songs* eta *The drought*) arrakasta nabarmena lortu zuen taldea hirugarren lana aurkeztera dator gurera: *Man, you should explode* izenburuko lana emango dute argitara.

Teloneo moduan James Cruickshank herrikideak jardungo du, bakarkako ibilbidean dabilena.



Arrasatearrak Seber Altuben aste barruan, berriketan.

XABIER URTZELAI

EUSKARA > IKASTAROA

"Euskalkian gabeziak ditugulako pasatzen gara gaztelaniara"

AEDk euskalkian berba egiten ikasteko ikastaroa antolatu du; zabalik dago izenemate epea

Itxaro Artola: "Euskalkian berba egitea da gure artean komunikatzeko modurik gertukoena"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

AEDk mondragoeraz berba egiten ikasteko ikastaroa jarri du abian, eta oraindik garaiz zaude izena emateko: "Udal Euskaltegiko lagunek emango dute ikastaro hori, eta asmoa da urriaren 26an edo azaroaren 2an hasiate, taldea osatzen dugun momentuan", adierazi du AEDko ordezkari Itxaro Artolak.

Ikastaroa 20 ordukoa izango da eta izena eman nahi dutenek 55 euro ordaindu beharko dituzte -50 euro AEDko bazkideek-. Hain zuzen, martitzenetan emango dituzte eskolak, 18:00etan hasita: "Komeni bada, egongo da ordu-tegia moldatzeko aukera".

KALEKO HIZKUNTZA

Artolak onartu du kalean euskara batuan baino gehiago, gehienok euskalkian egiten dugula berba, baina ez nahi bezain ondo:

DATUA

20
ORDUKOA

Mondragoeraz berba egiten ikasteko ikastaroa 20 ordukoa izango da. Urri bukaeran edo azaro hasieran hasiko dituzte eskolak, martitzenetan (18:00).

"Askotan gertatzen zaiguna da esaldi bat hasi, eta aditza euskalkian ezagutzen ez dugulako gaztelaniara pasatzen garela, edota aditz hori euskara batuan esaten dugula. Hor gabeziak ditugu, eta hori da ikastaro honen helburua, gure euskalkia ondo erabiltzen ikastea; izan ere, askotan hori izaten da euskaraz berba ez egiteko arrazoia, euskalkia menperatzen ez dugula, alegia".

Euskalkia da kaleko hizkuntza: "Gure artean komunikatzeko modu naturalena da, eta hor hanka-motz baldin bagabiltza errazena egiten dugu, gaztelaniara pasatzen gara".

GERTUKOIA ETA BEROA

Euskara batuarekin alderatuta, kalean erabiltzeko euskalkiak gertukoak dira, gertukoak eta beroak: "Alde horretatik, ikastaroa euskaraz dakienari zuzenduta dago. Baina ez bakarrik mondragoeraz berba egiten apur bat dakitenei, baita euskaldun

berriei ere; izan ere, euskaltegitik kalerako saltoa oso handia da, eta belarria egiten joateko oso ikastaro aproposa dela uste dugu. Duda barik, euskalkia ezagutzen duena askoz ere gehiago animatuko da eguneko jardunak euskaraz egitera, bere buruarengan konfiantza izango duelako".



**Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak**

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa

Tel.: 943 79 76 58

ARRASATE

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

**BASATI
TABERNA**

943 711768

UDALA > ZERBITZUAK

0 eta 17 urte artekoen aisialdirako guneak jarriko dituzte Zabalotegin

Udal Euskaltegia dagoen eraikinera eramango dute ludoteka eta gaztelekua ere han jarriko dute

Udalaren helburua da zerbitzuok martxan egotea maiatzerako

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Ume zein gazteen aisialdirako guneak Zabalotegin egokitzeko asmoa du Udalak. Proiektua oso aurreratuta dago eta azkeneko onarpena ematea besterik ez zaio falta.

Agurne Barruso alkateak azaldu duenez, 0 urtetik hasi eta 17 urtera arteko gazteak hartzen ditu aintzat proiektu horrek eta Zabalotegiko bi eraikinetan adinaren arabera hiru zerbitzu egokitzeko datza: "Alde batetik, txikienendako txiki-txokoa daukagu dagoeneko martxan, Zabalotegiko eskola zaharrenean, 0-4 urte artekoendako. Bestetik, gaur egun Udal Euskaltegiak erabiltzen duen eraikinean hiru adin tartetarako ekipamendua egokitztea da asmoa: ludoteka, 5-12 urte artekoendako; eta gaztelekua, bi atalekin, bata 12-15 urte artekoendako eta bestea, 15-17 urte artekoendako". Barrusok gehitu duenez: "Modu horretan, irtenbide integrala emango diogu ekipamendu aldetik 0 eta 17 urte arteko adin tarteari".

MAIATZERAKO MARTXAN

Zabalotegiko ekipamendu integrala maiatzerako martxan egotea nahi du Udalak. Baina asmoak gauzatzeko, lehenengo eta behin Udal Euskaltegiak dagoen eraikina laga beharko du eta



Leire Iruin eta Amaia Osa hezitzaileak umeekin, eguaztenean, Agorrosingo ludotekan.

GOIENKARIA

DATUA

3

ZERBITZU

Adinaren arabera hiru zerbitzu eman nahi dituzte: txiki-txokoa (0-4 urte) eta ludoteka (5-12 urte) martxan daude. Horiei gehituko zaie gaztelekua (12-15 eta 15-17).

ESANAK

"Irtenbide integrala emango diogu ekipamendu aldetik 0 urtetik hasi eta 17 urtera arteko adin tarteari"

Agurne Barruso > Alkatea

zaharberritzen diharduten Irizar jauregira lekualdatu. Horren harira, Barruso alkateak esan du Irizar jauregiko lanak -bigarren E-Planeko dirulaguntzarekin egiten dihardute lanak- martxa onean doazela eta gogora ekarri du obrak bukatzeko data ofiziala aurtengo abenduaren 10a dela. Eta gehitu du: "Marjina badugu. Lanak atzeratuko balira ere, demagun urtarril bukaeran jartzen garela, bada, uste dugu hortik maiatzerara arte badagoela denbora Udal Euskaltegiaren lekualdatzea egiteko eta hark lagatuko lekuan gazteendako zerbitzua kokatzeko". Gainera, azaldu du Udal Euskaltegiako eraikinak ez duela obra handirik behar zerbitzuok han jartzeko.

LUDOTEKA AGORROSINEN DAGO

Gaur egun Agorrosin Ekintza Gunean dago ludoteka, eta han-

dik kendu eta Udal Euskaltegiako eraikinera eramango du Udalak zerbitzu hori, gazteendako ekipamenduen arloan zerbitzu integrala emateko proiektuaren barruan.

Hori horrela, gela bat hutsik geratuko da Agorrosin Ekintza Gunean -lehenengo solairuan- eta oraindik ere emango dioten erabilpena erabakitzeke dagoen

arren, Barruso alkateak aurreratu du "gimnasioa handitzea" dela gaur egun Agorrosin dagoen eskari handiena.

LUDOTEKA JARDUNEN ESKU

Ludoteka zerbitzuari dagokionez, maiatzerara bitartean Agorrosin Ekintza Gunean jarraituko du, Zabalotegiko kokaleku berrira joan arte, eta dagoeneko ireki ditu ateak.

Astelehenean, urriaren 4an, hasi zen eta Jardun euskara elkarte arduratuko da zerbitzuaz. Hain justu ere, lehiaketara atera zuen Udalak zerbitzu hori abuztuan; hiru enpresa aurkeztu ziren eta irailean Jardun elkarteari esleitu zioten.

Ludoteka zerbitzua astelehenetik egubakoitzera egoten da zabalik, 17:00-20:00 ordutegian, eta bi hezitzaile egongo dira haren arduruan, Leire Iruin eta Amaia Osa. Hezitzaileok haurrendako -5 eta 12 urte arteko neska-mutikoak- ekintzak antolatzeaz arduratuko dira: eskulanak, jolasak, irteerak, jaialdiak... Zerbitzuaren helburua da haurrek jolas egitea eta ondo pasatzea, betiere, balioak transmitituz.

Agorrosingoarekin batera, Osintxun ere badu ludoteka zerbitzua Udalak. Hori ere lehiaketara atera zuten abuztuan eta irailean esleitu zuen Udalak; hain justu, Gema Hoyosi, urtebeterako, lau urtera arte luzatzeko aukerarekin.

LUDOTEKA

Ludotekarako izenematea zabalik dago

Ludoteka zerbitzua martxan dago astelehena ezker eta interesa duten gurasoek dagoeneko eman dezakete izena Agorrosin Ekintza Guneko bigarren solairuan. Urteko kuota 45 euro da. Zerbitzua astelehenetik egubakoitzera da, 17:00-20:00 ordutegian, eta neska-mutikoen eskola-egutegi bera izaten du.

Zerbitzua 5 urtetik hasi eta 12ra arteko gaztetxoendako da eta bi hezitzaile ardurapean egongo dira. Egiten dituzten ekintzak dira: eskulanak, jolasak, irteerak, jaialdiak... Helburua da haurrek jolas egitea eta ondo pasatzea, baina, betiere, balio batzuk transmitituta.

**TELEIXA
BILTEGIAK**

**Eraikuntza
materialak**

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

GOIERRI
Autogidarien Eskola



Gidabaimena euskaraz zein gazteleraz atera dezakezu
Informa zaitetz

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

Sugoi

**ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...**

Irizar pasealekua 2 behe
943 76 59 54 BERGARA

> JENDARTEA

Artatseko bertso afarirako txartelak salgai jarri dituzte

Urriaren 23an, zapatua, Artatse elkartean egingo duten urteroko bertso afarirako txartelak salgai jarri dituzte dagoeneko. Kortazar eta Arrano tabernetan eskura daitezke txartelak, 20 eurotan -16 euro ikasle eta langabezia daudenek.

21:00etan izango da afaria, eta parte hartuko dute Jon Maia eta Unai Iturriaga bertsolariak.

> IKASTAROA

'Wikipedia' eta 'Euskaltel' datorren astean KZgunean

Urrirako iragarri dituen ikastaroen artean, datorren astean hiru eskainiko ditu KZgunean, doan, ohi bezala. Hilaren 13an *Wikipedia* ezagutzeko ikastaroa egingo dute, 16:00-18:00 ordutegian. Hilaren 15ean, berriz, *Google itzulzailea eta Euskalterm* delako ikastaroa egiteko aukera egongo da 09:00-11:00 ordutegian eta 16:00-18:00 ordutegian, berriz, *Softonic*.

> IKASTAROA

'Emakumeak sarean' ikastarorako izenematea zabalik

Urritik abendura bitartean emango da, KZgunean. Proiektu horren bidez informazioaren eta komunikazioaren teknologiak emakumeengana zein emakume elkarre eta taldeetara gerturatu nahi dira. Hala, ikastaroan emango dira hainbat lantegi progresibo, emakume taldeendako bereziki diseinatuak. Izenematea da KZgunean edo www.kzguna.net helbidean.

JENDARTEA > FERIA

Martitzenean 09:00etan irekiko dute Elosuko ganadu feria

Aizkora eta motozerraren arteko erronka egongo da arratsaldean, aurtengo berrikuntza moduan

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Eguraldi ona egitea. Horixe da martitzenean Elosuko ganadu feriarenean 32. aldia borobila izateko faltako den bakarra. Gainera, antolatzaileek jarri dute, Elur Txiki elkarteak kideek, Bergarako eta Azkoitiko udalen laguntzarekin.

09:00etan irekiko dute azoka eta ikusteko asko egongo da. Iaz, proba moduan, aldatu egin zuten azokaren antolaketa, eta, konforme geratu zirenez, bada, aurten ere postu guztiak, jaki zein artisauro postuak, plazan jarriko dituzte. Eta ganadua, berriz, zelaietara eroango dute. Jaki postuei dagokienez, Elosuan batuko dira

gazta, ezti, ogia... eta baita belarukenduak, argizaria... eta lehengai naturalez egindako bestelako produktuak. Artisauak dagokienez, inguruko herrietakoak joango dira -gehiago ala gutxiago egu-

raldiaren arabera- eta animalien kasuan, berriz, behiak, astoak, zaldiak eta ardiak eroango dituzte baserriarrek. Bestalde, aurten ez da sariketarik egongo ganaduan.

Esandakoez gain, pilotalekuan egongo dira taberna, talo postua eta taulatu txikia. Eta bestelako salmenta postuak ere -jantzi, jostailu, bitxikeria...- egongo dira, urtero bezala, beheko zelaian.

ARRATSALDEAN ERRONKA

Arratsaldean ere egongo da zer ikusi Elosuan: 17:30ean idi probak egongo dira. Aizarnazabalgo Etxabek eta Elosuko Bentostek nor baino nor gehiago jardungo dute.

Idi proben ostean aurtengo berrikuntza gozatu ahal izango da: aizkoraren eta motozerraren arteko erronka: Zubizarreta eta

Agitek aizkoraz eta Juan -Washingtongo txapelduna- motozerraz -80 moztualdi- sei egur kana erdiko zeinek lehenago moztu lehiatuko dira.

URBANOAN IGOTZEKO DEIA

Elosura igotzeko autobusa antolatuko dute, azkeneko urteetan bezala. Lehenengo abiaturako da 09:30ean, San Martin plazatik, eta azkena jaitsiko da 15:00etan, Santutxutik. Bidaia bakoitzaren prezioa euro bat izango da.

Horren haritik, antolatzaileek, Elur Txiki elkarteak, dei egiten die herritarrei autobusa erabil dezaten auzoan auto pilaketarik gerta ez dadin. Autoei dagokienez, haiendako aparkalekuak egokitu dituzte santutxun eta auzoaren sarreran dagoen eskumako zelaian.

DATUA

6

EGUR MOZTU BEHARKO DITUZTE

Erronka: kana erdiko sei egur nork lehenago moztu; Zubizarreta eta Agitek aizkoraz eta Juan -Washingtongo txapelduna- motozerraz.



MONIKA BELASTEGI

Oinezkoendako bidea egokitu dute autobus geltoki parean

Ibargarako autobus geltoki nagusiaren parean oinezkoendako bidea egokitu du Udalak. Eta ibilgailuek abiadura murrizteko irtenuneak ere egin ditu errepidean. Egundako geltoki parean zebra-biderik ez egon arren -aurrerago dago-, herritar ugari gurutzatzen du handik. Hala, Udalak erabaki du zebra-bidea jartzea herritarren segurtasuna bermatzeko.

oharrak

ELKARTASUNA

> Urriaren 13an izango da hurrengo odol-ateratzea

Ohi bezala, Errege Seminarioan duten egoitzan izango da.

IKASTAROA

> Oraindik eman daitezke izena bi-dantza ikastaroan

Urriaren hasiko dira eskolak eta izango dira astelehenetan, 19:00-21:00 ordutegian, Miguel Altunan. Izena emateko edo informazio gehiagorako deitu 626 66 12 92 zenbakira (Mentxu).

ERRETIRATUAK

> San Joxepe elkartearen salgai dute Gabonetako Loteria

Tabernan eta elkartearen bulegoan dute salgai. Horrez gain, Internet, informatika eta Excel

ikastaroak ere egingo dituzte laster. Informazio gehiagorako, jo bulegora.

KINTADA

> 1968an jaiotakoek afaria egingo dute urriaren 30ean

Izenematea da urriaren 15a baino lehen -10 euro aurrerata-, Deportivo tabernan.

HEZKUNTZA

> Esperientzia Eskolan izena emateko epea zabalik dago

50 urtekoei zuzenduta dago. Eskolak martitzen, eguazten eta eguazten izango dira, 10:00-13:00 ordutegian, Miguel Altunan. Izenematea da Bizikasi zerbitzuan eta urteko matrikula da 275 euro -epeka ordaintzeko aukera dago-. Eskolak urriaren 19an hasiko dira.



IGARZA

Domingo Irala 5 • BERGARA
Tel.: 943 76 24 88



Urri osoan, 5, 10, 20 eta 30 euroko txartelak zozketatuko dira BEDELKAR txartelarekin egindako erosketen artean; guztira, 750 euro banatuko dira.

UDAZKENA heldu da

PIRAGUISMOA

Beti-Bustik emaitza ona Gipuzkoako txapelketan

Zarautzen egin zuten kayak surf txapelketan etxeko bost kide izan ziren

X.U. > BERGARA

Joan den asteburuan egin zuten Zarautzen Gipuzkoako kayak surf modalitatean txapelketa, eta, munduko lau txapeldun egon zirela kontuan hartuta, Beti-Bustikoak gustura itzuli ziren bertan egindako lanarekin.

Kadete mailan (kayak luzea) Beñat Lizarralde hirugarren sailkatu zen eta haren taldekide Aritz Gimbert bosgarren izan zen kategorian berean.

MENTXAKA, LEHENENGO

Gazte mailan Josu Mentxakak lan ederra egin zuen kayak luzearekin eta lehenengo postua lortu zuen. Baina Bergarako zapore gazi-gozoarekin bueltatu zen, saio hartan min hartu eta ezin izan zuelako kayak motzeko modalitatean esku hartu.

Beterano mailan Iñaki Gallastegi bigarren izan zen kayak motzarekin eta laugarren luzearekin. Eta infantil mailan Jokin Labaien lehena izan zen.

> MENDIKO BIZIKLETA Lokatzak balorazio positiboa egin du martxaren gainean

Joan den domekan Bergaran egin zuten mendiko bizikleta martxako balorazio positiboa egin dute Lokatzako kideek. 175 lagunek hartu zuten esku martxan, eta guztira 800 euro batu zituzten. Hala, diru hori Lokatza ziklismo eskolako gastuei aurre egiteko erabiliko dute.



Bergarako saskibaloitako jokalariek eta entrenatzaile taldea, denboraldi berriaren aurrean ateratako talde argazkian, Labegarrietan.

NEREA ZUBIETE

SASKIBALOIA > BERGARA KE

Urbina: "Oraindik ez dakigu zein den kategorian honetako maila"

David Urbinaren mutilek jokatuak bi partidua irabazi egin dituzte; asteburuan atsedena izango dute

XABIER URTZELAI > BERGARA

Jokatu dituzten partidua irabazita, baina ezagutzen ez duten kategorian egonda komeni dena baino konfiantza handiagoa har-

tu barik, David Urbinak taldeak orain arte egindako lana errepasatu du: "Berez kategoriaz igotzea da gure helburua, baina oraindik goiz da asmo hori ozen esateko. Bi partidua hauetan nahiko txukun jokatu dugu, baina oraindik ez dakigu zein den kategorian honetako benetako maila".

TALDE OSO BETERANOAK

Bergara Gipuzkoako bigarren mailan dabil lehian, eta orain arte jokalariek oso beteranoz osatutako

taldeak izan dituzte aurrean: "Joan den astean Baskoplastika taldean 40 urteren bueltan zebilen jokalariek bat baino gehiago zegoen kantxan. Eta lehenengo jardunaldian ere jokalariek batek baino gehiagok seme-alabak zituen harmailetan. Horrelako talde asko aurkituko ditugu kategorian honetan, baina baita jokalariek gazte osatutako taldeak ere".

Hala, Bergarako entrenatzaileak aurreikusten du beste bizpahiru jardunaldiren ostean kate-

goriaren benetako maila zein den neurtu ahal izango dutela.

ETXEKO LEHEN GARAIPENA

Joan den astean Elgoibarren joko motela bere egin zuen Bergarak, nahiz eta komeni ez, eta laugarren laurdenera arte etxekoek ez zuten joko onik erakutsi. Minutu erabakigarrietan 13-2ko partzialari esker lortu zuten partidua 64-53 irabaztea. Oraingo asteburuan, berriz, talde nagusiak atsedena izango du.

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Muniategi: "Lehenengo muturrekoa hartu dugu"

Portugaleteren kontra egindako akatsetatik ikasita joango dira Bergarakoak Gasteizera

X.U. > BERGARA

Joan den zapatuan, etxekoendako kategorian berri, Portugalete ez zuen Bergara baino gehiago dela erakutsi. Baina bizkaitarrek eraman zituzten puntuak, nahiz eta horretarako tarteka euren joko gogorra muturreraino eraman: "Horrelako kontrario bat baino gehiago izango dugu,

eta aste barruan komentatu dugu onena ikasgai ikastea izango dela. Izan ere, zapatuan hartu genuen ligako lehen muturrekoa", adierazi digu Josetxo Muniategi: "Lehen zatian ondo ibili ginen, baina bigarren negargarri, baita neu ere. Alde horretatik hainbat gauzatan hobetu egin beharko dugu. Esaterako, bigarren zatian sei gol sartzeko gauza baino ez ginen izan, eta datu oso txarra da hori. Gertatu zaigun sentazioa da bi puntu garrantzitsu batzeko aukerak ihes egin zigula".

Besteak beste, kanpoko jaurtiketetan hobetzea da erronka: "Mikel Plazaola nahiko txukun ibili zen arlo horretan, baina hura izan zen bakarra".

BIHAR GASTEIZERA

Bergarak Gasteizko El Pilar taldea izango du bihar (16:30) zain: "Ez da aparteko taldea, baina beste begira egon barik ondo daki-gu galdu ala irabazi, gure eskutandagoela dena".

JOXAN

ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

KAI

TABERNA

I. urteurrena

Gaur, urriaren 8an

19:30 **Azkaiter Pelox**

(BLUES, Bergara)

21:00 **Tobacco Road**

(BLUES, Gasteiz)

23:00 **Rafael & Rodrigo**

(SAMBA CAVAQUINHO, Brasil)

Etorri eta ondo pasatuko dugu elkarrekin!
Eskerrik asko urte honetan gurekin izateagatik,
Jose Ignacio

ANTZERKIA > KALEAN

Patxistein, Burubiltxo, Piztitxu eta Bikoitz mamuen beldurra kontatzen duen istorioa

Datorren egubakoitzean izango da antzerkia San Martin plazan

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin antolatu du Udalak antzezlanak

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Oihulari Klown taldeak umeendako kale antzerkia egingo du datorren egubakoitzean, hilak 15. Lana izango da *Mamu txikiak*, eta San Martin plazan egingo dute, 18:00etan.

Lanaren gaia da umeek mamuei dieten beldurra. Horretarako, antzezlanak rolak aldatuko ditu, eta, kasu honetan, mamuak dira umeen beldur direnak. Batez ere, 2 eta 6 urte bitarteko umeendako lana da.

PROTAGONISTA KLASIKOAK
Beldurrezko istorioetako lau klasiko dira protagonistak: Fran-



Antzezlaneko protagonistak.

kistein, buru bako gizona, emakume otsoa eta buru biko gizona. Kasu honetan, baina, Patxistein, Burubiltxo, Piztitxu eta Bikoitz izenekin.

Mikel Ibartzabalek diseinatu-tako maskarak erabiliko dituzte antzerkian, eta ez Oihulari Klown taldean hain ezagunak diren sudur gorriak.

VIRGINIA IMAZ DA ZUZENDARIA
Antzezlaneko zuzendaria Virginia Imaz da eta protagonistak, ostera: Jose Carmelo Muñoz, Anduriña Zurututza, Txefo Rodriguez, Maider Galartza eta Andoni Egaña. 60 minutu irauten du antzezlanak.

Oihulari Klown taldearen seigarren kale ikuskizuna da *Mamu txikiak*. Oraingoan, baina, eurentzat ohikoa ez den publikoarendako: umeendako.

GERO ETA UME GEHIAGO
Ume txikiendako lan gutxi egingo dira egun; eta, Imazen ustez, gero eta ume txiki gehiago joaten dira antzerkira. Orain arte egin dituzten emanaldietan erantzun ona izan dute, eta diote umeak eurak direla mamuak izutze-
ra hurbiltzen direnak.

JENDARTEA

Argazki ikastaroko izenematea zabalik

Urriaren 20ra arte eman daiteke izena ikastaroetan; plazak mugatuak dira

A.E. > BERGARA

Udalak antolatu dituen argazki ikastaroetarako izenematea zabalik dago. Izena ematera kultura etxera joan beharko da, edo 943 77 91 59 telefono zenbakira deitu.

PHOTOSHOP IKASTAROA

Hastapen mailako eskolako azaroaren 2tik 11ra bitartean izango dira -14 ordu-. Prezioa 40 euro da; eta 30 euro ikasle, langabe eta erretiratuek. Sakontze mailaren kasuan, azaroaren 15etik 25era izango da -16 ordu-. Prezio bera izango du ikastaroak.

OINARRIZKO ARGAZKILARITZA

Ikastaroa azaroaren 2tik 24ra izango da -22 ordu-. Prezioa 50 euro da; 30 euro ikasle, langabe eta erretiratuendako.

MUSIKA > KONTZERTUA

Kai tabernaren urteurren ospakizuna izango da gaur

Kontzertuak eskainiko dituzte Azkaiter Pelox, Tobacco Road eta Rafael & Rodrigok

A.E. > BERGARA

Kai tabernak urtebete bete du. Hori dela eta, ospakizun kontzertua egingo dute gaur tabernan bertan urteurrena ospatzeko. Hiru talde igoko dira taula gainera: Azkaiter Pelox, Tobacco Road eta Rafael & Rodrigo. Kontzertua 19:30ean hasiko da.

Azkaiter Pelox aski ezaguna da herrian. Blues estiloko musika egiten du bergararrak, eta disko berria aurkeztuko du.

SOKO HAMARKADAKO MUSIKA

Tobacco Road Gasteizko taldeak rock ukitudun bluesa eskainiko du gaur. Gasteiztarren musikak 80ko hamarkadako musika estiloa dauka. Azkenik, Rafael & Rodrigok Brasilgo sanba tradizionala eskainiko dute. Cavaquinho instrumentua -lau sokako gitarra- joko dute. Modu aparta urteurrena ospatzeko!

MUSIKA > KONTZERTUA

Tronpeta eta organo doinuak bihar San Pedron

Kontzertu guztiak San Pedro parrokian izango dira, zapatuan, 20:00etan

A.E. > BERGARA

Nazioarteko organo erromantikokoaren XI. kontzertu zikloko bigarren emanaldia bihar eskainiko dute, zapatua. Luis Gonzalez tronpeta-jotzailea eta David Malet organo-jotzailea izango dira San Pedro parrokian. Musika erromantikoa gustuko dutenendako ikuskizun paregabea izango da. Kontzertua 20:00etan hasiko da.

HURRENGO KONTZERTUAK

Datorren zapatuan, hilak 16, Josep Maria Manresa biolin-jotzailearen eta Jose Maria Mas organo-jotzailearen kontzertua izango da eta hilaren 23an Aitor Oleak joko du organoa.

Aurtengo edizioa kolokan egon den arren -San Pedro parrokiako lanengatik-, azkenean, munduko organista onenak izango dira herrian.

> ZINEA

James Cameronen 'Avatar' filma bihar eta etzi Zabalotegin

Avatar lan entzutetsua ikusteko aukera egongo da aste bukaeran herrian. Bihar, zapatua, 19:30ean emango dute filma Zabalotegin; domekan ere, ordu eta leku berean. 155 minutuko filma da, 13 urtetik gorakoendako.

Bestalde, gaztetxoei zuzenduta, *Alvin y las ardillas 2* filma eskainiko dute bihar eta etzi 17:00etan. 88 minutuko lana da.

Gaztetxeko zineklubean ere gertu dute urriko eskaintza: domekan, hilaren 10ean, *La estrategia del caracol* filma eskainiko dute, 18:00etan.

Mujika
gozotegia

Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA**
943 76 10 34

**BEHEKO
TABERNA**

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

**ARANE
KRISTALDEGIA**

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

EDEL
TAPIZ DENDA

Etterako artikuluetan aukerarik haundiena

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,
koltzak, edredoak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

JAIK > BIXAMON EGUNA

Askotariko mozorroak kalean, urteko egunik koloretsuenean

54 taldek parte hartu zuten Bixamon eguneko mozorro erakusketan



Aspaldiko motor gidariak.

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Mozorro egunarekin bukatu zituzten Errosaio jaiak astelehenean Oñatin. Jai giroa eta kolorea izan ziren nagusi egun osoan herriko kaleetan. Mexikarrak, entzierroa korritzeko gertu zeudenak, dragoiak, marine-lak, pilotuak... guztiak irten ziren kalera euren mozorroa originalena eta landuena zela erakusteko.

DIRUA TALDE GUZTIENAKO

Kultura batzordeak antolatutako mozorro erakusketan 54 taldek eman zuten izena: 23 talde

14 urtetik beherakoak ziren eta gainerakoak helduen mailakoak. Guztiak dirua jaso zuten trukean: gazteen mailako taldeek hiru euro jaso zituzten pertsonako eta helduen mailakoek, lau euro.

BESTE EKITALDI BATZUK

Baina Errosaio Bixamon egunean beste protagonista batzuk ere egon ziren: sokamuturrak plaza ingurua girotu zuen goiz eta arratsalde. Bestalde, Klowntukada taldekoek dantza eta perkusio ikuskizuna egin zuten. Gauean Egan taldeak egin zuen erromeria jaiak bukatzeko.



Herritar talde bat, zezen eta guzti, entzierroa korritzeko gertu.



Kontzertu berezia eskaini zuten San Migel Txikiko plazatzon.



Mariachi taldea emanaldia egiten plazan.



Txinatik etorritako dragoia txosnagunearen ingurutik pasatzen.



Dotore irten zen argazkiko neska koadrila.



Klowntukada taldekoak ikuskizuna egiten herritarren begiradapean.



Marinelak Kale Zaharreen gora.



Pilotuak hegazkina martxan jarri guran.

ARGAZKIAK: OIHANA ELORTZA ETA IRATI GOITIA

oharrak

DEIALDIA

> **Diapositiba emanaldia Txirrin-kaldeen eskutik**

Al Himalaya en bicicleta delako diapositiba emanaldia egingo dute Aurora eta Ruben gasteiztarrek urriaren 14an, 19:00etan, kultura etxean. Bizikletaz egindako bidaiaren kronika egingo dute.

DEIALDIA

> **1970ean jaiotakoek kintada egingo dute**

Bazkaria egingo dute Etxe Aundi jatetxean urriaren 16an. Interesatuek 30 euro sartu behar dituzte lehenbailehen Euskadiko Kutxako 3035 0005 34 0051042653 kontu zenbakian.

DEIALDIA

> **Odol-ateratzea egingo dute egubakoitzean**

Odol emailen taldekoak Txantxiku ikastolako geletan egingo dira gaur, egubakoitza,

18:00etatik 20:00etara. Hurrengo odol-ateratzea azaroaren 12an egingo dute.

KIROLA

> **1999an jaiotakoendako eskubaloien entrenamenduak**

11 urte izan eta eskubaloian jokatu gura duten neska-mutikoendako entrenamenduak egingo dituzte hilaren 14tik aurrera. Eguenero bilduko dira kiroldegian, 16:30etik 18:30era.

BIRZIKLAPENA

> **Etxeko olio birritan batuko dute urrian**

Etxean batutako olio birziklatzeko furgoneta birritan egongo da plazako aparkalekuan; hain justu ere, bihar eta hilaren 23an, 09:00etatik 13:00etara. Besteak beste, etxeko batutako olio erabilia eta beste hondakin arriskutsu batzuk batuko dituzte egun horietan (pilak, fluoreszenteak, erradiografiak...).

INFORMATIKA

> **Askotariko ikastaroak egingo dituzte KZgunean**

KZguneak teknologia berriei buruzko askotariko ikastaroak eskainiko ditu urrian, doan. Besteak beste, *Youtube*, *Ebay*, *Wikipedia*, *Picnik* eta *Google tresnak* delako ikastaroak. Interesatuek 943 08 16 34 telefonora dei dezakete edo tutor.onati@kzgunea.net helbidera mezua idatzi. Ibon Elgarrresta da Oñatiko tutorea.



Lorea Igartua eta Nahia Iparragirre, Lorearen nahia ikuskizunaren une batean.

JABIER EROSTARBE

KULTURA > DANTZA IKUSKIZUNA

Lorea Igartua oñatiarrak dantzaldia egingo du etzi

Nahia Iparragirrerekin batera emanaldia egingo du plazan, eta ondoren Verdini taldeak 'Dantzaria naiz' ikuskizuna egingo du leku berean

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Lorea Igartua oñatiarrak dantza saioa egingo du etzi, domeka, Nahia Iparragirrerekin batera. Biek ala biek hamar minutuko saioa egingo dute Herriko Plazan, 19:30ean –eguraldi txarra egiten badu, emanaldia Santa Ana antzokian egingo dute–. Igartua eta Iparragirre oholta gainera igoko dira Jose Miguel Dorronsoro gitarristarekin eta Arantza Molina biolinistarekin. "Emanaldi polita izango da. Loreak dantza mugimenduak egingo ditu gurpil-aulkitik. Haren ondoan egongo da Nahia Iparragirre", esan digu Gizarte Zerbitzueta zinegotzi Rosarito Galdosek.

Lorea Igartua eta Nahia Iparragirre duela hiru urte ezagutu zuten elkar, gorren hizkuntza lantzeko ikastaro baten. Orduan

erabaki zuten elkarrekin lan egitea: Loreak gorren hizkuntza lantzen irakatsi zion Nahiari, eta hark dantza egiten Loreari. "Lorea beti izan da dantzazalea, eta Nahiaren laguntzarekin gurpil-aulkian dantza egiten ikasi du. Harentzat oso inportantea da ikustea garun-paralisia izan

ESANAK

"Lorea beti izan da dantzazalea, eta Nahiaren laguntzarekin dantza egiten ikasi du gurpil-aulkian"

Arantza Urtzelai > Ama

arregis gis tuki dko dit gungak egih
diznakite h'ce a' residig Ar Antza
tza z'etzi d'allo Lorea amak.

VERDINI TALDEA

Lorea Igartua eta Nahia Iparragirre egingo duten hamar minutuko saioaren ondoren, Verdini dantza taldeak ikuskizuna egingo du. Hain justu ere, *Dantzaria naiz* emanaldia egingo dute. Hau da, euren azken lana erakutsiko dute lehenengoz Debagoienean. *Dantzaria naiz* lana Donostiako Victoria Eugenia estreinatu zuten hilaren 2an. Dantzaldiko protagonistak down sindromea duten gazteak dira.

HELBURUA

Verdini Dantza taldea 1992an sortu zen Isabel Verdinari (Donostia, 1971) lotuta, behar bereziak dituzten pertsonen gaitasun artistikoa trebatu eta garatzeko lanaren inguruan dagoen hutsuneari aurre egiteko. Orduetik hona, behar bereziak dituzten pertsonen etengabe aritu dira lanean.

UDALA > ZERBITZUAK

Oñati eta Zumarraga arteko autobus zerbitzu berriak martxan daude dagoeneko

Urriaren 1ean jarri zuten abian ordutegia: astelehenetik domekara 30 zerbitzu gehiago daude aurrerantzean

Pesak kaleratutako egutegian akats batzuk zeuden: zapatuetan 07:25ean, 10:25ean, 13:25ean, 16:25ean eta 19:25ean eta domeketan 10:25ean, 13:25ean, 16:25ean eta 19:25ean ez da autobusik egongo. Hortaz, egutegia etxean duten erabiltzaileei zuzendutakoa hartzeko aholkatzen die Pesak.

M.B. > OÑATI

Arrasate-Oñati-Zumarraga lineako autobus berriak martxan daude dagoeneko. Urriaren 1a ezker, Oñati eta Zumarraga lotzeko 30 autobus gehiago dituzte erabiltzaileek astelehenetik domekara.

Pesako ordutegien zerrendak turismo bulegoan eta udal-etxean daude herritarren eskuera, eta zuzenduta; izan ere, zerbitzua martxan jarri aurretik

HELBURUAK

Lourdes Idoiaga alkateak, Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako foru diputatu Arantza Tapiak eta Pesako arduradun Alejandro Nayak aurkeztu zituzten zerbitzu berriak Oñatin irailaren 16an. Esan zuten autobus gehiago jartzearen helburua dela Debagoiena eta Goierri artean dauden loturak hobetzea eta bidaien maiztasuna handitzea.

> ERAKUSKETA

Ageriko pintura lehiaketako margolanak ikusgai daude kultura etxean hilaren 12ra arte

Ageriko VIII. pintura lehiaketan parte hartu zuten 21 margolanak ikusgai daude kultura etxeko erakusketa gelan hilaren 12ra arte, astelehenetik domekara, 18:00etatik 20:00etara. Bestalde, erakusketa berean ikus daitezke Luis Laskurainen pintura ikastaroan jardun dutenen margolanak.

> DEIALDIA

Azaroaren 3ra arte aurkez daitezke bake epailearen ordezkoko izateko eskaerak udal bulegoetan

Bake epailearen ordezkoko izan gura dutenek azaroaren 3ra arte aurkez ditzakete eskaerak udal bulegoetan. Hautaketa prozesuan baloratuko dituzte hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko agiria, elkarrizketa, idatzizko proba, ikasketak eta langabezian egotea. Ordezkoa lau urtetarako aukeratuko dute.

> ZERBITZUA

Oñargik bulegoa lekuz aldatuko du: hilaren 13tik aurrera Bidebarrieta kalean emango du zerbitzua

Oñargik bulegoa lekuz aldatuko du urriaren 13tik aurrera. Udal-etxetik Bidebarrieta kaleko 24ra eroango dute, Argentinako elkartasun taldeak materiala batzen duen lokalaren ondora, eta arreta zerbitzua emango dute astelehenetik egubakoitzera. Telefono zenbakia berbera izango da: 943 78 07 08.



Sukalde eta bainuak
Santa Marina 3 • 943 71 62 81

ZELAIA
ONATI
www.zelaia.net

40
urte
elkarrekin
1970-2010

LORTU
2010eko
EROSKETA
DEBALDE*



Altzariak
Euskadi Etorbidea 3 • 943 78 36 99

* 1.000 eurotik gorako erosketa bakoitzarekin hiru zenbakidun txartel bat eskuratuko duzu. Horieta baten azken hiru zenbakiek "El niño" zozketako saritutakoarekin bat badatoz, 2010ean egindako zure erosketa debalde lortuko duzu!

ENPLEGU PLANA > LANPOSTUAK

Beste lau peoi hartuko ditu Udalak eta izenematea zabalik dago

Enpresaritzako ikasle batek merkataritzaren gaineko azterketa egingo du

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Mantentze-lanak egingo dituzten beste lau peoi hartuko ditu Udalak udazken-negu sasoirako. Martitzenean argitaratu zuen iragarkia www.lanbide.net web atarian eta bertan eman behar dute izena interesatuek hilaren 22a baino lehen. Urriko azken astean elkarrizketak egingo dizkiete izena emandakoei eta hautatutako laurak azaroaren 2an hasiko dira lanean.

Izena emateko bete behar diren baldintzak honakoak dira: aretxabaletarra izatea; langabean egotea, horregatik ordain-saririk jaso gabe; edo sarrerak bermatzeko errenta jasotzea.

Martxoan onartu eta abian jarritako Enplegu Planaren barruan daude astean ateratako lau postu horiek. Aurretik, ekainean, beste sei langile hartu zituzten: hiru lagun herri inguruak garbitu eta berritzeko eta

beste hiru gune naturalak babestu eta mantentzeko; abendua arte jardungo dute lanean horiek. Eta irail hasieran beste hiru langile hasi ziren lanean, sei hilabeterako: artxibo teknikaria; liburutegiko laguntzaila; eta bide eta bidexken inbentarioa egiteko teknikaria. Gainera, Enplegu Plan hori bideratu eta herriko beharrak identifikatzeko teknikaria dago lanean maitatza ezker.

MERKATARITZAREN DIAGNOSIA

Bestalde, herriko merkataritza eta turismoaren diagnostia egingo duen ikasle batek jardungo du lanean, Mondragon Unibertsitateko Enpresaritza Fakultateak eta Udalak egindako hitzarmen bati esker. Ikasle hori laugarren mailan dagoen aretxabaletarra da, eta ikasgela bukaerako proiektua izango da herrian egingo duen azterketa lan hori.

Proiektuaren helburua da Aretxabaletako merkataritza eta turismoaren inguruko baliabideen azterketa egitea, herriko errealitatearen diagnostia irudikatzen eman beharreko pausoen inguruko pistak emango ditu eta oinarritzko dokumentua izango da ondoren diseinatu beharko den ekintza planaren nondik norakoetarako.

Astean hasi da lanean ikasle hori eta lehenengo lau hilabeteotan egun erdiko lan jarduna izango du; otsailetik aurrera, ostera, egun osoz egingo du lan beste lau hilabetez.

MENDIA

Argazki lehiaketa deitu du Murruxok

Datorren urteko egutegia egiteko da, eta gero bazkideen artean banatu

Azken urteotan egin ohi duen legez, datorren urteko egutegia egiteko argazki lehiaketa jarri du abian Murruxoko Mendizale Elkarteak. Gaia librea da eta gura beste argazki aurkez daitezke -CD baten grabatuta-. Argazki bakoitzaren azalpena eman behar da, eta lanarekin batera egilearen datuak dituen kartazala aurkeztu.

Lanak aurkezteko azken eguna urriaren 19a da, martitzena. Murruxok Durana kalean duen egoitzara eroan behar dira -martitzenetan, 19:00-20:00- edo bestela Aretxabaletako 34. posta-kutxara bidali. Saria 100 euro da, eta argazki hori 2010eko Murruxokoko egutegian agertzea.

ERRETIRATUAK > LEHIAKETA

Antzinako kantu eta narrazioen lehiaketa deitu du Basotxo erretiratuen elkarteak

Gurasoengandik jasotakoak izan behar dute; azaroaren 17a da aurkezteko azken eguna

Kantu lehiaketa iaz egin zuten lehenengoz eta 45 abesti grabatu zituzten orduan

M.A. > ARETXABALETA

Basotxo erretiratuen elkarteak antzinako kantuen eta narrazioen lehiaketa jarri du abian eta lanak aurkezteko epea azaroaren 17ra bitartean dago zabalik. Iaz egin zuten lehenengoz kantu lehiaketa eta 45 grabatu zituzten orduan. Aurten, narrazioetara zabaldu dute lehiaketa hori.

Ekimenak hainbat helburu ditu, hala nola Basotxoko bazkideei protagonista izateko aukera ematea; leku eta giza talde ezberdinetako kultura espresioak mahai gainean jartzea; nagusi guztiak dituztela intereseko altxorak erakustea; eta altxor horiek jasota uztea.

ESTILOA ETA GAIA, LIBREAK

Basotxoko bazkide bakoitzak gura beste lan aurkez ditzake. Hori bai, gurasoengandik edo aitaita-amamengandik ikasitakoak izan beharko dute guztiak -aurreko belaunaldikoengandik jasotako-. Estiloak eta gaiak ez dute garrantzirik, ezta hizkuntzak ere,



Iazko kantu txapelketako irabazleak: Maria Gallastegi, Markeliñe Mendieta eta Emilia Murillo.

M.A.

gurasoek erakutsitako modua errespetatuko da. Bai kantuak, bai narrazioak grabatu egingo dituzte antolatzaileek eta idatziz ere aurkeztu beharko dira lanak.

ADITUAK ETA EPAIMAHAI HERRIKOIA
Bi epaimahai osatuko dituzte: batetik, aditu taldea egongo da, bai musikan adituak, bai herri kulturagintzan; eta bestetik, lehia-

ketan parte hartutako guztiak osatuko duten epaimahai herrikoia. Adituek egindako txostena jasoko du epaimahai herriko horrek eta azken erabakia berea izango da. Hori bai, guztiak hartuko dituzte kontuan honakoak: lanaren antzintasuna; ez izatea oso ezaguna edo galtzeko zorian egotea; herriko arazo, kezka eta antzeko kontuen berri ematea; eta orijinaltasuna eta estilo dotorea izatea.

Hona hemen irabazleek jasoko dituzten sariak -sei parte-hartzaile baino gutxiago aurkeztuz gero erdia jasoko dute-: lehenengo saria, 200 euro; bigarrena, 100 euro; eta hirugarrena, 50 euro. Parte-hartzaile guztiak, gainera, diploma jasoko dute.

IKASTAROA

Memoria lantzeko eskolak erretiratuendako

Memoria lantzeko ikastaroa jarri gura du abian Basotxo erretiratuen elkarteak. Astean behin -bi ordu- emango dituzte eskolak hainbat hilabeteetan eta helburua da: trebetasunak ez galtzea eta indartzea; adimena bizkortzea; memoria lantzea...

Eskola horiek NIBE elkarteak emango dituzte -Nagusi Izanez Bizi Elkarte- eta bakoitzaren beharrak aztertu ondoren taldeak osatuko dituzte lanean hasteko. Interesa duten bazkideendako batzarra egingo dute hilaren 13an, eguaztena (17:00). Ikastaroaren helburuak eta nondik norakoak azaldu eta zalantzak argituko dituzte. Izenemate epea ere orduantxe zabalduko dute, eta urriaren 21ean itxi.

> KONTZERTUA

Hash taldeak hard rock doinuak dakartza Arkupera

Portugaleteko Hash taldearen kontzertua dago gaur Arkupen (22:00) -sarrera, 4 euro-. 1999an sortu eta bi urtean bertsioak jotzen jardun zuen taldeak diskoa kaleratu arte. Gaur *Have a sweet hell* izeneko bigarren albumeko abestiak ekarriko ditugurera: rock klasikoko erritmoak, afroamerikar musikara jotzen duten abestiak, country-rock doinuak, 70eko hamarkadako hard rock doinuak eta rhythm-and-blues ukituko hainbat abesti.

> IKUSKIZUNA

Malas Compañías taldearen 'Ukelele jauna' etzi

Zirkua eta umore ona bateratzen dituen *Ukelele jauna* antzezlan eskainiko du Malas Compañías taldeak domekan Arkupen (17:00); sarrera 3 euro da.

2007an sortu zuten ikuskizuna eta familia giroan gozatzeko da. Zirkuko artisten trebetasunen berri emango du Ukelele jaunak, umore zorrotza lagun duela: malabarismoak, monoziklo erraldoia, jolasak, akrobazia arrisksuak...

KULTURA > ARKUPE

Ama-Lurrek jarraituko du Arkupen

Ba! mugimenduak gura zuen lehiaketa deitzea, eta "alkatearen akats teknikoagatik" ezin izan dela dio

Arkupe ezin kudeatu arren, herriko kultura dinamizatzeko aukera badutela uste du alkateak

MIRARI ALTUBE > ARETXABAETA

Arkupe kultura etxea kudeatzen jarraituko du Portugaleteko Ama-Lur enpresak, azken bi urteotan legez. Ba! herritik sortutako kultura mugimenduak eskatu zion Udalari kontratua eten eta berriro ateratzeko lehiaketara zerbitzu hori. Eskaerarekin bat etorri eta asmo hori zuen Udalak, baina horretarako 90 eguneko aurrerapenez jakinarazi behar zion Ama-Lurri kontratua eteteke asmoa. Hala egin ez duenez, zuzenean berrituta geratu da kontratua eta beste urtebetez kudeatuko du Ama-Lurrek.

ULERTEZINA

Ba! aretxabaletarren kultur mugimendua azken hilabeteotan sortu arren, bertako kideak denbora luzean dabilta Arkupe "aretxabaletarrengandik aretxabaletarrengana" kudeatzeko eskatuz: "Egitura sendo bat behar da kultura astinduko badugu herri honetan, eta Arkupen horretarako aukera ematen digu", dio Beñat Zamalloak, Ba! mugimenduko koordinatzaileak. Bilera asko egin dituzte Inaxio Garro alkatearekin eta herriko alderdi guztiekin egoten ere saiatu dira asmoen berri emateko.



Herriko Plazan dagoen Arkupe kultura etxea.

M.A.

Hori horrela, ez dute ulertzekoa lehiaketa eta oinarriak lantzen ibilita zelan pasatu zaien udal ordezkariak 90 eguneko epe hori: "Akats tekniko horregatik, betiere Udalaren arbera, bertan behera utzi dute lehiaketa, enpresak neurriak hartuko dituela adierazi omen diolako", dio Zamalloak; eta gaine-

ratu du: "Bi urteotan behin eta berriz Udalari Arkupe herritarrengandik herritarrengana kudeatzeko aukera eskatu ostean, eta inoiz baino gertuago zegoela uste genuenean, bi urte hauek moduan Inaxio Garro alkatearen baietak ezetz izan dira". Horren gaineko hausnarketa egingo du egunotan Ba! mugimen-

duak, eta herriko elkarte eta erakundeekin babesa eskatu.

HERRIKO KULTURA DINAMIZATU

Alkateak, berriz, jakinarazi du uztaileko lehiaketaren zirriborroa eginda zutela eta kontratua eteteke jakinarazpenaren epea 30 eguneko zela uste zutela, "beste kontratu batzuetan moduan". Epea kanpo zeudela jakinda Ama-Lur enpresako arduradunekin bilera egin zutela dio, "Udalaren nahia lizitaziora ateratzea zela jakinarazteko". Ama-Lurrek orain arteko jardunaren balorazioa egin du egunotan eta alkateari jakinarazi dio herritarrek gustura daudela kultura etxearen kudeaketarekin eta ez dutela ikusten arrazoirik beste talde pribatu baten eskuetan uzteko kudeaketa hori.

Ba! mugimenduko ordezkariak bilera egin du Garro lehiaketarik ez dela egongo argitzeko: "Saiatu naiz ikusarazten kontu bat dela Arkupe eta beste bat herriko kultura. Eta ildo horretatik iaz batzorde bat osatu zela herriko kultura dinamizatzeko", dio. "Gainera, batzorde horretan Arkupe kultura etxearen jardunerako lineak markatuko liriteke".

MERKATARITZA > ARETXARTE

300 euroko zozketa Aretxarte elkarteko dendetan gastatzeko

Iraileko zozketako irabazlea oraindik ez da agertu; Erriberrin bi gau pasatzea da saria

M.A. > ARETXABAETA

Aretxarte merkatarien elkarteak hilabete guztietan egiten ditu zozketak, martxoan ezker. Urriko txartelak banatzen dabilta orain eta 300 euro zozketatuko ditu hil bukaeran, elkarte barruan sartuta dauden komertzioetan gastatzeko.

LA JOYOSA HOTELEAN BI GAU

Iraileko sariduna oraindik ez da agertu, nahiz eta sari bikaina izan: Erriberriko La Joyosa hotelean (Nafarroa) bi lagunek bi gau pasatzeko aukera. Hona hemen saritutako txartel zenbakia: 37.572, Leintz mertzeria-dendan

banatua -irabazlea agertzeko azken eguna, urriak 15-. Datorren egubakoitzerako agertzen ez bada, ordezkari zenbakiduna izango da sariduna: 31.544, Aitzorrotz Etxetresnak dendan banatua -epea, urriak 22-; eta bigarren ordezkari zenbakia: 39.161, Imanol harategian banatua -epea, urriak 29-.


Bestalde, Gabonetan saskia zozketatuko dute Aretxarteko kideak. Orain arte egindako zozketa batzuetan ez da agertu opariaren jabea -abuztuan zozketatutako UDAko bazkide txartela, esaterako-, eta sari horiek ere Gabonetako saski horretan sartuko dituzte.

> ELKARTASUNA

Odol-ateratzeak egingo dituzte Arabako odol bankuko kideek gurean hilaren 11n, 18an eta 29an

Datorren astelehenean, hilak 11, Arabako odol bankuko ordezkariak izango dira osasun etxean odola jasotzen (16:15-20:00). Udazkeneko odol-ateratzeak egingo dituzte, eta udaberriaren izandako arrakasta lortu gurako lukete; izan ere, maiatza eta ekaina bitartean 137 aretxabaletarrek eman zuten odola, horietatik lauk lehenengoz.

Urriaren beste bi egunetan ere etorriko dira gurera: hilaren 18an, astelehena; eta 29an, egubakoitza.



LANGILE ETA LANGABETUENTZAT PRESTAKUNTZA

Euskal herriko lanbide kualifikazioen sistemari lotzen zaion katalogo modularra.



LANGILEEI ZUZENDUAK

| Ikastaroak | Orduak | Aurreikusitako datak |
|--|--------|----------------------|
| Fabrikazio elektromekanikoa | | |
| Planoen interpretatzea | 50 | 2010 • Urria |
| Automatismo pneumatiko eta elektroneumatikoak | 40 | 2010 • Azaroa |
| Automatismo hidraulikoak | 36 | 2011 • Otsaila |
| Automatismo elektriko kableatuak | 45 | 2011 • Urtarrila |
| Torno konbentzionaleko mekanizatua | 80 | 2010 • Azaroa |
| Fresatzeko makina konbentzionaleko mekanizatua | 80 | 2011 • Urtarrila |
| CNC tornuaren prestaketa eta programazioa | 40 | 2011 • Otsaila |
| CNC tornuaren mekanizazioa | 50 | 2011 • Martxo |
| Soldadura eta galdaragintza | | |
| Elektrodo estali bidezko angeluko soldadura | 80 | 2010 • Urria |
| Elektrodo estali bidezko topekako soldadura | 80 | 2010 • Azaroa |
| Elektrodo estali bidezko beste posizio batzuetako soldadura | 80 | 2011 • Urtarrila |
| Posizio horizontaleko MIG / MAG soldadura | 50 | 2011 • Otsaila |
| Beste posizio batzuetako MIG / MAG soldadura | 50 | 2011 • Otsaila |
| Posizio horizontaleko TIG soldadura | 50 | 2011 • Martxo |
| Beste posizio batzuetako TIG soldadura | 50 | 2011 • Maiatza |
| Soldadurako beste prozedura batzuk | 35 | 2011 • Martxo |
| KUALIFIKAZIO SISTEMATIK KANPO: | | |
| Ibilgailuen elektromekanika | | |
| Ibilgailuen aire egokitua. Mantenimendua, egiaztatzea eta konpontzea | 21 | 2010 • Azaroa |
| Ibilgailuen eskema elektrikoaren interpretatzea. Osziloskopien erabilpena eta seinaleen interpretatzea | 39 | 2011 • Martxo |

LANGABETUEI ZUZENDUAK

| | | |
|---|-----|-----------------|
| Txirbil harroketa konbentzional bidezko mekanizatua | 445 | Azaroa - Ekaina |
| Txirbil harroketa mekanizatua CNC bidez | 430 | Azaroa - Ekaina |
| Geriatzia laguntzarako zaintzak | 360 | Iraila - Martxo |
| Mantenimendu lanak ibilgailuetan | 350 | Azaroa - Martxo |
| Giro naturaleko soldadura | 455 | Martxo - Ekaina |

ETXEBARRI AUZOAN, Z/G / 22 Pk.
20550 ARETXABAETA (GIPUZKOA)
WWW.IARETXABAETA.COM
IA@IARETXABAETA.COM
T. 943 79 79 00 / 943 79 79 43
F. 943 77 09 55



heziketa
formación profesional



ZAHARREN EGOITZA > EPAIKETA

Urrutiaren defentsak dio zorrak egoitzaren egoerak eragin dituela

Zaharren egoitzako administratzaile ohiak Patronatua salatu du, kargugabetzea desegoki ikusten duelako; martitzenean izan zen epaiketa

MIRIAN BITERI > EIBAR

Epaiaketa luzea izan zen martitzen goizean, herriko Mesedeetako Amaren egoitzaren auziaren harira, Eibarren egindakoa. Ekainean Aitor Urrutia administratzailea kargugabetu zuen egoitzako Patronatuak. Erabakia bidezkoztat jo ez duelako, Urrutiak horren kontra salaketa jarri zuen, eta asteen egin zen epaiketa.

Patronatuaren abokatuaren hitzekin hasi zen epaiketa. Epaiaren aurrean berretsi zuen Urrutiak ez dituela Patronatuko kideak informatu egoitzaren benetako egoeraren gainean; gaur egun, 357.130,54 euroko zorrak ditu egoitzak. Horren harira, nabarmendu zuen fakturak ordaindu ahal izateko Diputazioak behin eta berriro eskatu-

tako 2006tik 2009ra bitarteko auditoriak ez zituela aurkeztu.

Horrez gain, gogorarazi zuen zerbitzu, azpiegitura eta pertsonalaren gaineko katalogoak ez zituela gaurkotu eta, hortaz, Diputazioak ez zituela 189.000 euro ordaindu. Patronatuari jakinarazi barik eta inoren baimena izan barik, hainbat akzio saldu zituela ere salatu zuen abokatuak.

"ESKU ARTETIK IHES EGIN"

Hori guztiari dela-eta, Patronatuak kargutik kentzeko erabakia bidezkoa zela defendatu zuen, "arduragabekeria larria" izan dela-ko eta horrek "kalte larriak" eragin dituelako. Gogorarazi zuen, azkenik, aurten maiatzean egingako Patronatuaren batzordean, Urrutiak onartu zuela arazoak "esku artetik ihes egin" ziola.

GASTU ETA SARRERAK

Jarraian, Aitor Urrutiaren defentsak hartu zuen hitza. Aipatu zuen egoitzaren jabea Mesedeetako Amaren fundazio pribatua dela; hortaz, horrek ez duela kontabilitatea enpresa baten moduan eroan behar. Gastu eta sarrerak kontrolatzearekin nahikoa dela eta Urrutiak hori egin zuela adierazi zuen. Gaineratu zuen Patro-



Aitor Urrutia aurrean eta Patronatuko kideak atzean, martitzenean.

MIRIAN BITERI

natuko gainerako kideek egoeraren berri zutela eta haiek ere ardura dutela horretan. Abokatuaren arabera, "akatsen bat egon bada ere, zorrak ez ditu administratzaileak sortu; egoitzaren egoeratik sortu dira". Horren harira, nabarmendu zuen Urrutiak lan egin duela Diputazioarekin

akordioa lortu ahal izateko eta egoera desblokeatzeko. Urrutiaren abokatuaren esanetan, "gaur egungo egoera saihestu beharrean, maiatzean nire defendatuaren kontra egitea erabaki zuten".

Abokatuari erantzunez, Urrutiak onartu zuen arazoak esku artetik ihes egin ziola. Kontabi-

litatearen harira, esan zuen bazezkiela legeak eskatzen duen gutia ez zela egiten, baina Patronatuko kideak informatuta zeudela eta haien "oniritzia" zuela.

ALKATEAREN LANA

Urrutiaren ostean, Patronatuaren izenean Pedro Lasagabaster alkatea hitz egin zuen. Patronatuko presidenteordea izateaz gain herriko alkatea ere badela eta, hortaz, arazoaren berri izan zuten Diputazioarekin harremanetan jarri zela esan zuen; eta 2007an Patronatuan sartu zenetik hona behin baino gehiagotan eskatu diola kontabilitatea Urrutiari.

Saioa amaitu aurretik, alde biek deitutako zazpi lekukok egin zuten berba; tartean, Patronatuko kide Pedro Uribe parrokoak eta Dorleta Lezeta zinegotziak. Haiek adierazi zuten ez zutela zorren berri. Diputazioko Programakuntza eta Kudeaketako zuzendari Joseba Etxabek azaldu zuen 2008a ezkerreko behin baino gehiagotan eskatu dizkiotela Urrutiari 2005etik aurrerako auditoriak, eta baita zerbitzuen katalogoen gaurkotzea ere. 2009ko abenduaren 18rako guztiak izango zituztela esan zuen; ez zen horrela izan eta laguntzak eten egin zituzten.

MUSIKA > KONTZERTUA

Los Galerna arrasatearrak gaur gauean Inkernun

M.B. > ESKORIATZA

Surf doinuak izango dira nagusi gaur, egubakoitza, gauean herriko Inkernu tabernan. Los Galerna taldeak kontzertua eskainiko du, 22:30ean.

Iago (gitarra), Josu (gitarra), Jokin (bateria) eta Morenok (baxua) osatzen dute 2008an Arrasaten sortutako surf instrumental talde hori. Hain justu

ere, 5 Twisters, Shaggy Daddy & The Troublemakers, Lost Souls eta Foxy Boxxi taldeetako lagunek osatzen dute. 2009ko irailean Pantano Records zigilu independentearekin *Extrañas criaturas* izeneko bildumarako bi kantu grabatu ostean, aurten maiatzean lehen lana kaleratu du laukoteak; hamar kantuz osatuta dago diskoa.



Arrasateko Los Galerna taldeko kideak.

GOIENKARIA

JENDARTEA

Etxebizitza bat esleituko du Udalak

Urriaren 25a baino lehen aurkeztu behar dira eskaerak udaletxean

M.B. > ESKORIATZA

Luis Ezeizako etxebizitza esleitzeko prozesua ireki dute ostera, aurrekoan esleitu gabe geratu ostean. Joan den aste-ko osoko bilkuran, haren esleipena arautuko duten oinarriak onartu ziren, hainbat aldaketa eginda; tartean, urteroko diru sarrerak egiaztatzearen gainekoa dago. Oraingoan 21.000 eurokoak izan ahal izango dira.

Seme-alaben kopuruaren gaineko baldintza ere aldatu da: lehenengoatik 10 puntu emango dituzte; bigarrenatik, 20; eta gainerakoengatik, 30. Urriaren 25era arte aurkez daitezke eskaerak, udaletxeko erregistroan.

oharrak

UMEAK

> **Jolasak izango dituzte gaur arratsaldean ludotekan**

Kanpo jolasak izango dira gaur, egubakoitza, Tortolis ludotekan, 7 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta. 18:00etan hasiko dira.

KIROLAK

> **Asteburuko kirol hitzordua**

Euskal Ligako areto-futbol partidua dago bihar, zapatua, Intxaur-

txuetako kiroldegian, Eskoriatza eta Durangoko Saikoa taldeen artean. 18:00etan hasiko da nor-gehiagoka.

INGURUMENA

> **Erreka Eguna egingo dute gaur**

Eguraldi txarraren ondorioz atzeratutako Erreka Eguna gaur, egubakoitza, egiteko asmoa dute. Plazan elkartuko dira 11:00etan eta Deba eta Bolibar errekek garbitzera joango dira, 12:30ak arte. Ize-

na eman behar da parte hartzeko, ingurumena@eskoriatza.net helbidean edo egunean bertan. Udaletik jakinarazi dute 10 urtetik beherakoek arduradun batekin agertu beharko dutela.

GAZTEAK

> **Kontzertua eta film laburren emanaldia egunotan gaztelekuan**

Kontzertua dago bihar arratsaldean herriko gaztelekuan, 17:00etan. Domekan, ostera, film laburren

emanaldia egongo da toki eta ordu berean.

MENDIA

> **'Iñakiren ahotsa' ikus-entzunezkoa ikusi ahal da eguaztenean**

Annapurna mendian hil zen Iñaki Otxoa de Oltza mendizalearen gaineko ikus-entzunezkoa ikusi ahal da eguaztenean, hilak 13, kultura etxean, 19:00etan. Haren lagun Jorge Nagorek egingo du aurkezpena.

> KIROLA

Afizionatu mailako pilota partiduak astelehenean

Astelehenean, hilak 11, afizionatu mailako bi partidu jokatuko dituzte Udal Pilotalekuan. Mendinueta-Landaburu eta Elezkano-Aldape lehiatuko dira lehenengo norgehiagokan; eta Aitor Mendizabal-Perez eta Azpiri-Gartzia bigarren norgehiagokan.

Partiduak 19:00etan hasiko dira eta sarrera doan izango da.

Bestalde, Olalde elkarte-ko palistek aste bukaeran jokatuko dituzte Gipuzkoako txapelketako lehenengo lehiak. Urrietaren aurka izango dira, hain justu.

> KIROLA

Antzuolak bihar jokatuko du, 15:30ean, Intxurreren aurka

Erregional preferente mailako taldeak bihar jokatuko du bosgarren jardunaldiko partidua Alegiako Intxurreren aurka. 15:30ean izango da norgehiagoka.

Antzuolak joan den aste bukaeran lortu zuen denboraldiko lehenengo garaipena, Tolosaren aurka, etxean. 2-1 irabazi zuten Juanina Garairen mutilek. Modu horretan, sailkapeneko 10. postuan jarri dira antzuolarrak bost punturekin. Intxurrek lau puntu ditu.

> UDALBATZA

Aramaioko alkatearen aldeko mozioa onartu dute

Eguazteneko osoko bilkuran, Asier Agirre Aramaioko alkatearen aldeko mozioa onartu zuten. Bederatzi aldeko boto izan zituen mozioak -PSE-EEko zinegotzia abstenitu egin zen.

Modu horretan, elkartasuna eta babesa erakutsi gura dio udalbatzak Agirreri AHT-ren gaineko herri galdeketa egiteagatik jaso duen zazpi urteko zigorra dela-eta.



Depositua Lizarraga auzoan egin dute, Iturbetxiki baserriaren gainean.

VALEN MOÑUX

AZPIEGITURAK > AUZOAK

Lizarragako ur-depositua datorren astean bukatuko dute

Eguaztenean udalbatzak 40.000 euroko diru partida onartu zuen, sarea Irimoraino eramateko

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Azken ukituak ematen dabilta Lizarragako ur-deposituari. Egun batzuk barru depositua amaituta egongo da. Estatu Fondotik eta Diputazioetik jasotako diruarekin egin dituzte lanok; hain zuzen, 206.000 euroko aurrekontua izan dute.

Valen Moñux Udaleko aparejadoreak azaldu du depositua eginda dagoela, eta baita hodi nagusia sartuta ere, ura Laskurain handi baserriraino eramango duena.

Depositu berezia dela dio Moñuxek: "200 metro kubiko ditu deposituak; hortaz, depositu han-

dia da". 475 metrora egin dute depositua, eta urak jasotzen ditu 512 metrora dagoen iturburutik.

IRIMORAINOKO ZATIA

Eguazteneko osoko bilkuran onartu zuten Laskurain Handi baserriatik Irimoraino urak eramateko zatia egiteko 40.000 euroko diru partida. Lan horiek hil honetan bertan hasiko dituzte. Trenbide zaharretik joango litza-teke zati horretako ur-sarea.

JENDARTEA > KUDEATUZ PROGRAMA

Urriaren 26an egingo dute lehenengo bilera herritarrekin

Antzuolarren balioak adostea izango da asmoa

A.E. > ANTZUOLA

Udalak eta Diputazioak Kudeatuz programaren bitartez herritarren balioak definitu eta adostea hitzartu zuten. Bada, programa hil honetan bertan jarriko dute martxan. Hain zuzen, urriaren 26an egingo dute lehenengo bilera herritarrekin.

Prospektiker enpresa arduratu-tuko da parte-hartze prozesuarekin. Bi taldetan banatuta egingo dituzte saioak: batetik, kultura eta kirol elkarteetako ordezkariak; eta bestetik, herritarrek. Asmoa da 15 lagun inguruko taldeak izatea; herritarren artean zozketa egingo dute nortzuek par-

te hartu erabakitzeke. Gainera, politikariak talde horietatik kanpo geratuko dira.

GAIA OBJEKTIBOKI AZALDU

Urriaren 26ko bileran armarrarien gaineko datu objektiboak emango ditu Xabier Kerexeta historialariak. Gainera, prozesua zelakoa izango den azalduko dute. Hurrengo bi bileretan talde bakoitzak bere aldetik eztabaidatuko du gaia, eta azkeneko bileran bi taldeak elkartu eta adostasunera iristea izango da helburua.

Prozesuan adostutakoa Udalari proposatuko diote -erabakia ez da loteslea izango.

oharrak

ESKERTZA

> Odol-emaielen elkarteak eskerrak eman gura ditu

Antzuolako odol-emaielen elkarteak joan den astean odola ematera joan zirenei eskerrak eman gura dizkie. 89 lagun joan ziren, eta odola eman zuten 86 lagunek, horietatik bi berriak, gainera. Bada, aurtengo odol-emateak amaitu dira; datorren urteko urtarrilean izango da hurrengo.

MENDI IRTEERA

> Arrola mendi taldeak urriaren 31n egingo du Gorbeira irteera

Hasiara batean urriaren 17an izan behar bazuen ere, azken momentuan data aldatu dute Arrola mendi elkarteak. Hala, urriaren 31n izango da egun osoko mendi irteera. Datu gehiago aurre-rago emango dituzte.

LEHIAKETA

> Abian da Antzuolako XVI. argazki lehiaketa

Lanak aurkezteko azken eguna azaroaren 5a da -udal-letxean-. Aurtengoa XVI. edizioa izango da eta Antzuolan jaio edo bizi den edonork parte har dezake. Sariak 20 euro eta 90 euro bitartekoak dira.

ERRETIRATUAK

> KZguneko tutoretzak urriko martitzenetan izango dira

Urriko martitzen goizean egongo da tutorea KZgunean. Hain zuzen, hilaren 19an eta 26an egongo da, 09:00etatik 13:00etara, liburutegiko ordutegian.

Arin Jatetxea

Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak

ETXEKO BEREZITASUNAK:

Buztana eta txuleta
(zaharrarena).

Enkarguak ere hartzen ditugu.

Astelehenetan eta martitzenetan itxita

Kalebarren 7 • 943 78 62 45
ANTZUOLA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

MUEBLES
IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.

Tel. eta faxa:
943 76 60 89


ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Teilatuak



Aitor Larrañaga irailaren hasiera ezkerreko Baserri Barri egitasmoarako lanean.

E.M.

Aitor Larrañaga > Baserri Barri egitasmoa dinamizatzailea

"Aramaioko baserriarren eta kontsumitzaileen arteko elkarlana bultzatu nahi dugu"

EDU MENDIBIL > ARAMAIO

Nekazarien eta kontsumitzaileen arteko harremana sendotzeko asmoz, kontsumo taldea osatu nahi dute Aramaion, Baserri Barri egitasmoaren barruan. Horretarako bilera deitu dute hurrengo eguenerako, hilak 14. Sastiñan da hitzordua, 19:00etan. Baserri Barriko dinamizatzaile lanetan dabil Aitor Larrañaga (Azkoitia, 1977) nekazaritzako ingeniari teknikoa.

Zein puntutan aurkitzen da Baserri Barri egitasmoa?

Aramaioko herrirako landa garapen proiektu bat garatzeko sortutako egitasmoa da Baserri Barri. Egitasmoaren helburua lehen sektorean esnatzen ari den herri mugimendua aprobetxatu eta herritarren parte-hartzearekin landa garapen proiektu bat martxan jartzea da. Epe motzertainean, bi proiektu ditugu eskuartean. Batetik, Mendixolan egiten ari den Ikerkuntza eta Transformaziorako Zentroa. 2011. urtean martxan jartzea da asmoa. Beheko plantan hiru area edo gune izango lirake: fruten eta esnekien transformaziorako bana eta barazkien ontziratzerako bestea. Goiko planta, berriz, funtzio sozialerako bideratuko genuke: bulegoa, artxibo-liburutegia, laborategia, bilera gela eta dastatze-katarako gela, sukalde txiki batekin hornitua. Eta bestetik kontsumo taldearen sorrera dugu eskuartean; horretarako deitu dugu eguenerako bilera.

Zein da kontsumo taldearen helburua?

Kontsumitzaile talde bat batzeko arrazoi nagusia, modu

osasuntsuan ekoiztutako nekazal produktu jakin batzuk gertuko baserri bati zuzenean erosi nahi izatea da, bitartekaririk gabe; kontsumitzaileek eta gertuko baserriarrek, salmenta zuzena oinarritzat hartuta, elkarlana adosten dute. Baserriarren eta kontsumitzaileen arteko elkarlana bultzatu nahi dugu eta konpromisoa eta ardura bi aldeek izango lukete. Gaur egun, baserriarra hamar bat produktuekin jaitsi daiteke azokara, eta laurekin itzuli etxera. Kontsumo taldearekin, soberakinik ez legoke, eta baserriarrek beharrezkoa bakarrik ekoiztuko lukete.

Zelan gauzatuko litzateke?

Finkatzeko dago hori. Behin taldea osatuta, kontsumitzaileek zer nolako otarra jaso nahi duen adostu beharra dago. Otarra osatzen duten produktuen kantitatea kuotaren arabera izan ohi da, eta kuota, kontsumitzaile guztiendako berdina. Otarra irekia edo itxia izan daiteke. Irekian, otarreko osagaiak kontsumitzaileak aukeratzen ditu, eta itxian, aldiz, baserriarrek berak osatzen du otarra, eskura dituen

"Mendixolako Ikerkuntza eta Transformaziorako Zentroa 2011n jarri nahi dugu martxan"

"Baserriarrei zuzenean, bitartekaririk gabe erosi ahal izatea da kontsumo taldeen helburu bat"

produktuekin, sasoian sasoikoekin. Hasiera baten, otarra itxia izatea gomendatzen da, bestela lehengora goaz-eta. Asteroko otarra hau non jasoko duten ere zehaztu behar da; egokiena guztiei ondo datorkien leku batean banatzea da, banaketa errazteko.

Hainbat kontsumo talderen adibideak aztertuko dituzue eguenean.

Gero eta kontsumo talde eta kooperatiba gehiago ari dira sortzen. Modu egokian antolatuz gero, kontsumitzaileari, ekoizlea ezagutzeak konfiantza handia ematen dio, eta baserriarri, salmenta zuzenerako aukera eskaintzeaz gain, hileroko sarrera finko bat izatea eta bere ekoizpena planifikatu ahal izatea bermatzen dio. Beizamako Uztaro kooperatibak lau zapabost urte daroma martxan eta parte-hartze handia dauka. Baratzak, furgonetak, nekazal tresnak eta abar, guztia, kooperatibarenak dira eta 45 kontsumitzaile batzen ditu. Funtzionamendua oso parte-hartzailea da, neurri handi batean kooperatiba delako. Usurbiltzen kooperatibakoak ere etorriko dira eguenean, eta haien esperientziaren berri emango digute.

Jendeak interesa azaldu du?

Baserri Barri inguruan ahalik eta jende gehien batu nahi dugu. Ea herritarrek eta inguruko herrietakoak animatzen diren eguenerako bilerara etortzen. Hainbat baserriarrek interesa azaldu dute kontsumo taldearentzat barazkiak ekartzeko. Orain kontsumitzaileak behar dira...

EUSKARA > IZENEMATEA, HILAREN 15ERA ARTE

Mintzalaguna egitasmoa bigarren urtez deitu dute Zuiako euskara elkarteek

E.M. > ARAMAIO

Zuiako Koadrilako euskara elkarteek, hainbat erakunderen laguntzarekin, Mintzalaguna egitasmoa eskaini nahi diete koadrilako herritar guztiei. Iazko deialdiak izandako arrakasta ikusirik, aurten ere talde kopuru garrantzitsu bat lortzea da antolatzaileen helburua.

Euskaraz hitz egin nahi duen jendea elkartu, eta, besterik gabe, berba egitea da helburua. Bakoitzak duen euskara mailari baino gehiago, komunikazio-gaitasunari eta euskara erabiltzeko gogoari ematen zaio garrantzia. Astean behin taldekideekin elkartu (kafea hartzeko, kirola egiteko...) eta euskaraz jarduteko gogoia, bes-

terik ez da behar. Datorren egubakoutzera arte, hilaren 15era arte, dago izena emateko aukera. Aramaion, liburutegian eman daiteke izena. Argibide gehiago 662 12 02 09 telefono zenbakian edo gorbeialdea@mintzalaguna.org helbide elektronikokoan. Unai Viana da Zuiako Gorbeialdeko Mintzalaguna egitasmoa koordinatzailea.

SENDABELARREN TAILERRA

Txirritolak antolatuta, Euskal Herriko sendabelarren gaineko tailerra izango da hilaren 16an, 23an eta 30ean, udaletxean, 10:00etatik 14:00etara. Matrikularen prezioa 36 eurokoa da eta izenematea Itsasmendikoirenen telefono zenbakian egin daiteke: 945 28 53 87.

> OSASUNA

Gripearen aurkako kanpaina, urriaren 31ra arte

Gripearen aurkako kanpainak urriaren 31ra arte iraungo du. Txertaketa 65 urtetik gorako guztiendako gomendatzen dute, eta baita gaixotasun kronikoren bat duten 65 urtetik beherakodako ere; esaterako, diabetesa edo bihotzeko, biriketako eta giltzurrunetako gaixotasunen bat dutenendako. Txertoa hartzeko kontsultategira joan behar da, asteleheneetik bari-kura, 09:00etatik 13:00etara.

> KULTURA

'Zuiako Koadrilari begirada bat' argazki lehiaketa

Zuiako udaletan ateratako argazkiak aurkeztu beharko dira. Irabazleak 300 euro eta trofeoa eskuratuko ditu, bigarrenak 200 euro eta trofeoa eta hirugarrenak 150 euro eta trofeoa. Aramaio irudi onenaren 55 euro eta trofeoa izango dira. Datorren urriaren 20an bukatuko da lanak entregatzeko epea. Argibide gehiago 945 43 01 67 telefono zenbakian jaso ditzakezue.



Oianguren, Berlingo maratoian

Agustin Oianguren aramaiorak Berlingo patin maratoian hartu du parte. 4.600 lagun inguru izan ziren irteeran eta Agustin nekatuta baina pozik azaldu da hango esperientziarekin. Ibilbide gogorari eta baldintza eskasei (euria izan zen protagonista) egin zien aurre eta datorren urtean bueltatzeko asmoa azaldu du Agustinek. Animo, ba!

ELGETA > UDALA

Zelako herria gura dugun adosteko prozesua

Idatziz eta telefonoz, herritarren artean hainbat inkesta egingo dituzte hilabeteotan; Udalak Aldundiarekin batera bultzatutako ekimena da



Patxi Basauri, Eburne Egaña eta Oxel Erostarbe, eguazteneko aurkezpenean. L.Z.

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Eguaztenean Lehendakari eta Foru Administrazioako diputatu Eburne Egaña Elgetan izan zen. Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Kudeatuz* programaren bitartez Elgetan egingo diren ekimenen berri ematera etorri zen.

Lehenengo, etxe bakoitzeko inkesta bana jasoko dute herritarrek postontzian. Galdetegi labur bat da eta haren helburua da Udalaren eta udal zerbitzuen inguruan herritarrek duten iriztia jasotzea.

Urria aurrera joan ahala ekimen gehiago ere etorriko dira. Hilaren 21ean, esaterako, herri-

tarren parte-hartzea ezinbestekoa duen hausnarketa prozesu baten aurkezpenean ekingo dute kafe antzokian. Udalak jakin gura du elgetarrek nolako herria nahi duten 2020. urterako. Hala, hiru lan bilera egingo ditu prozesu horretan parte hartzea onartzen duten herritarrekin.

200 INKESTA TELEFONOZ

Gainera, Gizaker enpresak 200 inkesta egingo ditu telefonoz. Herritarrei 30 bat galdera egingo dizkiete, guztiak herriko hainbat gairen inguruan. "Elgetarrei eskatzen diegu galdetegi horiek arretaz erantzutea", eskatu dute alkateak eta foru diputatuak.

ELGETA > PILOTA

Hilaren 15ean, barikuan, hasiko da herri mailako eskuz binakako pilota txapelketa

Txapelketa jokatu duten bikoteak

40 URTETIK GORAKOAK

1. Jose Mari Zubiaurre-Iñaki Ugartebeuru
2. Luis Antonio Alkorta-Gorka Bolinaga
3. Koldo Goenaga-Alex Arantzabal
4. Angel Ibarluzea-Alberto Telleria
5. Pello Larrea-Mikel Elkoro
6. Asier Morales-Fernando Zenitagoia
7. Javier Bolinaga-Iñaki Izagirre

40 URTETIK BEHERAKOAK

A MULTZOA

1. David Peñalver-Sergio Bouzas
2. Koldo Erostarbe-Etor Garate

3. Oskar Askasibar-Enrike Elkoro
4. Diego Cantabrana-Iker Irazabal
5. Igor Irazabal-Gaizka Bolinaga
6. Haritz Gallastegi-Kepa Odriozola
7. Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarrtea

B MULTZOA

1. Andoni Elortza-Odei Zenitagoia
2. Garikoitz Arrazola-Mikel Ormaetxea
3. Jon Irazabal-Ibai Etxaniz
4. Mikel Irazabal-Iñigo Ibaibarriaga
5. Satur Ramos-Eneko Salaberria
6. Iban Retolatza-Javier Larrañaga

L.Z. > ELGETA

20 bikotek eman dute aurten izena herri mailako pilota txapelketan parte hartzeko. "Aste bukararo bederatziz norgehiagoka jokatu beharko dira", esan du Fernando Zenitagoiak; izan ere, txapelketa horretako finala Urte-zahar egunean jokatzeko da.

FINALERDIAK ABENDUAREN 17AN

Egutegia eginda dute antolatzaileek. Horren arabera, finalerdiak abenduaren 17an jokatu dira. Zazpi bikote lehiatuko dira 40 urtetik gorako txapelketan; 14, berriz, 40 urtetik beherakoena.

ELGETA > EKONOMIA

Langabeziak gora egiten dihardu ekainetik hona

L.Z. > ELGETA

Urte hasieratik ekainera bitartean langabeziak behera egin zuen Elgetan. Orain, joera hori aldatu egin da eta udan hasitako goranzko bideari eusten diote datuek. Irailean, langabezia tasa %8,33 da; izan ere, 41 elgetar daude langabezia bulegoan izena emanda. Langabezia tasa txikien zuen Debagoieneko herria izateari utzi dio Elgetak: Leintz Gatzagak (%6,02) eta Oñatik (%7,16) datu hobek dituzte. Hala ere, Debagoieneko batez bestekoaren (%9,78) azpitik jarraitzen du.

Langabezia Elgetan

| | LANGABETUAK | LANGABEZIA TASA |
|-----------|-------------|-----------------|
| Urtarrila | 20 | %6,10 |
| Otsaila | 28 | %5,69 |
| Martxoa | 32 | %6,50 |
| Apirila | 24 | %4,88 |
| Maiatza | 25 | %5,08 |
| Ekaina | 31 | %6,30 |
| Uztaila | 36 | %7,32 |
| Abuztua | 43 | %8,74 |
| Iraila | 41 | %8,33 |

> LEHIAKETA

Urriaren 20a baino lehen aurkeztu behar dira argazkiak Elgeta Klik 2010 lehiaketara

Elgetako argazki digitalen lehiaketa martxan da. Gaia aurten udazkena da eta Kultura Saitetik dei egin dute argazkiak bidaltzen joateko. Epaimahaiak argazki onenak aukeratu eta herriko tabernetan ipiniko dira ikusgai urriaren 24an. Sari politik egongo dira.

> AISIA

Eguaztenean zabalduko du Udalak ludoteka zerbitzua, eta barikuan, gaztelekua

Datorren astean emango diote hasiera 2010-2011 ikasturteari ludotekan eta gaztelekuan. 2-9 urte bitarteko umeei zuzendutako zerbitzua da ludoteka eta 10-16 urte bitarteko gazteendako, berriz, gaztelekua. Izena emateko epeak zabalik jarraitzen du.

> LOTERIA

Elgetako jeltzaleek gertu dute Gabonetako Loteria; hilaren 31ra bitartean eska daiteke

Elgetako Euzko Alderdi Jeltzaleak Gabonetako Loteria atera du. Erosteke interesa dutenek Maria Jesus Leterekin edo Begoña Ardantzarekin jarri behar dute harremanetan. Horretarako epea ere ipini dute: urriaren 31 da azken eguna.

> ZERBITZUAK

Udaleko gizarte laguntzaileak ohiko ordutegia du atzera ere; aurrez txanda hartzea komeni da

Irailaren 24tik aurrera ohiko ordutegia du Udaleko gizarte laguntzaileak. Astelehenetan, eguaztenetan eta eguenetan egoten da udaltxeko bulegoan, 09:00etatik 13:00etara. Kontsultaren bat egin nahi izanez gero aurrez txanda hartzeko gomendioa egiten dute.

LEINTZ GATZAGA > PILOTALEKUA

Martxa onean doaz lanak

Materiala gertatzen dabilta egunotan langileak

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Pilotalekuaren berritze lanak aurrera doaz. Egunotan ez da Razkin enpresako langilerik ibili bertan, baina ez dira geldirik egon; izan ere, materiala gertatzen dabilta lantegian.

Pilotalekuaren aurrealdean hondatuta zegoen txapela kendu egin zuten lehenengo eta txapel berria egiten dabilta orain. Materiala gertu daukatenean joango dira jartzera, seguru asko datorren astean. Hori egin bitartean,

oraindik erabiltzeko moduan dago pilotalekua, baina gero itxi egingo dute. Txapela berritzearekin batera pilotalekua ixtea daukate zehaztuta proiektuan.

Ondo bidean, San Milixan feriarako bukatuta egongo dira lan guztiak eta berritutako pilotalekuan jarriko dituzte postuak.



Pilotalekuaren aurrealdea gertu txapel berria jartzeko.



Ritxar Fernandez, 2007an egindako lasterketan, Foruen plazara lehenengo postuan iristen.

GOIENKARIA

ATLETISMOA > ARRASATE-OÑATI LASTERKETA

"Elorregiraino fresko iristea komeni da"

Antxintxiketan eta Arrasate Atletiko atletismo taldeen eskutik Arrasate-Oñati lasterketa egingo dute bihar; adi Asier Osinagaren gomendioei

XABIER URTZELAI > BERGARA

Lasterketaren etorkizuna kolokan egon eta gero, Oñatiko Antxintxiketan taldeak hartu du orain arte euskara elkarteek antolatzen duten lasterketa, eta kirol hitzorduarekin aurrera egiteko Arrasate Atletikoko taldekideen laguntza ere izango dute.

Hala, bihar, 17:00etan hasita -Portaloian-, atletek 11,7 kilometroko ibilbidea izango dute aurretik: "Adi Elorregira bidean larregi estutzearekin, horra fres-

ko iristea komeni da haraino aldapa behera joango garelako; handik Oñatira malda handirik ez badago ere nekagarria da, bideak etengabe egiten du gora", ohar-tarazi digu antolatzaile lanetan dabilen Asier Osinaga oñatiarrrak.

Internetez izena eman ez duten atletok jakin behar dute izango dutela horretarako aukera: "Oñatin 15:45era arte egongo gara izenak hartzen eta Arrasateko Portaloian 16:30ak arte. Ize-

nematea 15 euro da; autobus zerbitzua erabiltzen duenak 17 euro". Hala, autobusa egongo da proba aurretik Oñatitik Arrasatera joateko, eta proba amaieran Arrasatera itzultzeko.

EUSKARAZ, BERTIN-BERTIN

Arrasate-Oñati lasterketa *Jantzi kirola euskaraz* lelopean egin izan da urte askoan. Aurreratu moduan, euskara elkarteek antolatzen zuten lasterketa atletismo taldeek antolatuko dute orain: "Orain, euskara aldarrikatzeko hitzordu bat baino gehiago, kirol hitzordu bilakatuko da, baina taldean euskaraz jarduteko konpromisoa dugu, eta proba egunean ere horretan ahaleginduko gara".

> DUATLOIA

Iban Letamendi, Euskadiko mendi duatloi krosetan txapelkunorde

Arriaranen (Gipuzkoa) egin zuten joan den astean Euskadiko mendiko duatloi kroseta, eta, sailkapen orokorrean hirugarren sailkatu arren, lehenengo sailkatu Juan Carlos Nieva argentinarra zenez, Euskadiko txapelketan txapelkunorde geratu zen Iban Letamendi oñatiarra.

Sailkapeneko aurreneko postuetan sailkatuta lan ona egin zuten, baita ere, Antxintxika triatloi taldeko Jon Aperribaik (bosgarren), Aitor Larreak (zazpigarren) eta Xabier Ugartek (bederatzigarren). Atletek 20 kilometro egin zituzten mendiko bizikletan eta bederatzik kilometro korrika.

> FUTBOLA

Aloña Mendik eta Bergarak jokatu dute asteburuan etxean

Oraingo asteburuan jokatu dute ohorezko erregional mailako bosgarren jardunaldia.

Bergara esku hutsik itzuli zen joan den astean Aretxabale-taren kontrako derbitik, eta partidu amaieran Oskar Maiztegik garbi adierazi zion GOITBri bihar (16:30) Idiazabalen kontrako partidua oso garrantzitsua izango dela: "Irabazteko partidua izango da, bai ala bai". Aloña Mendik ere etxean jokatu du, Real Unionen kontra, domekan (16:30). Mondra eta Aretxabaleta, berriz, kanpora joango dira: Mondrak Berion izango du hitzordua bihar (17:30) eta Aretxabaleta Tolosan (16:30).

> MENDIKO BIZIKLETA

Debagoieneko 56 ziklista izango dira Euskadi Extrem proban

Oraingo asteburuan egingo dute Euskadi Extrem mendiko bizikleta probako bigarren ekitaldia, eta izena eman duten 345 lagun artean 56 debagoiendar daude. Gainera, Oñatin hartuko dute atseden.

Hala, bihar Guardiatic (Arabako Errioxa) irten eta bi etapatan Lekeitioraino iritsiko dira ziklistak, menditik egingo duten zeharkaldian. Bihar, zapatua, Guardiatic Oñatirako zeharkaldia egingo dute (126 kilometro), eta, atseden hartu ostean, domeka goizean Oñatitik abiatuko dira Lekeitio aldera (78 kilometro). Hala, ziklistek 200 kilometro pasatxo egingo dituzte asteburuan.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Gazteen liga nazionala
Aretxabaleta-Zarautz
Zapatua. 16:30. Barakaldo.

Gazteen euskal liga
Abetxoko-Bergara
Zapatua. 16:00. Gasteiz.

Ohorezko erregional maila
Aloña Mendi-Real Union
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Bergara-Idiazabal
Zapatua. 16:30. Agorrosin.
Berio-Mondra
Zapatua. 17:30. Berio
Tolosa-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Berazubi.

Erregional preferentea
Aretxabaleta-Urnieta
Zapatua. 16:30. Ibarra.
Intxurre-Antzuola
Zapatua. 15:30. Alegia
Mondra-Euskalduna
Zapatua. 17:15. Mojategi.

Lehen erregionala
Eibartarrak-Aretxabaleta C
Zapatua. 17:30. Eibar.
Soraluze-Bergara B
Zapatua. 16:30. Antzuola.

Ohorezko gazteak
Beasain-Mondra
Zapatua. 17:00. Igartza
Burumendi-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. Mutriku.

Lehen mailako gazteak
Eibartarrak-Arizmendi UDA
Zapatua. 13:30. Eibar.
Aretxabaleta B-Urki
Zapatua. 13:30. Ibarra.
Arizmendi-Bergara
Zapatua. 12:00. Almen.

Ohorezko kadeteak
Bergara-Anaitasuna
Domeka. 17:30. Ipintza.
Lagun Onak-Aret. Arizmendi
Zapatua. 12:00. Azpeitia.

Kadeteen lehen maila
Bergara B-Aretxabaleta B
Zapatua. 18:00. Ipintza.
Aloña Mendi-Aloña Mendi B
Zapatua. 12:00. Azkoagain.
Ilintxa-Arrasate
Zapatua. 11:30. Bikuña.

Ohorezko infantilak
Arrasate-Bergara
Zapatua. 12:15. Mojategi.
Elgoibar-Aloña Mendi
Zapatua. 11:30. Elgoibar.

Infantil txikiak

Elgoibar-Bergara
Zapatua. 13:00. Mintxeta.
Beasain B-Arrasate B
Zapatua. 12:00. Igartza.

Emakumezkoen liga
Arizmendi-Mut]]r
Zapatua. 10:30. Mojategi.
Bergara-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Ipintza.
Arizmendi-Amaikak Bat
Zapatua. 10:00. Almen.

ARETO FUTBOLA

Euskadiko Txapelketa
Eskoriatza-Sasikoa
Zapatua. 18:00. Intxaurtxu.

Bigarren maila
Aretxabaleta-Bilbon Legor.
Egubakoitza. 20:45. Almen.

SASKIBALOIA

Lehenengo nazional maila
Aloña Mendi-Ardoi
Zapatua. 18:00. Zubikoa.
Mondragon Unib.-La Salle
Zapatua. 18:00. Iturripe.

Seniorrak lehen maila
MU A-Loiola Indautxu
Zapatua. 12:00. Iturripe.

Senior gizonezkoak
MU-Kevian Sport
Zapatua. 16:00. Musakola.

Senior emakumezkoak
Erroibide-Eskoriatza
Domeka. 11:45. Irun.

Kadete emakumezkoak
MU A-Take Tovar
Zapatua. 12:00. Musakola.

ESKUBALOIA

Euskadiko Txapelketa
Ford Mugarri-Gure auzune
Zapatua. 18:30. Gasteiz.
El Pilar-Soraluze Bergara
Zapatua. 16:30. Gasteiz.

Gipuzkoako txapelketa
Tolosa-Arrasate
Zapatua. 18:00. Tolosa.

Gipuzkoako bigarren maila
Izarraitz Aloña-Urnietakoko
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Gipuzkoako kadeteak
Soraluze Bergara-Arrate
Zapatua. 11:15. Bergara.
Egia Igoa-Talleres Chapime
Domeka. 10:00. Donostia.
Berezo Aloña-Usurbil
Domeka. 12:00. Zubikoa.

Gazte emakumezkoak

Aloña Mendi- Soraluze Berg.
Martitzena. 11:45. Zubikoa.
Egia Bera Bera-Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Egiako.
Bergara Soraluze-Bartolo Ja.
Zapatu. 10:00. Labegarieta.

Kadete emakumezkoak
Bartolo jat.-Aloña Mendi A
Zapatua. 16:00. Zarautz.
Aloña Mendi-Urnietakoko
Zapatua 17:30. Zubikoa.

ERRUGBIA

Senior ohorezko maila
Durango Ilarduya-Univ. Barc.
Domeka. 12:00. Durango.

Erregio eskola
Domekero. 10:30-12:00.
Mojategi.

ATLETISMOA

Arrasate-Oñati herri lasterketa
Zapatua. 17:00. Portaloia
(Arrasate).

MENDIA

Besideren mendi hamabostaldieren barruan:
Arrasateko bide zaharrak errekuperatuz. Urriak 17, 09:00etan Monterronen. Ez da izenik eman beharko.

Urriak 20, 19:00etan Kulturaten, Josu Bereziartuaren "Himalaiaren familiarekin".

PILOTA

Gipuzkoako txapelketa
Gaur, egubakoitza, 19:15ean hasita Bergaran. Udaltaldekuan: Bergara-Zestoa Bergara-Antigua
Gaur, egubakoitza, 19:30ean hasita. Eskoriatzan: Eskoriatza-Burumendi

OHARRA
Oraingo asteburuko zubia dela-eta, talde askok atsedena izango dute.



Aloña Mendiko mutilak etxeko lehen partiduen aurrean
Etxetik kanpora irabazi ostean (55-59) Aloña Mendik -argazkian taldekideak babeslearekin- Ardoi hartuko dute bihar, 18:00etan.

■ ELKARRIZKETA: MANU FERNANDEZ / IRUDI SPORT-EKO IRAKASLEA

"TRX entrenamendu berri eta eraginkorra dugu Irudi Sport-en"

AMAIA TXINTXURRETA

TRX entrenamendua Ameriketako Estatu Batuetako indar armatuetan asmatu zuten barrakoietatik kanpo hilabeteak pasa behar zituztenek. Jausgaiak dituzten bi bandaz osatzen da TRX eta lan handia egiten da gorputzaren indarrarekin eta penduluarekin. Oso lan funtzionala da. Entrenamendu berri hori Arrasateko Irudi Sport gimnasia ekarri dute.

Zer dela eta ekarri duzue TRX entrenamendua Arrasatera?

TRX entrenamenduekin nahikoa direlako 30 minutu gorputz guztia lantzeko; gainera, maila oso altuan lan egitea ere posible da eta pertsona bakoitzaren penduluarekin lanaren intentsitatea bilatzen da. Edonor entrena daiteke TRXrekin.

Nik neuk Espainian komertzializatzen hasi aurretik probatu nuen TRX. Los Angelesetik ekarri zuen lagun batek eta harridura gelditu nintzen egunetik egunera igartzen nituen aurrerapausoekin.

Nolako eskolak eskainiko dituzue entrenamendu berri hori lantzeko?

TRXrekin entrenamenduak banaka edo taldeka egin daitezke. Guk eskolak taldeka emango ditugu, 14-16 pertsonako taldeak sortuko ditugu eta astean bi aldiz, goizez edo arratsalde, 45 minutuko eskolak emango ditugu. Eskola horiek hartzeko, gainera, ez dago Irudi Sport-eko



Manu Fernandez, TRX entrenamenduan.

ko errazak izateaz gain, seguruak eta eraginkorrak dira.

Zenbat pertsonak jasotzen dituzte Irudi Sport-en ematen dituzuen eskolak?

Gaur egun 300-400 bazkide bitartean ditugu eta maila oneneko eskolak ematen saiatzen gara. Irakasleak ere oso ondo prestatuta gaude eta batez ere bilatzen duguna da kirola egitea etortzen den jendeak emaitza eraginkorrenak bilatzea eta aurrerapausoak ematea. Hori bai, segurtasuna ere beti izaten dugu kontuan.

Orain une egokia da zuen gimnasioan izena emateko?

Zalantza barik. Gainera, uda bukatu ostean jende asko etorri zaigu asmo berrieekin eta guk erraztasunak ematen dizkiegu maila guztietako jendeak kirola egin dezan.

"Astean bi egunean 45 minutuko TRX entrenamenduak emango ditugu"

bazkide izan beharrik. Nahikoa da eskola zehatz horietarako izena ematea.

Eskolak oso interesgarriak dira eta horrek jendea motibatuta egiten du. Hori gutxi balitz, eraginkorrak dira, eta hori da gaur

egun jendeak nagusiki bilatzen duena: kirolari ahalik eta denbora laburren eskainita, emaitza onenak lortzea.

Bestelako eskolak eskaintzen dituzue?

Bai, hauek, besteak beste: body pump, body combat, body balance, tai txia, yoga, spinninga... Baita RPM eskolak ere. Azken hori ere entrenamendu nahiko berria da eta bizikleta gainean koreografiak egiten dira, betiere irakasle batek esandakoari jarraituta.

Gainera, hemengo irakasle-

"Gure klaseak jarraitzeko errazak izateaz gain, seguruak eta eraginkorrak dira"

ok bi hilabete eta erdian behin Madril, Bilbo edo dagokion lekura joaten gara eskola berriak jasotzera, ondoren han emandakoak eta ideia berriak gure eskolatan praktikan jartzeko. Eskaintzen ditugun eskolak jarraitze-

Astean zenbat egunean da gomendagarria kirola egitea?

Nire ustez, garrantzitsua da astean hiru egunean entrena-tzea. Gutxienez bi egunean lan aerobikoa egin behar da eta beste egun baten muskuluak indartzeko lanak egin behar dira. Bestela, oso motz gelditzen da entrenamendua. Hala ere, ezin denean ezin da.

TRX entrenamenduak duen beste onuretako bat hori da, lan aerobikoa eta muskularra batzen dituela eskola bakarrean. Hori orain arte ez zegoen, eta orain badaukagula, aprobetxatu egin beharra daukagu.

berria

TRX

TRX gorputza lantzeko modu bat da. 700 kaloria erre daitezke saioko.

TRX ekin 350 mugimendu ezberdin egin daitezke. Landu nahi duzun giharrari dagokion ariketa dauka TRXek. Koordinazioa, oreka, indarra, iraupena eta malgutasuna lantzen dira.

ZATOZ PROBATZERA!

Uarkape kalea 2, behea. Tel.: 943 77 20 87
www.irudisport.com

Atera etekina txartelari!

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena
kluba

Abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldiarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.



Deskontu bereziak



BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)

- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa
- **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- **-%20** elikagai-intolerantzia proban.
- **-%10** mikropigmentazioan: begietan, ezpainenetan edo bekainenetan.
- **-%10** fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.



RENAULT AUTOBERRI

ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA

- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

IKER SUKALDEAK

ARRASATE/OÑATI

- Sukalde osoa erositako, etxetresna elektriko bat opari.



BERGARA/ARRASATE

- **-%5** pakete konbinatueta 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).



ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)

- **-%2** gasolindegian erregaia erositako.
- **-%2** dendako produktuetan.



ARRASATE/OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkidearentzat)

- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.

ARETXABALETA

- **-%15** zerbitzu guztietan.



CLINICA DENTAL BERGARA

CLINICA DENTAL BERGARA

BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)

- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketara doan.

TXURI-URDIN Donostia

DONOSTIA

- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.



AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

DONOSTIA

- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).



ARRAÑAGA AUTOESKOLA

BERGARA

- **-%15** inskripzioa ordaintzean.



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

DONOSTIA

- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

Enpresendako: Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.

Telefonoa: 943 25 05 05 | Posta-e: kluba@goiena.com



> **KONTZERTUA**
Los Reyes del KO taldeak blues doinuz beteko du Espaloia > 32



> **DANBAKA**
Debabarreneko euskara elkarteek bat egin dute Danbakarekin > 33

> **LEXURI DOYAGE**
Arrasatearra da, 21 urte ditu eta Arte Ederrak ikasten dabil; orain, eskultura deskubritu du eta hori garatzen dabil > 34



Espainiako gerrak Aretxabaletan eragindakoa, DVD batean batuta

AURKEZPENA

Arkupen aurkeztuko dute ikus-entzunezkoa urriaren 21ean

12 EUROTAN SALGAI

Intxorta 1937 elkarteak egindako dokumentala 12 eurotan salduko dute

MIRIAN BITERI > ARETXABALETA

Urriaren 21ean, 19:30ean, aurkeztuko da Espainiako gerraren gaineko *Malko gorriak, gerra zibila Aretxabaletan* dokumentala. Aurkezpena Aretxabaletako Arkupeko Zeraia aretoan egingo da; eta emanaldia bukatutakoan, Intxorta 1937 kultura elkarteak egindako eta Arteman Komunikazioak ekoiztutako dokumentala erosteko aukera izango dute gura dutenek, 12 euroren truke. Denera, 500 kopia egin dituzte.

Intxorta 1937 elkarteko kide Juan Ramon Garaik azaldu digu 35 minutu inguru irauten duen dokumental historikoa dela. Aipatu du Jose Ramon Intxauspe aretxabaletarrak egin duela gidoia, eta monarkiaren erortarekin hasten dela hori, 1931ko apirilean. Horren harira, gogorarazi du Errepublikak askorendako itxaropena ekarri zuela eta beste batzuekiko, ostera, pribilegioak galtzeko arriskua. Gaineratu du Aretxabaletan, Euskal Herriko gainerako herrietan bezala, alderdi politikoak eta sindikatuak indartu zirela horrekin.

1936KO UZTAILA

Hortik abiatuta, 1934ko urriaren iraultza ere zabal kontaktzen dute ikus-entzunezkoan; baita 1936ko uztailean izandako estatu kolpea ere. Horren harira, aretxabaletarrek egindakoa azaltzen da; 12 kidez osatutako errepublikaren defentsako komitea sortu zutela eta erresistentziarako lehen taldeak lanean hasi zirela, hain justu. Eskumakoek atxilotu zituztela ere gogoraraziko da dokumentalean.



Aretxabaletako gudariak toki garrantzitsua dute ikus-entzunezkoan.

GOIENA

Garaireren esanetan, "jarraian, faxistak, irailaren 21ean, Leintz Gatzagatik Debagoienean sartu zirela eta frontea Aretxabaletan zazpi hilabetez egonkortuta egon

zela dator. Aretxabaletan sartzean atxilotetak egon zirela kontatzen da, herriko kaleetan eta baita Bedoñan ere; atxilotu horiek fusilatuta izan ziren. Hortik aurrerakoa ere kontatzen dugu, baina onena da dokumentala ikustea, merezi du-eta; izan ere, berregin dugu Dionisio Uribesalgo bedoñarraren atxiloteta eta gudariak borrokan".

ZORTZI LAGUNEK BIZITAKOIA

Espainiako gerrari buruzko kronika egiteaz gain, dokumentalean zortzi aretxabaletarren elkarriketak jaso direla ere azaldu du Garaik: Lucio Oteitza eta Jose Maria Horcajada milizianoak, fusilatu baten anaia Lorentzo Peña, Jose Luis Uribesalgo eta Miren Gartziaetxabe fusilatuen seme-alabak, Begoña Etxebarrieta gudari baten alaba, eta gerrako ume bi: Pablo Urteaga eta Eduardo Altube.

EGIAREN BILA

Ikus-entzunezkoa egiteko ideiarren harira, Garaik zera esan digu: "Altxamendu faxistaren bikt-



DVD

**Malko gorriak
Gerra zibila
Aretxabaletan**

- > **Egilea:** Intxorta 1937.
- > **Hizkuntzak:** Euskara eta gaztelania DVD berean.
- > **Iraupena:** 35 minutu.

EKINTZA

122 izar bailarako fusilatuen izenean

Memoria historikoaren gaineko autobusa herriz herri ibiliko da urriaren erdialdean, eta urriaren 21ean Aretxabaleta bisitatuko du. Bisita eta DVDaren aurkezpena aprobetxatu nahi izan dute ekintza bat antolatzeko. Debagoieneko fusilatuen senitartekoen elkarteak eta Baleuko produktoreak antolatuta, txalapartariak, bertsolariak eta dantzariak izango dira eta fusilatuen senitartekoez ere hartuko dute hitza.

Bertsolariek abesten duten bitartean, Debagoieneko fusilatuen izenean 122 izar jarriko dituzte senitartekoez eta lagunek memoria historikoaren gaineko autobusean. Azken hori herriz herri doa toki bakoitzean egondako fusilatuen izenak jasotzen. Aretxabaletako ekitaldia 18:00etan hasiko da, Durana kalean.

baletan gertatutakoaren gainekoa aurkeztuko dute, baina aurretik Elgetakoa ere egin zuten.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Aretxabaletako Udalak finantzatutako egitasmo hori Arrasaten ere aurkeztuko dutela esan du Intxorta 1937 elkarteko Juan Ramon Garaik. Azaroran izango da hori.



Eusebio Arrese aretxabaletarraren gudari txartela.

GOIENA

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena
kluba

IRAILEKO IRABAZLEAK

Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro



LIIBURU SORTA BAT

Pamiela etxearen
liburu sorta



**M. Angeles
Arriolabengoa**
Unzueta
Aramaio

IRABAZLEA

ARRIKRUTZERAKO BI SARRERA

Arrikruz kobak
ikusteko bi sarrera



**Juan Ramon
Balenziaga**
Errasti
Arrasate

IRABAZLEA

ESAIT-EKO MAILLOTA

Esait-eko Euskal
Herria mallota



**Aitor
Belastegi**
Aranzabal
Antzuola

IRABAZLEA

UMEENTZAKO PUZZLEA

Ikastolen Elkartearen
umeentzako puzzlea



**Mertxe
Kalparsoro**
Esteibar
Aramaio

IRABAZLEA

SARI NAGUSIA UZTAILA-URRIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

WII SPORTS RESORT PACK TXURIA

Ukabi
informatika

Sistemen salmenta eta mantenua
TPV eta enpresak kuðatezeko aplikazioak
Webguneen diseinua.

Domingo Irala z/g (Ariznoa aurrean)
BERGARA Tel.: 943 15 01 01



Los Reyes del KO taldeak joko du bihar gauean Elgetan.

GOIENKARIA

MUSIKA > KONTZERTUAK

Petti eta Los Reyes del KO bihar Espaloian

Dantzazaleek gorputzak mugitu ahalko dituzte Los Reyes del KO taldearen emanaldiarekin; funk eta blues estiloak uztartzen ditu bikoteak

MIRIAN BITERI > ELGETA

Kontzertuak daude bihar, zapatua, Elgetako Espaloian. Petti abeslari eta gitarra-jotzaile nafarra eta Los Reyes del KO taldea igoko dira 22:30ean agertoki gainera. Juan Luis Perez Mitxelena *Petti* ezaguna da dagoeneko Debagoienean, azkenaldian kontzertu asko eskaini ditu eta bailara-ko hainbat herritan.

Estiloari dagokionez, rock, folk-rock, post-rock edo minimalismoa uztartzen ditu, Euskal Herriko bakarlarri originaletariko bilakatuz. Dena dela, hain-

bat kolaborazio egin izan ditu, besteak beste, Anari, Txuma Murugarren eta Rafa Ruedarekin.

SEIGARRIN DISKOA

Bigarren taldeak, Los Reyes del KOk, dantza egiteko aukera eskainiko du. *It's fiesta time!* da Marcos Coll eta Adrian Costa galiziarrek osatzen duten taldearen seigarren diskoaren izenburua eta horretan, taldearen bluesak jatorrizkoenetik modernoeneraino egiten du jauzi, betiere funk, soul, hip-hop eta musika latindarrak

kutsaturik. Oraingoan, gainera, taldekideek konposatutako kantutak sartu dituzte Alemanian grabatu eta AEBetan nahastutako disko osatuen eta pertsonalean.

2002an Los Reyes del KO osatu zutenetik, mundu erdia zeharkatu dute dagoeneko, eta Chuck Berry, Solomon Burke, Buddy Guy, John Mayall, The Animals eta The Fabulous Thunderbirds banda ospetsuekin agertokia partekatu; eta arlo horretako areto garrantzitsuetan jo dute, hala nola Chikagoko Buddy Guy's Legends edo New Yorkeko Terra Bluesen.

Taldeak duen erritmo, energia eta umorearekin, Espaloira joaten diren guztiak dantzalekura irten daitezten lortuko dute.

> AURKEZPENA

Ignazio Arregi oñatiarrak 'Eta orain zer?' liburua aurkeztuko du gaur

Ignazio Arregi jesuita oñatiarrak *Eta orain zer? Gure urte haiek (1931-2009)* liburua aurkeztuko du gaur, egubakoitza, 11:00etan, Donostian. Liburu horretan, Euskal Herriko historian oso "aberatsak" izandako 78 urte horietan bizitakoa kontatzen du egileak, kronika gisa. Horren harira, Arregik berak gogorarazi du urte guzti horietan aldaketa asko izan zirela.

Bestalde, askotariko gaiak jaso dituela azaldu du, hiru ikuspegi orokorretatik landuz: euskaldun oñatiar moduan, jesuita moduan eta, kazetari moduan. Liburua irakurtzeko "arina" dela ere esan digu egileak.

> DANTZA

Behar berezia duten gazteen saioa egongo da etzi arratsaldean Oñatin

Verdini taldeak emanaldia egingo du etzi, domeka, Oñatin. *Dantzaria naiz* izeneko ikuskizuna egingo dute Herriko Plazan, 19:30ean (eguraldi txarra egiten badu, Santa Anan). Verdini dantza taldeak behar bereziak dituzten pertsonak garatzearen eta integratzearen alde lan egiten du. Helburua da pertsonak trebatzea bizi behar duten ingurunean arazorik gabe ibiltzen, dantza garaikidearen bidez.

Horren aurretik, *Lorearen nahia* dantzaldia izango da, Lorea Igartua (oñatiarra) eta Nahia Iparragirrekin. Jose Migel Dorronsooren gitarra eta Arantza Molinaren biolina izango dituzte lagun.

> DANTZA

Bi bikote bergarar lehiatuko dira Segurako dantza txapelketan

Hamar bikote lehiatuko dira etzi, domeka, Seguran izango den Euskal Herriko 34. dantza txapelketan, 18:00etan; tartean, Aritz Arri-llaga eta Amaia Bolinaga eta Mikel Igartua eta Ibane Baseta bikote bergararrek hartuko dute parte. Txapelketako joan den urteko irabazleak, Aitzol Ena eta Maite Lazkano bergararrak, berriz, ez dira izango.

Bikoteek bi dantza egin behar-ko dituzte, fandangoa eta arin-arina. Urtero moduan, bikote irabazleak Nestor Basterretxearen eskultura bat jasoko du, eta ordezkatzeko duen udaltxean utzi beharko du hurrengo urteko txapelketara arte.

MUSIKA > DANBAKA

Danbakari jarraipen zehatza egingo diote bost hedabidek

Debarreneko eta Durangaldeko bost hedabide lagunek jarraipen zehatza egingo diote Danbako IV. musika lehiaketari aurtengo edizioan ere

AMIA TXINTXURRETA > ARRASATE
Debarreneko eta Durangaldeko bost hedabidek jarraipen zehatza egingo diote aurtengo Danbako IV. musika lehiaketari. Hain zuzen ere, hauek izango dira Danbakaren hedabide

lagunak: Durangaldeko *Anboto* astekaria, Eibarko *Eta Kitto!* astekaria, Elgoibarko *Barren* astekaria, Sorluzeko *Pil Pilean* hamabostekaria eta Ermuko *Drogeteniturri* hilabetekaria. Guztietan ere, papereko eta sare-

ko jarraipena egingo diote lehiaketari.

Urriaren 22an hasita, bost kontzertu eskainiko dituzte talde sailkatuek abenduaren 20ra bitartean. Finala, berriz, urtarrilaren 14an izango da. Kontzertu horietan guztietan gertatutakoen berri jasoko da bost hedabide horietan sakon eta zabal. Besteak beste, Danbakaren hedabide lagunek taldeen aurkezpen fitxak iragarriko dituzte eta kontzertu bakoitzeko kronikak ere argitaratuko dituzte.

Horrenbestez, jarraipen zehatza egingo zaio Danbako musika lehiaketari, Goienako hedabideetan ez ezik, euskarazko tokian tokiko beste horietan ere bai.

LEHIAKETAREN OIHARTZUNA

Debagoienerako taldeentzat pizgarri izateko eta euren buruak gainditzeko, aurreko edizioako ereduari jarraituta, aurtengo hiru eskualde hartzen ditu lehiaketak. Helburua da lehiaketari ahalik eta oihartzun handiena ematea, eta horregatik sinatu dute aurtengo bigarren aldiz Goienako



Dark Code taldeko kideak.

DARK CODE

Dark Code, Danbakako 20. taldea

Ikus-entzuleek Internet bidez hala erabakita, Dark Code izango da Danbako IV. musika lehiaketan parte hartuko duen 20. taldea, botoen %52,13ekin.

Bergarako taldea 2008an sortu zen eta hasieran bertsoak jotzen zituzten entsegu lokalean. Denborarekin, baina, abestiak sortu dituzte eta death metal melodikoa lantzen dute. Gaur egun, hauek osatzen dute taldea: Mikel bateria-jotzaileak, Elortza gitarra-jotzaileak, Rodri baxu-jotzaileak eta Aitor abeslari eta gitarra-jotzaileak. Dark Code talde gaztea da eta ilusio handia dute musikan aurrera egiteko.

ek hedabide lagunekin hitzarmena. Debarreneko eta Durangaldeko bost hedabideetako ordezkariak martitzenean izan ziren Goienaren Arrasateko egoitzan hitzarmena sinatzen.

Danbakarekin, musika taldeei euren burua ezagutarazteko

baliabideak eman nahi zaizkie, eta, beraz, aurtengo, Goienako hedabideetan Danbakari buruzko informazio guztia emateaz gain, Debarreneko eta Durangaldean ere jasoko dute musika lehiaketaren berri bost hedabideen laguntzarekin.



Tokiko hedabideetako ordezkariak, Goienaren egoitzan.

A.T.

ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

BERMEA 2 URTE

**1000 b/min
6 Kg**

A+ Saikapen energetikoa
GARBIGAILUA ALF-1106
295 €

BERMEA 2 URTE

**1200 b/min
7 Kg**

A+ Saikapen energetikoa
GARBIGAILUA L-7712S
348 €

BERMEA 2 URTE

**1200 b/min
8 Kg**

A+ Saikapen energetikoa
GARBIGAILUA WD-12811MD
390 €

BERMEA 2 URTE

**1200 b/min
8 Kg**

A+ Saikapen energetikoa
GARBIGAILUA ALF-2812
455 €

BERMEA 2 URTE

200 x 60 x 60

A+ Saikapen energetikoa
HOZKAILUA FFJ-4825X
682 €

LABE ETA BITROZERAMIKA

BERMEA 2 URTE

Eta gainera eraman ezazu FAGORreko sukaldeko tresneria hau opari

A Saikapen energetikoa
**PLAKA IF-3S/AX
ETA LABEA 6H-860AX**
**Lehen 1.209 €
Orain 950 €**

BERMEA 2 URTE

144 x 55 x 60

A+ Saikapen energetikoa
HOZKAILUA AFD-145
290 €

BERMEA 2 URTE

7 Kg

A+ Saikapen energetikoa
LEHORGAILUA FSB-570B
365 €

**EVA MAHAI ZABALGARRIA
+ 4 AULKI VENECIA**
110 x 70
599 €

Europar Batasunaren arategiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren arabeko energia aurreztea.

A+ >>> 70%
A >>> 45%
B >>> 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

Lexuri Doyage > Arte Ederretako ikaslea

"Oroimena daukadanetik ari naiz marrazten, beste ezer ezin nuen ikasi"

Zaletasun nagusien artean dauka margotzea Lexurik. Bere bloke pertsonalean eta paretetan egi-

ten ditu lanak. Horregatik ari da Arte Ederrak ikasten, beste aukerarik ez zuelako ikusten.

Marraztea bere afizio nagusia bada, bere beste afizioak irudikatzea gustatzen zaio: skatea,

eskia, hiriko hainbat estanpa... Orain, eskultura deskubritu eta euskarri hori garatzen dabil.

LANDER MUÑAGORRI > ARRASATE

Aste barruan ikasle eta asteburuetan berriz, langile, biak uztartzen ditu Lexuri Doyagek (Arrasate, 1989). Arrasateko Muxibar pizzerian egiten du lan zerbitzatzen eta barraren beste aldean. Hala ere, sukaldean ere aritzen da, eta horrek ere lagundu dio astean zehar Bilbon bizi denerako. Arte Ederretako ikasketak aurrera ateratzeko, nork daki!

Arte plastikoetan espezializatua zara. Nondik nora sortu zitzaizun marrazteko afizio hori?

Nik neronek ere ez dakit. Txiki-txikitatik aritu naiz pintatzen. Beti sentitu izan naiz gustura esparru honetan. Eskolan ez nituen gustuko matematika, hizkuntza ez beste ezer. Gogoratzen naizenetik marrazten dut; beraz, aspaldiko afizioa dela esan daiteke.

Eta zein euskarritan gustatzen zaizu gehien marraztea?

Grafiti mundua asko gustatzen zait, baina ez ditut espriak erabiltzen. Nahiago ditut pintzelak, eta horiek erabiltzen ditut. Pintze eta brotxak. Horretaz gain, nire bloka ere beti alboan daukat eta hor ibiltzen naiz nire zirriborroak egiten.

Kaleko margolaria zarela esan daiteke, beraz?

Bai. Ni kalekoa naiz, eta hala ikusten dut nire burua. Azken finean, pintatzen dudak gehienak hiriarekin zerikusia dauka. Margotzen ditut nire inguruko jendea eta nire afizioak. Eskia, skatea, surfa... eta hori guztia nire estilora pasatzen dut.

Ze marrazki mota egiten duzu?

Nire marrazkiak errealistak dira, gehienbat, puntu hori daukat, eta kendu ezin dudak zerbaite da. Hori da, behintzat, nire irakasleek behin eta berriz diotena. Marrazki abstraktuak ez ditut lantzen.

Eta beste alorretan aritu zara? Horiematik zein gustatzen zaizu gehien?

Irudigintzarekin zerikusia duen guztia dut gogoko. Grabatuak, eskultura, serigrafia... Hala eta guztiz ere, pintura gustatzen zaidan gehien. Baina orain hasi naiz eskultura deskubritzen, eta erakartzen nau, egia esan. Aurrekoarekin apurtzen duela iruditzen zait, ez dago lekuz kanpo, eta ez dauka betiko irudiekin zeri-



LANDER MUÑAGORRI

PERTSONALA

Herria: Arrasate. **Adina:** 21 urte. **Ikasketak:** Arte Ederrak. **Zaletasunak:** Lagunak, eskia eta, batez ere, margotzea. **Film bat:** *Ice Age*. **Ikusitako azken filma:** *Avatar*. **Musikari bat:** Alpha Blondy edo Bob Marley. **Bisitatuak leku politena:** Edinburgo eta

Galiziako kalak. **Bisitatzeko leku bat:** Saharako kanpamenduak, Noruega edo Australia. **Artista bat:** Banksy eta Frida Kahlo. **Artelan bat:** Banksyrenak gustuko ditut, eta Frida Kahloren margolan asko eta asko.

kusirik. Eta transmititu nahi duzuna berdin-berdin egin daiteke.

Eskia ere egiten duzu horretaz gain. Nondik datorkizu afizio hori?

Lagunengandik sortu zitzaidan orain dela 5 urte inguru. Txikitik gurasoekin ere joaten nintzen. Baina gero, lagun batek hor zehar etxea badauka, hori abantaila bat da. Eta, azkenean, horrela sortu zitzaidan afizioa. Eta orain, engantxatuta nago erabat.

Eskiatzeko gogoko lekuren bat?

Formigalen sartuta gaude beti, baina ez zait gustatzen. Gehiago gustatzen zaizkit Astun edo Frantziako Pirinioak, ez baita horrenbeste jende ibiltzen.

Patinetean etorri zara hona. Skatea ere afizio?

Gustatzen zait skatea, baina ez naiz ibiltzen saltoak eta antzeko gauzak egiten. Bilbon bizi naiz orain, eta patinetea garraibide moduan erabiltzen dut.

Muxibar pizzerian ere ibiltzen zara...

Bai, horixe da nire lana. Lau urte inguru daramatzat bertan, eta etxeko bezala sentitzen naiz. Nire lehen lana izan da, eta egunerokotasunean mantentzeko laguntzen dit. Asteazkenean Bilbon egoten naiz eta asteburuetan Arrasatera itzuli, eta bertan egiten dut lan.

Zein da pizza on baten sekretua?

Hori ezin dizut esan, etxeko sekretua da.

Etiket kanpo ere bizi zara, Bilbon. Noiztik?

Aurten hirugarren urtea, karreraren daramadan denbora.

Eta zelako esperientzia izaten ari da?

Polita oso. Denei gomendatzen diet, eta denek eduki behar lukete aukera horretarako. Gauzak beste modu batean egiten dituzu; askatasuna daukazu, baina askatasun hori zeure erara moldatzen duzu. Dena da positiboa. Txarrena, ama ez daukatzula etxean...

Pentsatzen dut bertan ere makina bat pizza egingo dituzula...

Bai, asko egiten ditut...



JOSETXO ARANTZABAL

Arrasate-Oñati herri lasterketa aztertuko dute

Arrasate-Oñati herri lasterketari errebaso zabala egingo diote *Harmailatik* saioan. Horrez gain, ibarreko futbol taldeen jarraipena ere egingo du Xabier Urtzelaik. Bestelako kirol kontuak ere izango dira berbagai.

GOITB, 'Harmailatik'
> Astelehena, 20:45



GOIENKARIA

Egoera politikoaz jardungo dute

Egoera politikoari buruzko mahai-ingurua eguaztenezan *Goiena magazinea tertulia*-n. Horretarako, alderdi politikoetako hainbat kide izango dira platoan, Julen Iriondo kazetariaren gidaritzapean.

GOITB, 'Goiena Magazinea, tertulia'
> Eguaztana, 22:15

astea GOITBn

| Egubakoitza, 8 | Zapatua, 9 | Domeka, 10 | Astelehena, 11 | Martitzena, 12 | Eguaztana, 13 | Eguena, 14 |
|-------------------------------------|-------------------------------------|----------------------------------|----------------------------|---------------------------|----------------------------------|-----------------------------------|
| 13:15 Marrazki bizidunak. | 08:00 Marrazki bizidunak. | 08:00 Ipupomamua. | 13:15 Marrazki bizidunak. | 13:15 Marrazki bizidunak. | 13:15 Marrazki bizidunak. | 13:15 Marrazki bizidunak. |
| 13:45 Kantari. | 11:00 Ipupomamua. | 09:00 Marrazki bizidunak. | 13:45 Kantari. | 13:45 Kantari. | 13:45 Kantari. | 13:45 Kantari. |
| 14:15 Onein. | 11:30 28 Klip. | 11:30 Berbetan. | 14:15 Eltze beroa. | 14:15 Onein. | 14:15 Eltze beroa. | 14:15 Eltze beroa. |
| 14:45 Berriak. | 12:00 Erloklip. | 12:30 Goiena Magazinea. | 14:45 Berriak. | 14:45 Berriak. | 14:45 Berriak. | 14:45 Berriak. |
| 15:15 Ur eta lur. | 12:30 Goiena Magazinea. | 12:30 Goiena Magazinea tertulia. | 15:15 3x3 saskibalo proba. | 14:45 Berriak. | 15:10 Iragana gogoratuz. | 15:15 Gipuzkoa kultura. |
| 15:45 Erloklip. | 13:30 Eltze beroa. | 13:30 Ur eta lur. | 15:45 Ikusmira. | 15:10 Harmailatik. | 15:50 Onein. | 15:45 Goiena Magazinea, tertulia. |
| 16:15 Herriz-herri. | 14:00 Animalia. | 14:00 Onein. | 16:15 28 Klip. | 15:50 Berbetan. | 16:20 28 Klip. | 16:45 Berriak. |
| 16:45 Berriak. | 14:30 Barrebusa. | 14:30 Goiena Magazinea. | 16:45 Berriak. | 16:20 Zarauzko ikurriña. | 16:45 Berriak. | 17:15 Marrazki bizidunak. |
| 17:15 Marrazki bizidunak. | 17:45 Eskuokin. | 15:30 Gipuzkoa Kultura. | 17:15 Marrazki bizidunak. | 16:45 Berriak. | 17:15 Marrazki bizidunak. | 17:35 Harmailatik. |
| 18:00 Ipupomamua. | 18:00 Ur eta lur. | 16:00 Marrazki bizidunak. | 17:45 28 Klip. | 17:10 Marrazki bizidunak. | 18:15 Marrazki bizidunak. | 17:45 Onein. |
| 18:45 Berriak. | 18:30 Gipuzkoa Kultura. | 18:15 Ipupomamua. | 18:15 Marrazki bizidunak. | 17:35 Herriz-herri. | 18:45 Berriak. | 18:15 Marrazki bizidunak. |
| 19:15 Kantari. | 19:00 Herriz-herri. | 19:15 Goiena Magazinea tertulia. | 18:45 Berriak. | 18:15 Marrazki bizidunak. | 19:15 Marrazki bizidunak. | 18:45 Berriak. |
| 19:45 Goiena Magazinea. | 19:30 Animalia. | 20:15 Harmailatik. | 19:15 Kantari. | 18:45 Berriak. | 19:15 Marrazki bizidunak. | 19:15 Kantari. |
| 20:45 Gipuzkoa kultura. | 20:00 Goiena Magazinea. | 20:45 Goiena Magazinea tertulia. | 19:45 Berriak. | 19:15 Kantari. | 19:45 Goiena Magazinea. | 19:45 Goiena Magazinea. |
| 21:15 Goiena Magazinea. | 21:00 Ikusmira. | 21:45 Goiena Magazinea tertulia. | 20:15 Gipuzkoa Kultura. | 19:45 Berriak. | 20:45 Iragana gogoratuz. | 20:45 Ipupomamua. |
| 22:15 Ikusmira. | 21:45 Goiena Magazinea tertulia. | 22:05 Harmailatik. | 20:45 Harmailatik. | 20:15 Harmailatik. | 21:15 Goiena Magazinea. | 21:15 Goiena Magazinea. |
| 22:45 Erreportajea: Imaz memoriala. | 22:45 Gipuzkoa kultura. | 22:45 Goiena Magazinea. | 21:30 Berriak. | 21:30 Berriak. | 22:15 Goiena Magazinea tertulia. | 22:15 Gipuzkoakultura. |
| 23:45 Goiena Magazinea. | 23:15 Harmailatik. | 21:45 Gipuzkoa Kultura. | 22:00 Iragana gogoratuz. | 22:30 Mokolo gau batez. | 23:15 Goiena Magazinea. | 22:45 Zarauzko Ikurriña. |
| 00:45 Emisio amaiera. | 00:15 Erreportajea: Imaz memoriala. | 22:15 Mokolo gau batez. | 22:30 Harmailatik. | 00:30 Emisio amaiera. | 00:15 28 Klip. | 23:45 Goiena Magazinea. |
| | 00:45 Emisio amaiera. | 00:15 Emisio amaiera. | 23:30 Berriak. | | 00:45 Emisio amaiera. | 00:45 Emisio amaiera. |

arrasate irrata

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera!

- > Albistegia
- > Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
- > Astelehenetan Kirolak
- > Enekoren tartea
- > Udal Gazte Bulegoa
- > Sexologia Zerbitzua
- > Astearren errebaso (Goienkariarekin)
- > Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
- > Zozketak (egubakoitzean)
- > Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com edo goiena.net atarian, irratiko bloga)
- 12:05 Euskadi Irratiko albistegia
- 12:10 Musika
- 13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
- 14:00 Igo Autobusera! (errep.)
- 17:00, 19:00, 22:00: Errepikapenak

guardiako farmaziak

ARRASATE

| | | | |
|-----------------|------------|----------------------|--------------|
| Zapatua, 9 | Fernandez | Maisu Aranberri 1 | 943 79 22 26 |
| Domeka, 10 | Irizar | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| Astelehena, 11 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Martitzena, 12 | Morales | Araba Etorbidea 14 | 943 79 18 65 |
| Eguaztana, 13 | Ruiz | Nafarroa Etorbidea 1 | 943 79 14 09 |
| Eguena, 14 | Etzeberria | Zurrugalde 42 | 943 77 16 30 |
| Egubakoitza, 15 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |

BERGARA

| | | | |
|-----------------|---------------|---------------|--------------|
| Zapatua, 9 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Domeka, 10 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Astelehena, 11 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Martitzena, 12 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Eguaztana, 13 | Urrutikoetxea | Orixondo 4 | 943 76 11 74 |
| Eguena, 14 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| Egubakoitza, 15 | Gullar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |

OÑATI

| | | | |
|-----------------|-------------|----------------|--------------|
| Zapatua, 9 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Domeka, 10 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Astelehena, 11 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Martitzena, 12 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Eguaztana, 13 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Eguena, 14 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Egubakoitza, 15 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |

ARETXABALETA - ESKORIATZA

| | | | |
|-----------------|--------|-------------------|--------------|
| Zapatua, 9 | Agirre | Gorosarri plaza | 943 71 48 28 |
| Domeka, 10 | Agirre | Gorosarri plaza | 943 71 48 28 |
| Astelehena, 11 | Anitua | Belorrieta Auza 1 | 943 08 11 43 |
| Martitzena, 12 | Anitua | Belorrieta Auza 1 | 943 08 11 43 |
| Eguaztana, 13 | Anitua | Belorrieta Auza 1 | 943 08 11 43 |
| Eguena, 14 | Anitua | Belorrieta Auza 1 | 943 08 11 43 |
| Egubakoitza, 15 | Anitua | Belorrieta Auza 1 | 943 08 11 43 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2010eko egutegia. Bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,39 € + WAP deskarga kostua, operadorearen arabera, Altria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

herritarrak galdezka

EROSKI TXARTELA

Arrasatear batek hauxe galdetu digu: "Eroski txartelarekin dirua atera daitekeela entzun dut; egia da?"

Bai, aurrerantzean Eroskin erosketak ordaintzera joaterakoan, posible izango da, baita ere, kutxazainari bera dirua eskatzea. Horixe da Eroski txartelak eskainiko duen zerbitzu berria: dirua atera ahal izango dela Eroskiko kutxetan: "%2ko komisioa izango du zerbitzu horrek, baina hilabete honetan doan izango da", adierazi dute Eroskitik.

Egunean 300 euro atera daitezke, gehienez, eta atera daitezkeen gutxienezko kopurua 5 euro da.

ESKOLAKO ATERPEA

"Noizko espero da Antzuolako eskolako aterpeko lanak amaitzea?", galdetu digu antzuolar batek.


Urri bukaerarako eskolako aterpeko lanak bukatuta egoitea espero da. Materialarekin arazoak izan zituzten -Belgikan-, baina dagoeneko iritsi da materiala eta hasi dira aterpeari itxura ematen. Bi hilabeteko atzerapenarekin ibili arren, eskolako aterpeko lanek martxa onean jarraitzen dute berriro.

Egiguzu galdera eta geuk egingo diogu dagiokionari.

- Telefonoz: 943 25 05 05 • Faxez: 943 25 05 12
- Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com


eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 9

Zerua hodeitsu izango dugu orokorrean, baina ostarteak ere zabalduko dira. Euria ere egin dezake eta temperatura jaitsi egingo da.



Domeka, 10

Temperatura jaitsi egingo da domekan, eta, horrez gain, prezipitazioak egongo dira egun osoan. Hala ere, ostarte txiki batzuk ere zabalduko dira.

EUSKAL HERRIAN

Bihar, zapatua, ostarteak egon arren, orokorrean hodeitsu egongo da eguna eta zaparradak bota ditzake. Domekan, tenperaturak gehiago jaitsiko dira.






Jose Ramon Ibabe eta **Inmaculada Graña** oñatiarrak 1985eko urriaren 5ean ezkondu ziren. Zilarrezko ezteiak asteburu honetan ospatuko dituzte. Familiakoen partetik, zorionak eta urte askotarako, bikote!

hildakoak

- **Migel Uranga Garitano.** Antzuola. Irailak 26. 93 urte.
- **Bixente Intza Igartua.** Oñati. Urriak 1. 95 urte.
- **Tomasa Garcia Gallego.** Eskoriatza. Urriak 1. 89 urte.
- **Consuelo Reija Garcia.** Arrasate. Urriak 3. 89 urte.
- **Pascual Azkarate Azkarate.** Bergara. Urriak 3. 85 urte.
- **Adolfo Lozano Fernandez.** Aretxabaleta. Urriak 3. 75 urte.
- **Maria Garmendia Mujika.** Oñati. Urriak 4. 86 urte.
- **Justa Ezkurra Zubizarreta.** Arrasate. Urriak 4. 96 urte.
- **Eugenio Lacalle Puras.** Aretxabaleta. Urriak 4. 81 urte.
- **Patxi Gaztañaga Orotz.** Aretxabaleta. Urriak 5. 86 urte.
- **Espe Miner Garate.** Arrasate. Urriak 6.
- **Jose Colas Sebastian.** Bergara. Urriak 6. 81 urte.
- **Pablo Agirregabiria Marin.** Oñati. Urriak 6. 85 urte.



Ibon Garitano eta **Larraitx Agirre** bergararrak bihar, zapatua, ezkonduko dira Soraluzeko Ezozil elizan. Bazkaria Elgoibarko Beraustegi jatetxean egingo dute eta ezkonbidaian Vietnamera joango dira. Zorionak etxekoan eta lagunuen partetik.



Jose Luis Azkarate eta **Milagros Beitia** arrasatearrak ezkondu zirela 40 urte beteko dira urriaren 10ean. Zorionak eta urte askotarako, aitaita eta amama! Oihan, Lide, Hegoi eta Garazi biloben partetik.

URTEURRENA

Jose Luis Irizar Balzategi

Bigarren urteurreneko meza martitzenean, urriaren 12an, 19:00etan, Oñatiko Santa Ana Konbentuan ospatuko da.

*Fan ziñanetik pasau dia bi urte,
jare zebeñ hutsunia
ezingo dugu sekula bete.*



Elizkizunera joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko etxekoan izenean.

URTEURRENA

Jaio Ugarte Urrutia

Lucia Urrutiaren alarguna

Aramaion hil zen 2009ko urriaren 8an, 89 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 10ean, 15:00etan, Aramaioko Gantzaga auzoko San Millan elizan ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

Maria Garmendia Mujika

Dorita Zufria gure lankidearen ama

2010eko urriaren 4an hil zen, 86 urte zituela.

*Ez agurrik, ez adiorik,
gero arte bakarrik.*




Arizmendi ikastolako lankideak.
Leintz bailaran, 2010eko urriaren 8an.

URTEURRENA

Remigio Agirrezabalaga Pradera

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 10ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Juanito Garate Unzetabarrenetxea

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 10ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Tomasa Garcia Gallego

Francisco Sarabiaren alarguna

Eskoriatzan hil zen 2010eko urriaren 1ean, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2010eko urriaren 8an.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zatoz ordezkari batara.

Eskelaren prezioa: 122.50 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta astelehenerako GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **163 euro.**

GOIENKARIA: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.



Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

Urriak 8-14

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Musika



ARRASATE

> The Kill Devil Hills taldearen eta Johnny Cruickshanken kontzertua

Neil Young, Bob Dylan, Nick Cave, Johnny Cash eta beste batzuen eraginak jasotzen ditu The Kill Devil Hills talde australiarrek. Europan lehenengoz jotzen dabilta, eta gaur, egubakoitza, izango dira Amaia Antzokiko *hall*-ean, 20:00etan.

Jaia



BERGARA

> Elosuko ganadu feria, bertsoak, idi proba eta erronka Pilare egunean

Elosuan 32. ganadu feria egingo dute hilaren 12an, 09:00etan hasita. Bertso saioa izango da (13:00), Aizarnazabal eta Elosuko idien proba (17:30), aizkora eta motozerra erronka eta trikitaliak. Autobusa ibiliko da Herriko Plazatik.

Ikuskizuna



OÑATI

> Behar bereziak dituzten gazteen bi dantza ikuskizun izango dira domekan

Lorea Igartua oñatiarrak dantza saioa egingo du etzi, domeka, Oñatiko plazan, 19:30ean; gero, Verdini taldeak *Dantzaria naiz* euren ikuskizun berriena egingo dute. Behar bereziak dituzten gazteek osatzen dute talde hori.

nez ezaguna zen aretxabaletar-
raren gaineko erakusketa
izango da Arkupen urri osoan.

Astelehenerdik egubakoitzera, 11:00-
13:00 eta 18:00-20:00; zapatuetan, 11:00-
13:00; domeketan eta jaiegunetan, itxita.

Ikastaroak

BERGARA

> Biodantza ikastaroan izena eman daiteke

Biodantza ikastaroan plaza libreak daude oraindik. Urriaren hasi eta astelehenero dira eskolak, 19:00etatik 21:00etara, Miguel Altuna institutuan. Antolatzaileek dei egiten dute animatzeko eta osasunerako onurak jasotzeko.

Izenematea eta informazioa: Mentxu (626 66 12 92).

ARRASATE

> Euskalki ikastaroa emango dute euskaltegiak eta AEDk

Arrasateko euskara tailerra emango du Udal Euskaltegiak, AEDk antolatuta. 20 ordu izango dira eta izenematea zabalik dago urriaren 10era arte. Matrikula 55 euro da, 50 AEDko bazkideendako.

Argibideak, AED elkarteak.

OÑATI

> 'Argazkien estetika eta irudien azterketa' delako ikastaroa

Argazkien estetika eta irudien azterketa delako ikastaroa emango du Ilunpetan argazki taldeak, Udal Kultura sailaren laguntzarekin. Lau

Antzerkia

ARETXABALETA

> 'Ukelele jauna' antzezlanaren egingo dute

Malas Compañías taldeak *Ukelele jauna* delako antzezlanaren egingo du, familia osoaren dako modukoa. Sarrera, 3 euro. Etzi, domeka, Arkupen, 17:00etan.

Musika

ESKORIATZA

> Arrasateko Los Galerna taldeak kontzertua egingo du

Los Galerna taldeak kontzertua egingo du. *En el purgatorio* diskoko abestiak joko dituzte.

Gaur, egubakoitza, Inkernu tabernan, 22:30ean.

BERGARA

> Kai tabernaren urteurrena dela-eta, hiru kontzertu

Kai tabernak bere I. urteurrena ospatzeko gau berezia antolatu du, honako kontzertuekin: Azkaiter Pelox (bluesa, Bergara), Tobacco Road (bluesa, Gasteiz) eta Rafael & Rodrigo (samba cavaquinho, Brasil).

Gaur, egubakoitza, Cruz Gallastegi kaleko Kai tabernan, 19:30ean hasita.

ARETXABALETA

> Hash taldeak kontzertua egingo du

Portugaleteko rock eta blues estiloko Hash taldeak kontzertua egingo du. *Have a sweet hell* diskoa aurkeztuko dute. Sarrera, 4 euro.

Bihar, zapatua, Arkupeko Zاراia aretoan, 22:00etan.

BERGARA

> David Malet organo-jotzaileak kontzertua egingo du

Nazioarteko Organo Erromantikoaren XI. kontzertu zikloaren barruan, David Malet

organo-jotzaileak eta Luis Gonzalez tronpetajotzaileak kontzertua egingo dute.

Bihar, zapatua, San Pedro parrokian, 20:00etan.

Erakusketak

OÑATI

> VIII. Pintura Lehiaketako lanak erakusketan ipini dituzte

San Migel jaien barruan, aire zabaleko herriko VIII. Pintura Lehiaketa jokatu zen. Horko irabazleen lanak eta beste batzuk ikusteko aukera

dago orain kultur etxean.

Aitor Renteria, Jose Ramon Guerra eta Carlos Espiga izan ziren hiru saridunak helduen kategorian, eta Ane Corral, Iker Corral eta Alex Gordoak, gaztetxoetan.

Lan horiekin batera, ikasturtean barrena pinturako ikastaroan dabilen herritarrek egindako lanak ere badaude ikusgai.

Hilaren 12ra arte, martitzena, egongo da zabalik, jaiegunetan ere bai.

Kultur etxeko erakusketa aretoan, egunero 18:00etatik 20:00etara.

PROPOSAMENA



ELGETA

> Los Reyes del KO taldeak blues, funk eta soul musikaz beteko du Espaloia antzokia

Marcos Coll (harmonika) eta Adrian Costa (gitarra eta ahotsa) galiziarren Los Reyes del KO taldea *Hot tin roof* delako diskoa aurkeztera dator. Zuzeneko indartsua dute, Amerika beltzeko musika onena eskaintzeko. Chuck Berry, Solomon Burke, Buddy Guy, John Mayall, The Animals eta beste talde ezagun batzuekin konpartitu dute agertokia.

Petti bakarlariek ere joko du gau horretan.

Bihar, zapatua, Espaloia antzokian, 22:30ean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

SIMULAGAILUA HANDITU DUGU

Errusiar mendiaren simulagailua handitu egin dugu lau eserlekuko plataforma berri batekin. Gainera, bidaierietako batek joystick baten bidez mugimenduak zuzendu ahal izango ditu. Filma berriak ikusteko aukera ere izango duzu bertan.



Informazio gehiago: www.miramón.org edota 943 01 24 78



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramón-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramón.org

Orduetgia
Astelehenerdik itxita.
Asterartetik ostiralera 10:00-19:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00

zapatutan izango da –urriaren 23a eta 30a, eta azaroaren 6a eta 13a–, 10:00etatik 14:00etara.

Informazioa eta izenematea, honako helbidean: ilunpetan@gmail.com.

Bestelakoak

OÑATI

> Okela-jana antolatu dute Arrasate-Oñatiren ondoren

Bihar, zapatua, jokatuko da 27. Arrasate-Oñati herri lasterketa, eta hori bukatzera-koan, okela-dastatzea egingo dute Foruen plazan.

17:00etan hasiko da lasterketa.

OÑATI, ARRASATE

> Gazte batzarren eskutik, kontzertuak eta hitzaldiak

Arrasate eta Oñatiko gazte batzarren eskutik, honako ekintzak izango dira: gaur, egubakoitza, Argentina eta Uruguayren gaineko hitzaldia (18:30) eta CC-627 taldearen kontzertua (Arrano tabernan, 20:30); eta etzi, domeka, Venezuelaren gaineko hitzaldia (18:00) eta Komuneko paperean taldearen kontzertua (19:30).

Urriaren 16an, Internazionalista Eguna ospatuko dute Gernikan.

ARRASATE

> Literatura solasaldietan izena eman daiteke

Liburutegiak literatura berriketaldiak antolatu ditu, eta izenematea zabalik dago urriaren 15era arte. Euskarazko saioak Mikel Aierbek gidatuko ditu, eta Uxue Alberdiren *Aulki-jokoa* irakurriko dute urriaren 25erako (idazlea bera han izango da); gaztelaniazkoak, Rikardo Arregik, eta Pierre Bayarden *Cómo hablar de los libros que no se han leído* komentatuko dute urriaren 19an. Saio guztiak Kulturaten izango dira, 18:30etik 20:30era. Izenematea, Kulturaten.

ARETXABALETA

> Miguel Hernández poetaren gaineko ikus-entzunezkoa

Miguel Hernández, 100 años de presencia delako ikus-entzunezkoa egingo du Jose Andres Alvaro Okaritzek. Sarrera doan da.

Eguenean, hilak 14, Arkupeko Zاراia aretoan, 19:30ean.

OÑATI

> 'Al Himalaya en bicicleta' delako ikus-entzunezkoa

Oñatiko bizikletazaleen Txirrinka elkarteak antolatuta, *Al Himalaya en bicicleta* delako ikus-entzunezkoa emango dute. Aurora eta Ruben gasteiztarrek 2007an egin zuten bidaiaren kronika da.

Hilaren 14an, eguena, kultura etxean, 19:00etan.

ESKORIATZA

> 'Iñakiren ahotsa' ikus-entzunezkoa emango dute

Iñaki Otxoa de Oltza mendizalearen gaineko *Iñakiren ahotsa* delako ikus-entzunezkoa emango dute. Jorge Nagorek aurkeztuko du.

Eguaztenean, kultur etxean, 19:00etan.

Zinema

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

London river
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.
Astelena: 20:30.
Shrek, felices para siempre
Domeka: 17:00.
Mamut
Eguena: 20:30.

BERGARA

ZABALOTEGI

Avatar
Zapatua eta domeka: 19:30.
Alvin y las ardillas
Zapatua eta domeka: 17:00.

OÑATI

KULTUR ETXEA

Killers
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelena: 19:30.
Como perros y gatos 2
Zapatua eta domeka: 17:00.

ELGETA

ESPALOIA

Si la cosa funciona
Eguaztena: 21:30.

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA

Gru, mi villano favorito (3D)

COLISEO 1

Hincame el diente

COLISEO 2

Cartas a Julieta
Film guztiak:
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30.
Astelena: 20:30.

GASTEIZ

GURIDI

Wall Street: el dinero nunca duerme
17:00, 19:45, 22:30.

Gru, mi villano favorito (3D)
Egubakoitzetik martitzenera: 17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

Come, reza, ama
17:00, 19:45, 22:30.

El aprendiz de brujo
17:30.

Machete
17:30, 20:00, 22:30.

Lope
17:00, 19:45, 22:30.

El americano
20:00, 22:30.

Hincame el diente
Egubakoitzetik martitzenera: 17:00, 18:45, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

El gran Vázquez
17:30, 22:30.

Enterrado (Buried)
18:00, 20:15, 22:30.

Amador
17:30, 20:00, 22:30.

Conocerás al hombre de tus sueños
20:00.

Carancho
17:30, 20:00, 22:30.

Cielo
Egubakoitzetik martitzenera: 20:15.

Cartas a Julieta
17:30, 20:00, 22:30.

El valor de la vida
18:00, 22:30.

Abel
18:00, 20:15, 22:30.

Urriaren 8tik 14ra.

YELMO CINEPLEX

El aprendiz de brujo
16:10 (zapatua eta domeka), 18:20, 20:30.

Lope
16:20 (zapatua eta domeka).

Gru, mi villano favorito (3D)

15:30, 16:30 (zapatua eta domeka), 17:30, 18:30, 19:30, 20:30, 21:30, 22:30, 23:30, 00:30.

Gru, mi villano favorito
16:00 (zapatua eta domeka), 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Karate kid
16:30 (zapatua eta domeka).

Wall Street: el dinero nunca duerme
16:00 (zapatua eta domeka), 17:45, 19:45, 21:45, 23:45.

Saw VI
15:45 (zapatua eta domeka), 17:45, 19:45, 21:45, 23:45.

Machete
18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

Resident evil: ultratumba (3D)
22:45, 00:45.

Toy story 3 (3D)
Zapatua izan ezik: 17:30.

Siempre a mi lado
16:10 (zapatua eta domeka), 18:10.

Adele y el misterio de la momia
16:15 (zapatua eta domeka).

Avatar, edizio berezia (3D)
Zapatua izan ezik: 19:30.

Salt
22:40, 00:40.

Astroboy
17:00 (zapatua eta domeka).

Amador
15:30 (zapatua eta domeka), 17:40, 19:50, 22:00, 00:10.

Step up 3 (3D emanaldiak)
15:30 (zapatua eta domeka).

El americano
20:10, 22:10, 00:10.

Origen
19:00, 21:45, 00:30.

Hincame el diente

18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

Cartas a Julieta
16:15 (zapatua eta domeka), 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Urriaren 8tik 14ra. Gauerdiko emanaldiak, egubakoitzean, zapatuan eta astelenean.

ÁBACO BOULEVARD

Gru, mi villano favorito (3D)
16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

Gru, mi villano favorito
16:00, 18:00, 20:00, 22:00.

Machete
16:05, 18:15, 20:30, 22:40, 00:45.

Buried (enterrado)
16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

Resident evil: ultratumba
22:00.

Resident evil: ultratumba (3D emanaldiak)
22:40.

Cartas a Julieta
16:10, 18:15, 20:20, 22:35, 00:50.

Hincame el diente
16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:45.

Siempre a mi lado
20:15, 22:20.

Saw VI
16:10, 18:05, 20:15, 22:20, 00:30.

Astroboy
16:15, 18:15.

Come, reza, ama
16:30, 19:15, 22:00, 00:40.

Wall Street: el dinero nunca duerme
16:45, 19:25, 22:05, 00:45.

El aprendiz de brujo
15:50, 18:05, 20:20.

El americano
20:15, 22:25.

Campanilla y el gran rescate
16:30, 18:30.

Urriaren 8tik 14ra. Gauerdiko emanaldiak, egubakoitzean eta zapatuan.



BICICLETA, CUCHARA, MANZANA ***

Gaitzaren alde zientifikoa eta gizatiarra

> Zuzendaria: Carles Bosch.

> Gidoia: Carles Bosch.

> Musika: Josep Sanou.

> Espainia, 2010.

> 106 min.

Donostiako Zinemaldian parte hartu duen film bat daukagu. Bicicleta, cuchara, manzana Sail Ofizialean aurkeztu bazen ere, lehiaketatik kanpo zegoen eta ez da fikziozko lana, dokumental bat da eta Alzheimer gaixotasuna da gai nagusia. Boschen lan honetan orokorrean gaixotasunari buruz hitz egiten da eta, honekin batera, kasu konkretu bat ukitzen da, Pasqual Maragallengan kasua, hain zuzen ere. Horrela, filmak badu alde zientifikoa, Alzheimer gaixotasunari buruz mintzatzen da: zertan datzan gaixotasuna, ze jokaera izan diren orain arte, egiten diren ikerketak eta Maragallengan beste erakunde batzuekin egindako lana; eta beste alde batetik, zientziatik kanpo, daukagu gaixotasunari aurre egiten ahalegintzen den familia baten deskribapena. Zati zientifikoak duen alde didaktikoa interes-

garria da eta pertsonen jasaten duten egoeraren azalpena benetan hunkigarria da.

Zientziari dagokionez, esaten zaigu poliki-poliki aurrerapenak ematen direla, baina oraindik denbora dezente pasa beharko dela irtenbide egoki bat topatu arte.

Beste aldetik, dokumental Maragallengan gaixotasunaren bilakaeraren jarraipena egiten du bi urtean zehar. Senideek, batez ere bere emazteak eta bere seme-alabek, euren iritzia ematen dute, euren sentimenduei buruz eta Maragallengan sumatzen duten aldaketari buruz. Euren aurpegi eta begietan ikusten dugu jasaten ari diren egoera latza. Eta Maragalli egiten zaion jarraipenean ikus ditzakegu gaixotasunaren alde desberdinak: eguneko gauzak ahaztu egiten ditu baina bere bizitzan garrantzia izan duten zati asko bere buruan mantentzen dira, esate baterako New Yorkeko bidaia benetan adierazgarria eta hunkigarria da, eta gaitzaren efektuak erakusteko baliagarria da.

Antonio Zabala

Eskasa:* Balekoa:** Ona:*** Oso ona:**** Bikaina:*****

bono fotoa



Zein da 1751etik antzuolarrei ura eskaini dien iturri honen izena?

Argazkia eta galdera > Migel Angel Elkoroberezibar

ZORIONAK AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEARI:

Arrasateko Izaskun Ezpeleta.

Erantzun zuzena: Iurretan, Migeltxu Kajoi ospatuko dute.



ETXEZ ETXEKO BANAKETA
Larchago ardoak eta produktu ekologikoak
943 76 98 51

GARMENDIA ARDOEK EMANDAKO BOTILA ARDO PACKA*
ZOTZ ASMATZAILEON ARTEAN!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa: botila bat.
Larchago beltz berezia: botila bat. Larchago krintza: botila bat.

ERANTZUNA
IZEN-DEITURAK.....
HERRIA TELEFONOA

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

Munduan zehar autostopean

AFRIKAN Martina Ravlic-ek bi astez bidaiatu zuen Elgetako Igor Azkarate, Mikel Alberdi eta Bixen Askasibarrekin


ABENTURAZ ABENTURA Kontinente beltza eta Europa zeharkatu ditu eta Australia eta Zeelanda Berrira doa orain

ELGETARA Suediarako bidean geldialdia egin du Euskal Herrian, Afrikan ezagututako lagunak bisitatzeko

ARRITXU BARRUSO > ELGETA

"Dena ikusi nahi dut, dena ezagutu; oso pertsona kuriozosa naiz, eta inpultsiboa", kontatu zigun Martina Ravlicek joan den domekan Elgetako Epaloian zerbait hartzen zuen bitartean.

Ravlicek 19 urte ditu. Sarajevon jaio zen arren, bederatzi hilabeterekin Suediara joan zen bizi izatera; beraz, suediarra dela dio. Bada, joan den martxoan, motxila hartu, Suedia utzi eta mundua ezagutu nahi zuela erabaki zuen. Orduz gero Europa eta Afrika zeharkatu ditu, baina ez edozein modura: autostop egiten. "Hiru hilabetez Europan zehar ibili nintzen autostop egiten. Polonian mutil koadrila bat ezagutu nuen eta esan zidaten: 'Goazen Marokora'. Eta Marokora joan nintzen haiekin. Han, gero, neska bat ezagutu nuen eta Senegal eta Mauritaniari buruz asko hitz egin zidan. Gauza oso politikak kontatu zizkidan eta paraje haiek ezagutu behar nituela erabaki nuen. Horrela, Mauritaniarako bidea hasi nuen".



ELGETAN GELDIALDIA Martina Ravlic, Elgetako lagunekin Espaloian.

L. ZEBERIO

AFRIKAN Bi astez elkarrekin bidaiatu zuten.

B. ASKASIBAR

Afrikan zehar bidaiatzen. Afrikaz jakin behar nuen guztia erakutsi zidaten, oso interesgarria izan zen". Bi aste elkarrekin igaro ostean, nork bere bidea jarraitu zuen, baina hilabeteren bueltan berriro ere elkartu dira; oraingo honetan, Elgetan.

EUSKAL HERRITIK ETXERA BERRIZ

Martina Marokotik iritsi zen Bilbora eta Bilbotik Elgetara. Oñatiko jaiak ezagutzeko aukera ere izan du gurean egindako geldialdian: "Euskal Herria izugarri gustatu zait, dena horren berdea da... Ezagutu dudan jendea ere oso jatorra iruditu zait".

Elgetako geldialdiaren ostean etxerako bidea hartu zuen berriro ere; autostopean, noski. Suediara, baina, familiakoak eta lagunak agurtzera bakarrik joango da. Ondoren, Londresera joan eta handik Zeelanda Berrira, Australiara eta Indiara bidaiatzeko asmoa du. Momentu hauetan non egongo den ez dakigu: beste abentura bat bizi izaten, seguruenik; edo autostop egiten errepideren baten.

ELGETARRAK BIDE LAGUN

Medebaleko Saharan, baina, bide-lagun berriak topatu zituen: Bixen, Igor eta Mikel elgetarrak. "Ezagutu nituenean Mauritaniarantz abiatzeko puntuan zeuden. Bost minutuan kanpina uztera zihozzen eta hori jakin nuenean eurekin joan nintzen eta bi astez egon nintzen Elgetako hiru mutilokin

ahobero

"Robert Edwards barik ez lirateke izozkailuak enbrioiz beteta egongo, ahaztuta eta hiltzeko itxaroten"

Ignacio Carrasco de Paula
> Vatikanoa

Robert G. Edwardsi Medikuntzako Nobel saria emango diote *in vitro* ernaketaren garapenari buruz egindako lanagatik. Vatikanoa ez zaio gustatu erabakia. Izozkailuak enbrioiz beteta ez, baina milioika guraso egongo lirateke haurrik eduki ezinda.

iturri onetik

10. urteurrena aintzat hartuta Lip Dub lehiaketa antolatuko du Goienak

Goienak hamar urte bete ditu aurten eta urteurrena ospatzeko antolatuko dituen ekintzen artean dago Lip Dub lehiaketa. Azaroan emango dituzte lehiaketaren eta bertan parte hartu ahal izateko baldintzen gaineko xehetasun guztiak. Dena dela, Lip Dub bat zer den erakusteko, Goienako langileak eurak Lip Duba prestatzen ari dira, komunikazioa gaitzat hartuta.

piperrautsa

Mikel Irizar > 'www.goiena.net/blogak/piperrautsa'

Italian alemanez

Tirolo italiarrean gabiltza, Austria inguruan, natur parkeak bisitatzeko. Horietako batean ezagutu dugu Markus. Italiaraz mintzo da gurekin, aleman azentu handiz. Izan ere, bertakoek beren artean alemana baino ez dute erabiltzen. Lehen mundu gerran Italiak Austriari irabazi zion lurralde hau, baina ez dirudi jendea oso italiar bihurtu denik. Nongoak sentitzen ote dira?

Markusi galdetu diot eta argi erantzun du: "Italiarra naiz, alemanera ama hizkuntza duen italiarra". Eta austriar izan nahi lukeen galdetuta, ezetz, ez luketela Austriar izango Italian duten autonomia eta bizi maila. Aukera komenentziazkoa, erromantizismorik gabea. Eta hizkuntzarekin irmo, naturarekin maitale, lurraldearekin konprometitu. Gustatu zait Markus.

ai, ene!



Beharbada abeslaria ere egurrezkoa izango da

Idea originala da, baina ez dakigu ze doinu aterako duten egurrezko gitarra, amplifikadore eta bateria horiek.

www.goponygo.com



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatzu

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51